



Macarena Mugica
abokatuari
elkarrizketa

'Iragana astintzen'
zikloari buruzko
erreportajea

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA



HEMEN DA MAIATZERA ARTEKO GOZALDIA!

Euskararen Egunaren bezperatan deitu dituzte euskaltzaleak Euskaraldia prestatzen hastera. / 32

Arrasateko Euskaraldiko dinamizatzaile Uxue Sampedro, Aitor Isasa eta Tutu Mohamed Salem gozogleekin, Ahobizi eta Belarriprest panpinak lagun dituztela. XABIER URTZELAI ATXA

Sanitarioak Palestinarekin taldeak jaialdi solidarioa egingo du bihar Monterronen / 4

Adif-ek 3,9 milioi euro agindu ditu AHTaren obrek Aramaion kaltetutako bideak konpontzeko / 13



EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2024 / 19

Monitorizatu egingo dituzte Arantzazuko aparkalekuak, betetze-maila zaintzeko / 45

Bergarako Musika Eskolako eraikina egoera larrian dago, eta ekimen bereziak iragarri dituzte / 40

Del Val, Karena, Txerrikumeak eta Henko taldeak Danbaka Musika Lehiaketan gaur / 50

SINADURAK



MAMADOU SARR / 42

RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA / 6

RAMON MARTIN / 45

ENERITZ URRUTIA / 9

AINZANE OIARBIDE / 56

VW ID7

Disfrutatu teknologiaz!

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70

Udalaitz

BULEGOAK ALOKAGAI GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak
60 eta 1.000 m2 artean

Informazioa:
ptgaraia@ptgaraia.eus
943-03 88 46



Arabako eta Gipuzkoako foru aldundietako ordezkariak, udaletako ordezkariekin, bidegorria egongo den lekuan. GOIENA

Aramaio eta Arrasate, bidegorriak loturik

Prozesu luze baten ondoren, Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiek eta Aramaio eta Arrasateko udalek konpromisoa hartu dute Aramaio eta Arrasate lotuko dituen bidegorriaren proiektua hasteko. Gesalibartik pasatuko da bidea, besteak beste

Goitz Arana - Jone Arruabarrena
ARAMAIO

Bidegorri bidez lotuko dira Aramaio eta Arrasateko Gesalibar auzoa, eta, horren gaineko lanketa egiteko, bilera egin dute oraingo astean Arabako eta Gipuzkoako foru aldundietako eta Adifeko ordezkariak eta Aramaio eta Arrasateko alkateak, Aramaion: batzarra udaletxean, lehenengo; eta herri bien arteko hainbat kokalekutara bisita, ondoren. "Bisita honen helburua izan da bidegorriaren lehenengo lanketa egitea, proiektua bideratzeko. Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiek zein Arrasateko eta Aramaio udalek konpromiso bat hartu dugu proiektua aurrera eramateko", azaldu du Asier Arregi Aramaio-ko alkateak.

Aramaio-ko plazan hasiko da bidegorria, eta lau kilometro pasako bidegorri zatia izango da; horietatik 900 metro Arrasateko lurretatik joango dira eta gainontzekoak, Aramaio-koetatik.

Aramaio-ko ur-zikinen sarea Debagoieneko hodi-biltzailearekin lotzeko ere baliatuko dituzte lanak.

Proiektua egitea izango da lehen urratsa, eta bi alderdi hartuko ditu kontuan: bidegorria bera, batetik; eta Aramaio-ko ur-zikinen sarea Debagoieneko hodi-biltzailearekin lotzea, bestetik.

Haitzak, errepidea eta erreka kontuan izanik, proiektu konplexua aurreikusten dutela azaldu du Arregik; teknikoki puntu asko aztertu beharko direla: "Teknikariak hasi dira aztertzen nola egin behar den, eta nondik nora. 2025ean, behintzat, proiektua egingo dela ziurtatu dezakegu".

BIDEGORRIA EZ EZIK, ARAMAIOKO UR ZIKINEN SAREA ERE DEBAGOIENERA LOTUKO DUTE

Aspaldiko eskaera

Egunerokoan nahiz aste bukatetan, badira errepide bazterretik Aramaio-Arrasate ibilbidea egiten duten erabiltzaileak: lanera joateko edo aisialdi denboran, izan bizikletaz edo oinez; eta istripuak ere gertatu dira. Izan ere, aramaioar asko bizi dira Arrasaten eta arrasatear askok dute joera Aramaio-ko. Lotura hori indartzea ekarriko du bidegorriak.

Arrasateko Udala ere "oso pozik" dago Aramaio-Arrasate bidegorria eraikitzekeko proiektuaren idazketarekin. Mainer Morras alkateak proiektuaren beharrezkotasuna azpimarratu du: "Berebiziko garrantzia dauka Arrasaterako zein Aramaio-ko bidegorri eta oinezkoen bidea eraikitzea bi herrien artean. Herrien arteko harremana estua izan da beti, eta oso pozik gaudu". Horrez gain, eskerrak eman dizkio Aramaio-ko alkateari, "proiektua elkarlanean bideratzeko egindako lanagatik".



Zerbimek enpresako kideak, saria jasotzen. ZERBIMEK

Zerbimek, prestakuntza dualeko enpresa onena Gipuzkoan

Confebaskek saritu du Arrasateko enpresa, asteleheneko 'Euskal enpresa eta LH' ekitaldian

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria BERGARA

Zerbimekek, Arrasateko mekanizazio-konpainiak, eskuratu du Gipuzkoako prestakuntza dualeko enpresa onenaren saria, eta "ohore handia" dela adierazi dute enpresako kideek: "Urte asko baitaramatzagu ikastetxeekin elkarlanean; batez ere, Bergarako Miguel Altona Lanbide Heziketarekin. Ikasle asko igaro dira gure enpresatik; are gehiago, horietako batzuk gaur egun hemen dabilta lanean". Horrez gainera, erantsi dute "harro" daude-

la, Confebaskek tamaina erdiko enpresa bat saritu duelako, Gipuzkoan handiagoak diren enpresak egonda ere: "Horrek indartu egiten du lan-merkatuaren benetako beharrekin lotzen duten hezkuntza-eredu berritzaileen aldeko apustua egiten dugula, ondoren gazte-talentua garatzen laguntzeko".

Hain zuzen ere, 31. aldia izan du Confebask antolatzaile duen ekitaldiak, eta Bilboko Euskalduna jauregian egin dute. Adigik -Gipuzkoako patronala-proposatuta jaso du saria Zerbimekek.

A25



GOIENA

Herritarrak, kalera

Azaroaren 25aren baitan, Debagoieneko hainbat herritan egin zituzten ekitaldiak, eta indarkeria matxistaren aurka tinko agertu ziren iluntzean plazetan elkartutakoak. 2003tik hona indarkeria matxistak eraildako emakumeak eta haurrak izan zituzten gogoan hainbat herritan, eta haiek omendu nahi izan zituzten. Bergaran eta Aramaion zapata gorriak jarri zituzten jendaurrean, indarkeria matxistaren biktimak irudikatzen.



Irudi gehiago ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Arizmendiarieta, orainaldian ere bai

Azaroaren 26an ospatu dute aurten Arizmendiarietaren Eguna, Arizmendiarietaren Lagunak Elkarteak antolatuta. Hain zuzen ere, Juan Ignacio Perez Iglesias Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntzako sailburua izan da hizlari lanetan

Jone Arruabarrena ARRASATE

Arizmendiarietaren Lagunak Elkarteak martitzenean ospatu zuen Arizmendiarietaren Eguna. "Haren irudia gogoan izateko eta beraren lanak gaur egun ere balioa izaten jarraitzen duela adierazteko" antolatzen dute egun hori, Lourdes Idoiaga elkarteko presidentea adierazi duenez. Hain zuzen, 1976ko azaroaren 29an zendu zen Arizmendiarieta, eta horregatik ospatu ohi dute eguna azaro amaieran. Egund berezi horretan hizlariaren bat ekarri ohi dute, eta aurten, Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntzako sailburu Juan Ignacio Perez Iglesias



Lourdes Idoiaga eta Juan Ignacio Perez Iglesias. GOIENA

ekarri dute MUko Goi Eskola Politeknikora, *Kultura, oparotasuna eta demokrazia; zientzia bultzatzen duen hirukote bertutetsua* hitzaldia egitera. Idoiaga adierazi du Perez Iglesias "diziplinarteko" pertsona dela, biologoa eta ikerlaria, eta haren hitzartzea nabarmendu du: "Haren hitzaldian dioenez, kulturak, oparotasunak eta demokraziak osatzen duen hirukote bertutetsuak bultzatzen du zientzia".

Horrez gain, Idoiaga azaldu du Arizmendiarietaren pentsaera ez dagoela "zahartuta". Gaur egunerako balio digute haren ideiek; esan zuen mundua ez zegoela kontenplatzeko, eraldatzeko baizik, eta pentsaera horretatik hark sustatutako proiektuek gaurkotatzen daukate oraindik: enpresa ereduak, ikasketa ereduak... Elkarteko kideok ere ez gabilta antzinaro ereduarekin. Aurrera begira gabilta". Bide horretatik, presidentea adierazi du Arizmendiarietaren obra oinarri hartuta liburu digital bat prestatzen dabilzala, adimen artifiziala erabilia.



Marijo Etxegoien Arzuaga oñatiarra. EAJ

Marijo Etxegoien oñatiarra, GBBko kide berria

EAJko Gipuzkoako Herrialde Batzarrak aurkeztu ditu Gipuzkoako Buru Batzarreko burukide berriak. Aukeraketa prozesua egin ostean Maria Eugenia Arriabalaga zumaiarra izango da Lurralde Zuzendaritzako buru. Presidenteaz gain, Uri Batzarretako ordezkariak hamalau burukide aukeratu dituzte, eta haien artean da Marijo Etxegoien oñatiarra.

GIPUZKOA

Ekin.
Gipuzkoa oparoagoa izateko.

Zaindu.
Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituen.

Bizi.
Ondo eta duin bizi daitezten.

GIPUZKOA
Foru Aldundia

Elkartasun "oihu ozena" bidaliko dute Palestinara

Sanitarioak Palestinarekin taldeak 'Oihu bat Arrasatek Palestinara' jaialdi solidarioa antolatu du biharko Monterron parkean (17:00), El Volquete, The Clayton, Trumans, Etxepe eta DMT (Denso, Mutiko eta Tatta) taldeekin eta Andere Arriolabengoa bertsolariarekin

Jokin Bereziartua Lizarazu ARRASATE *Oihu bat Arrasatek Palestinara* lelopean, kontzertu solidarioa egingo dute bihar, hilak 30, Arrasateko Monterron parkean, 17:00etan hasita. Sanitarioak Palestinarekin taldeak antolatu du, Arrasateko Udalarekin elkarlanean. "Palestinaren aldeko oihu ozen bat izateko helburuarekin prestatu dugu kontzertua, Udalarekin, herriko musika taldeekin eta herritarrekin bat", dio antolatzaile lanetan diharduen Oihana Plazak.

Joan barik, laguntzeko aukera Debagoieneko hainbat talde arituko dira Monterron parkeko oholtzan: El Volquete, The Clayton, Trumans, Etxepe eta DMT (Denso, Mutiko eta Tatta). Horrekin batera, Andere Arriolabengoa bertsolari aramaiorarra ere ariko da, irrintzilarien laguntzarekin. Sarrerak hamar euroko prezioa izango du, eta momentuan bertan erosi behar-

ko dira. "Edozelan ere, kontzertura joan ezin denak baina ekarpena egin nahi duenak Maitia dendan eta Irati tabernan dauka horretarako aukera", dio Cristian Coellok, Trumans taldeko abeslari eta antolakuntza taldeko kideak.

Palestinari elkartasuna adierazteaz gain, Israel egiten ari dena salatu nahi dute: "Etorkizunean inork ezingo du esan egoera honen berri ez genuenik eta salatu ez genuenik. Zuzenean ikusten dugu telebistan, eta, hala ere, Israelek baimena du herri palestinarra guztiz ezabatu arte jarraitzeko. Datuak beldurgarriak dira. 44.000 hildakotik gora, 200.000 baino gehiago izan daitezkeenak. Horien erdiak, gainera, umeak. Orain, gosea ari dira erabiltzen arma bezala. Ez gara isilik geratuko, garrasi egingo dugu. Ezin dugu beste alde batera begiratu genozidio honen aurrean", nabarmendu du Plazak.

Identitate trans eta ez-bitarrak izango dituzte hizpide Kulturaten

Ekin elkarteak antolatuta, Yuri Paramos eta Hodei Iria arituko dira hizlari abenduaren 2an, 18:00etan hasita

J.B.L. ARRASATE

Ekin Emakumeak Elkarteak antolatuta, *Trantsizioa transmititu* izeneko hitzaldia egingo dute Yuri Paramos oñatiarrak eta Hodei Iria arrasatearrak abenduaren 2an, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan hasita. Paramosek zein Iriak trantsizioen inguruan hitz egingo dute, eta, Ekin elkarteko kideek aurreratu dutenez, "gako oso garrantzitsuak" emango dituzte identitate transen eta ez-bitarren inguruan. "Hitzaldia edonori zuzenduta dago. Hala

ere, bereziki gurasoentzat edo tutore legalentzat aproposa izan daitekeela uste dugu", adierazi dute antolatzaileek.

Informatzea helburu

Yuri Paramos oñatiarrak urte batzuk daramatza hitzaldiak egiten: "Ikasgeletan sexualitateaz hitz egiten denean ia sekula ez da transexualitateaz berba egiten. Hala hasi nintzen hitzaldiak egiten, ni informatuta egonda sekulako beharra ikusten nuelako besteak ere informatuta egoteko".



Kontzertu solidarioa iragartzeko agerraldia. ENEKO AZURMENDI BARRENA






Izena: Iker Altube Santos
Herria: Arrasate
Gradua: LEINN Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza graduko bigarren maila
Team Company: Nura

"LEINNEk aukera ematen dit benetan interesatzen zaizkidan proiektuetan lan egiteko"

Zergatik aukeratu zenuen Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza gradua ikastea (LEINN)? Ez zait inoiz gustatu bizitza monotonoa izatea, eta LEINNen benetan interesatzen zaizkidan proiektuetan lan egiteko aukera nuela ikusteak asko erakartzen ninduen.

Nola ari da izaten LEINNen bizitako esperientzia? Nahiz eta batzuetan erronka eta presio handiak izan, esperientzia aberasgarria izaten ari da.

Zer gustatzen zaizu gehien Mondragon Unibertsitatetik?

Kontaktu-sarea da. Unibertsitateak aukera ugari eskaintzen ditu arlo askotariko pertsonekin konektatzeko.

Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduan; nola egiten da hori? Lehenik, enpresaren izena aukeratu genuen, Nura. Ondoren, prozesu burokratiko-administratiboa osatu eta gero, Bergarako Ogasunera joan ginen CIF zenbakia eskatzera, Nura enpresa ofizial gisa erregistratzeko. Prozesu konplexua izan da, baina ikaskuntza handia jaso dugu.

Nolakoa da taldean lan egitea? Erronka bat da, oso aberasgarria. Beharrezkoa da denbora guztian komunikazio ona edukitzea eta helburu argiak izatea, eta, hori lortzen denean, lanaren eraginkortasuna asko handitzen da.

Ze proiektuetan ari zarete lanean LEINNen barne? Proiektu guztiek gizarte- eta ingurumen-inpaktu positiboa izatea dute helburu. Grafos proiektuak arte urbanoaren balioa azpimarratzea du helburu,

eta bertan, grafitilariak sustatzen ditugu eta haien lana erakusteko ekitaldiak antolatzen ditugu. Tekirola izeneko proiektuan, kirol-kluben digitalizazioan ari gara lanean, teknologia berriak erabiliz zerbitzuak eta kudeaketa hobetzeko.

Azken egunotan, LEINN graduaren parte den We4all-eko programa sozialean parte hartu duzu; zer-nolako esperientzia izan da? Zer ikasi duzu bertan? Esperientzia laburra baina oso aberasgarria izan da. Kultura eta errealtate askotariko jendea ezagutzeko aukera izan dut, eta haien esperientzien bidez ikasi dut injustizia eta arazo askoren aurrean nola borrokatzen diren.

Zer-nolako izan da atzerriko esperientzia? Non izan zarete? Apirilean hilabete Berlinen igaro genuen, eta bertan, proiektu interesgarriak ezagutzeko aukera izan genuen. Berlin start-up-en sorlekua izanik, enpresamundu dinamiko baten ikuspegi zabala jaso genuen, eta horrek gure ekintzaile-proiektuetan inspirazioa ekarri digu.

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

TREBETASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

BASQUE LABEL HARATEGIAK

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 GURE —
BASERRITARREKIN



EUSKO LABEL PRODUKTUETAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

ANTZUOLA:

GABILONDO ARREGI HARATEGIA - Kalebarren, 5

ARRASATE:

AGIRRE ETXE HARATEGIA - Zarugalde, 33

OÑATI:

JESÚS ODRIUZOLA HARATEGIA - Arantzazuko Ama, 2

BERGARA:

LETURIA HARATEGIA - Pedro Deuna, 24





ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA

Lantokietan euskaraz

Azpeitiko Udaleko Euskara teknikari Patxi Saez Belokik 2015ean idatzitako *Elefantea ikusi* artikuluko lan munduaren azterketak ondorio argia zuen: euskararen laneko hizkuntza erabilera hutsaren hurrengo zen, eta ez dirudi geroztik asko aldatu denik.

Nola gertatu da hori? Nahiko ezkutua den datu deigarri bat dokumentatu, eta 56ko belaunaldia, *Jakin taldea eta Joxe Azurmendi* UPV/EHUko Uda Ikastaroan zabaldu zuen Haritz Garmendia Iturria doktoregaiak: 1866an, Gipuzkoako biztanleen %96,42 euskaldunak ziren, gehienak elebakarrak, eta gaur egun, %100 erdaldunak dira, asko euskaraz ez dakitenak.

Aspaldi agintean daraman espainiar kapitalisten kolonizazioak euskal nortasuna debekatuz, zigortuz eta espainiartasuna indarrez txertatuz, ia guztiz jan digu

burmuina eta guztiz irauli du egoera. Euskal kultur ondarea birrintzeaz gain, belaunaldi arteko transmisioa moteldu, jendartea euskal kulturaz desjabetu eta komunitatea etengabe ahultzen du.

GAZTEEK ERDAL HARRESI BAT AURKITZEN DUTE LAN MUNDURA HELTZEAN

Bidegabekeria horrek justizia

eskaten du garrasika, egindako kaltea konpondu eta euskara eta euskal kultura berrahalduntzea.

Berreuskalduntzea zabaltzen ari den arren, gazteek euskaraz eskolatuta ondoren erdal harresi bat aurkitzen dute lan mundura heltzean. Euskaraz lan egitea elkarbizitzarako eskubidea da, eta lantokien betebeharrak eskubide hori bermatzea.

Ameskeria dela? Hala zen euskaraz eskolatzea ere, baina ikastolen mugimenduak Ameskeria amets bihurtu, bidea ireki eta hezkuntza osora hedatzea lortu du, nahiz eta aurretik bide luzea dagoen oraindik ere. Bizitzaren beste arloak ahaztu gabe, lan mundua euskalduntzea da hurrengoa.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun planekin egin bezala, Hego Euskal Herrian EAEko eta Nafarroako agintariei dagokie aldaketa ezartzeko inbertsioei laguntzak eskaini eta enpresetan euskaraz lan egin ahal izateko araudia ezartzea.

Gorpuztu dezagun amets hori ere.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

25 urte

GOIZALDE LANDABASO

'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/QCKQE](https://labur.eus/qckqe)

Lehenagoan lagun batek kox-kox egin zuen etxeko atarian. Esku bete zetorren. Bigarren eskuko liburu-dendan kuxkuxeatzen egon zen eta, zer topatu, eta nire liburu bat aurkitu zuen. Bi eurotan. Erosi eta oparitan ekarri zidan: *Korte bat, mesedez* liburua zen.

Etxetik alde egin zuenean liburua berrirakurtzen hasi nintzen. Datorren urtean 25 urte izango dira Alberdaniak kaleratu zuela. Mende laurdena. Euskarazko irrati batean lan egiten zuen kazetari batek, sororik soro, ahozko

adierazpen edo korteak bilatu behar zituen. Batzuetan antzua izan ohi zen bilaketa, besteetan, berriz, zaku bete itzultzen zen; beti, baina, gazi-gozotan. Kontakizunetan zenbait desfase dago hogeita bost urte ez direlako aise pasatu. Orduan, oraindik, pezetatlan bizi zen kazetari hura. Kazetaritzari dagokionez, ostera, zenbat aldatu da? Egund euskaldun gehiago daude, hori nabarmena da.

Euskalduntzeak eman dira zenbaitetan, baina esango nuke besteetan, antzeratsu gabiltzala. Urteotan lankideek jasandako hamaikatxo anekdota ekarri dute. "Urak bere bidean", esan didate maiz amorruren amorruez. Aukerak

zabaldu dira euskarazko kazetaritza egiteko, eta horretan buru-belarri dabilzan hedabideak gehiago dira. Euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, hiztun onak behar ditu adierazpenak hartzeko, baina hortik gora edozein gai jorra daitekeela erakutsi da. Hala ere, aspaldi utzi nuen kalea. Oraindik geratzen da euskara bigarren mailako hizkuntza dela uste duenik? Dagoeneko bada inor euskara lehenesten duenik? Euskaraz lan egiten duten lankideek zenbatetan itxaron behar dute prentsaurreko amaierara norbaitek hitz egin diezaien? Hogeita bost urte nahikoak dira, ala oraindik ez da nahikoa?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
 Goiena Komunikazio Taldea
 Kooperatiba Elkarte
 Otalora Lizentziaduna 31
 20500 ARRASATE

Lehendakaria
 Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
 Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
 Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
 Eneko Azkarate, Goitz Arana,
 Monika Belastegi, Mirari Altube,
 Larrait Zeberio.

Zuzendari komertziala
 Mireia Larrañaga.
Administratzaile zuzendaria
 Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
 Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
 Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
 Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
 Xabier Urzelai (Kirola),
 Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
 Imanol Soriano,
 Aitor Lagoma,
 Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
 Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
 Amaia Mundiñano.

Administrazioa
 Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
 Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 132 posta-kutxa
 Tel.: 943 25 05 05
 Telegram eta WhatsApp:
 688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
 Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Zergatik abiarazi dugu produktu horien aurkako kanpaina?

IGOR URIZAR MURGOITIO
ARRASATEKO BDZ-REN IZENEAN
ARRASATE

BDZ mugimendua sortu zenetik –BDS gazteleraz–, boikotatu beharreko milaka produktu atera dira mahai gainera, arrazoi batengatik edo beste batengatik erabakitakoa. Izan daiteke palestinar herriak zuzenki eskatutakoak edota mundu mailan, arrazoi desberdinengatik, BDS mugimenduek erabakitako produktu edota enpresak. Hori guztia esplikatzea da gure nahia, eta zergatik erabaki dugun gure herrian produktu horien aurka jotzea.

Mundu osoan jendea haserre gaude, hunkituta, eta, batzuetan, indargabe sentitzen gara. Jende askok beharrezko ikusten dugu Israelekin loturak amaitzea, eta horregatik sortu ditugu boikot-zerrenda zabalak. Baina nola egin eraginkor boikot kanpaina horiek? Boikot selektiboen kanpainarekin.

Estrategikoki, eragin handiena lortzeko, produktu konkretu batzuk hautatu behar dira. Horiek aukeratzeko orduan, lau puntu hartu behar dira kontuan: konplizitate maila, mugimendura jendea batzeko aukera, oihartzun mediatikoa eta garaipenerako aukerak.

Hori jakinik, BDZ mugimenduak lehentasun

handiena duten helburuak zehaztu ditu. Herriaren arabera eta errealitatearen arabera, bat edo beste aukeratzen da. Helburu horiek ere lau puntu nagusitan banatuta daude:

1-Kontsumitzaileentzako boikot helburuak: kontu handiz hautatutako markak dira, konpainiek edota produktuek Israelgo apartheidean duten konplizitate historiala egiaztatuta. Hor sartzen dira Carrefour, AXA, Puma, HP... baita jatorri eta ekoizpen israeldarra duten produktuak ere. Azken horiek dira guk aukeratutakoak.

2-Desinbertsio helburuak: gobernuai, erakundeei eta inbertsio-funtsei zuzendutako kanpainak. Hor, CAF, CAT, Volvo... dira helburu. EHN, CAF, Ikerlan, UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea...

3-Presioa helburu –ez boikota–: arrazoi estrategikoengatik ez da eskatu boikot zuzena. Hor sartzen dira Google, Amazon, Disney, Airbnb...

4-Boikot organikoaren helburuak: BDZ mugimenduak ez ditu boikot kanpaina horiek abiarazi, ez dira palestinar herriak eskatutakoak, baina bai herritarren inizatibaz sortutakoak. Garbi ikusten baita parte zuzena dutela genozidioan. Beste borroka mota bat eskatzen du horrek. Hor daude Burger King, McDonalds...

Guk erabaki bat hartu genuen, estrategia eta helburuak zeintzuk diren jakinik. Palestinarrek zuzenean eskatutakoa aintzat hartu dugu. Jatorri eta ekoizpen israeldarra duten produktuak dira aukeratutakoak.

Amaitzeko, argi utzi nahi dugu ez dela langileen aurkako borroka bat, ezta komertzioen aurkako ere. Eskatzen dugun gauza bakarra da palestinar genozidioa eta inguruko beste herrialde batzuetara hedatu den gatazka ez finantzatzea, eta, horretarako, produktuak kentzeko eskaera egiten dugu.

Kooperatibista ohi bat

KLARA ELKOROBARRUTIA ZABALO
ARRASATE

Laudorioak, ilusioak eta proiektu handiak adierazi ziren GOIENA aldizkarian, kooperatibismoari buruzko gehigarri berezian, hitza aipatzearekin bakarrik liluratuta. Baina nola azaldu hainbeste gogo, hainbeste jende bere aurrezpen guztiak galtzeko zoritxarrera eraman zuen tsunami batetik igaro ondoren? Uste duzue engaina gaitzakezuela eta oroimenetik hain erraz ezabatu? Nola dakizue zuek kontaketa berriak egiten, zuen erretolika guztia lokatzez betetako sakonuneraino eramaten duen zulo bat daukazuen bitartean?

Nola liteke ama batek –Fagor Etxetresnak– hainbeste urtean seme-alabei bularra eman

izana eta haren osasuna ahultzen denean inor ez joatea laguntzera?

Nola izan daiteke hainbesteko zabarkeria? Ba al dago hain eraikitzailea izan beharko lukeen proiektu bat gidatzeko jokabide edo gaitasun falta hori definitzen duen hitzik? Seguru baietz, baina ez kooperatibismoa.

Kooperatibismoak gutxieneko baldintza batzuk bete beharko lituzke kolektibitate harmoniaz eraikitzeko.

Zintzotasuna, ororen gainetik. Eta, kudeatzeko gaitasunaz gain, jakina, lidergo osasuntsua, bazkideen artean itxaropena eta enpatia sortzeko, gero desengainua ekarriko duen jarrerarik gabe.

Kolektibitatearen zati bati eragiten dioten arazoei aurre egiteko orduan, esandako guztia elkartasunean eta funtzionamendu demokratikoan laburbiltzen da.

Eta arrazoiaren batengatik oker bat egin denean, konpondu egin behar da, berriz ere haren bertuteak aldarrikatzen hasi baino lehen. Horrela egiten dira gauzak. Orduan, burua goian eta bihotza bere lekuan ibili daiteke, eta ez kooperatibista askok erretiroan gozatzeko itxaropenarekin beren kooperatiban jarritako aurrezkiekin gertatu zena ahaztuta.

Horregatik, hori gogorazten eta gurea itzultzeko eskatzen jarraituko dugu.

II. Herriaren Zaurgarritasun Plana

AITOR ITURRIAGA BAKARTE
ARRASATE

Goienaren *Harira* saioan Arrasateko alkateak parte hartuko zuela-eta, *Gobernu Plana* dokumentuan faltan igartzen nituen bi gai bidali nizkion.

Bigarrenak honela zioen: "Klima aldaketa dela eta, askotan aipatzen dira etorkizunean gerta daitezkeen muturreko fenomenoak: lehorte eta uholdeak, beroaldi eta hotzaldiak, haizeteak, suteak, lur-jausiak... Erakundeak hasita daude konpromiso aktiboak hartzen karbono-emisioak gutxitzeko. Baina herri gutxitan aztertu da non dituzten arrisku handienak –Tolosa aldean egin dira horrelako azterketak–. Arrasaten sumatu daitezke batzuk: erreka estuak, erortzen diren ezpondak, landaretza goi-tentsioko kableen azpian... Arrasatek arlo horretan duen zaurgarritasunaren plan baten premia ikusten dut".

Nire proposamenak ez zuen erantzun positiboa jaso.

Valentzian gertatu berri dena ikusita eta datorren urteko udal aurrekontuak aztertzen ibiliko zaretela aprobeztatuz, akaso, momentua da gaiari buelta bat eman eta aurrekontuetan tokitxo egiteko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI





Joseba Ezpeleta eta Mainer Morras, eguazteneko prentsaurrekoan, udaletxean. E.A.B.

48,3 milioi euroko aurrekontu proposamena

Mainer Morras alkateak eta Joseba Ezpeleta Ogasun zinegotziak aurkeztu dute "bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko eta emandako hitza betetzeko" helburua duen proposamena; ondo bidean, abenduaren 19ko ezohiko osoko bilkuran onartuko dute

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 48.303.380,11 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du Udal Gobernuak 2025erako, 2024koa baino %5,6 handiagoa -2,5 milioi euro gehiago-. Onartuz gero, batetik, auzoetako ekintzetarako partidak handituko lituzkete, "auzotarren arteko harremanetan sakondu eta komunitate sendoak egonkor-

tzeko". Honako hauek lirategi auzoetan egingo lituzketen inbertsio esanguratsuenak: Santa Teresako urbanizazio lanekin jarraitzeko, 2,9 milioi euro; Ferixalekuko bi igogailuak berritu eta mantentzeko, 292.000 euro; San Andresko gazte txokoa berritzeko, 168.500 euro; Santa Marinako biblioteca handitu eta berritzeko, 135.000 euro; eta

Musakolan estalki bat egiteko proiektua idazteko, 18.500 euro.

Hiru proiektu handi

2025ean hiru proiektu handi martxan jartzea aurreikusten du Gobernuak: Iturripeko kiroldegi berria; Amaia antzokiaren eraberritzea eta Grupo San Juango urbanizazioa. Proiektu horiek, hain zuzen, 13.000.000

euroko gerakinaren bitartez finantzatu gura ditu. "Hiru proiektuak idazten ari dira orain, eta horiek definitutakoan jakin-godu obra horietara bideratu beharreko kopuru zehatza", dio Ezpeletak. Halaber, "gerakinaren kudeaketa ona" azpimarratu du. "Hasieratik esan genuen gerakina ezin genuela erabili gastu arruntetarako. Horrek ahalbidetuko digu zorpetze maila ahalik eta txikiena izatea".

Herri Eskolarako, 465.000 euro

"Zerbitzu eta azpiegitura publikoak berritzeko apustua" egin nahi du Gobernuak, herritarrei "zerbitzu hobea eta pertsonalizatuagoa" emateko asmoarekin. Arlo horretan, honako hauek dira aurreikusitako inbertsio nagusiak: BAZeko bulegoak berritzeko, 500.000 euro; Herri Eskolan, Erguingo teilatua berritzeko, 365.000 euro, eta Bedoñabeko patioa berritzeko, 100.000 euro; kirol azpiegiturak hobetzeko, 150.000 euro; Santa Barbaran haur parke berria egiteko, 100.000 euro; Portaloiko eta Kontzezinoko ateak konpontzeko, 50.000 euro; eta Markuleteko labea konpontzeko, 40.000 euro.

Etxe Feminista, tren geltokian

Berdintasuna, justizia soziala, zaintza eta parte-hartzea dira laugarren ardatza osatzen duten arloak. Inbertsioei dagokienez, besteak beste, Zaintza Arloko Enplegu Bulegoa martxan jartzeko 20.000 euro bideratuko lituzke Udal Gobernuak; zahartzaro aktiboa sustatzeko dirulaguntzak %40 handituko lituzke, guztira 53.000 euro; Iturbide egoitzako egoiliarrentzat aurrealdea egokitzeko, 91.000 euro; osasun mentaltaren diagnostia egiteko, 18.150

euro; tren geltoki zaharrean egingo duten Etxe Feministaren proiektua idazteko, 30.000 euro; eta emakume sortzaileen jaialdia egiteko, 40.000 euro.

Argiteria, LED sistemara

Mugikortasun jasangarriaren lehen urratsak egin arren, "alde batera utzi ezin den" ekinbidea dela uste du Morrarak. Hala, "transizio energetiko eta ekologikoan sakontzeko", honako inbertsio hauek egingo lituzkete: argiteria publikoa LED sistemara pasatzeko, 500.000 euro; bidegorri sarea handitzeko, 350.000 euro; bizikletentzako aparkaleku berriak jartzeko, 100.000 euro; Etxezarreta parkea berreskuratzeke ekintzetarako, 125.000 euro; baso publikoen kudeaketa plana gauzatzeko, 18.000 euro; eta elikadura mahaia martxan jarri eta azoka berria diseinatzen hasteko, 10.000 euro.

Foru Funtsetik 19,6 milioi euro

Diru-sarreraren %40 udal tributuen bidez jasoko dituztela jakinarazi du Ezpeletak, eta %44, aldez, Foru Funtsetik -9,6 milioi euro, 2024an baino 500.000 euro gehiago-. "Tasa eta zerga guztiak zerbitzu duinetan itzultzen zaizkigu herritar guztiei, horiekin ordaintzen baitira Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak". Aurten, gainera, "bereizitasun" bezala, Jaurilaritzak 3.600.000 euroko dirulaguntza emango dio Udalari, Santa Teresako urbanizazioa egiteko.

ITURRIPE, AMAIA ANTZOKIA ETA GRUPO SAN JUAN IZANGO LIRATEKE 2025EKO PROIEKTU NAGUSIAK

Xaflak kendu dituzte Biterin

Asteburuko haize boladek Biteri plazako estalkiak "aspalditik duen erorketa arazoa areagotu" egin dutela dio Udal Gobernuak; izan ere, xafla batzuk erori dira estalkitik. Zauriturik eragin ez duten arren, aluminiozko xafla guztiak kendu dituzte, "segurtasunagatik". 2026an estalki berri bat jartzeko proiektua aztertu eta idaztea aurreikusten du Gobernuak.



E.A.B.

Bidegorri sarea "pixkanaka" osatzea gura du PSE-EEK

Arrasateko PSE-EEK hainbat alegazio aurkeztu dizkio Mugikortasun Jasangarriko Planari, "Zalduspeko geltokia eta bere ingurua hobetzeko helburuarekin". Horien baitan, bidegorri sarea "pixkanaka" osatzearen alde egin dute. "Irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetu nahi ditugu, baina herritarren egunerokoan eragin negatiborik

sortu gabe". Gipuzkoa etorbidean eta Otalora Lizentziaduna kalean zirkulazioan noranzko bikoitzari eustea ere proposatu dute. "Aldi berean, espaloiak zabaltzea ere gura dugu, oinezkoentzako pasabidea erraztuz eta ahalik eta aparkaleku gehien mantenduz". Inguru hartan aurreikusitako bidegorriari dagokionez, trazadura egun San Andresen dagoena izatea nahi dute. Azkenik, geltoki inguruan disuasio-ko aparkaleku bat sortzea proposatu dute.

Amiantoaren inbentarioa egiten hasi da Udala

Azterketa-lan horiek "herritarren osasun-prebentzio" lanen barruan kokatu ditu Udala Gobernuak: "Izan ere, amianto osasunarentzat oso kaltegarria da, minbizia eragiten duela frogatu baita". Lanek sei hilabete iraungo dutela aurreikusten du Gobernuak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Amiantoaren inbentarioa egiten hasi da Arrasateko Udala eta sei hilabetez ariko da lan horietan, aurreikuspenen arabera. Azterketa horrekin, amianto daukaten eraikinen mapa interaktibo bat egin nahi dute. "Hala, interbentzioak egin baino lehen, Udala jakitun izango da amiantoaren arriskuaz", azaldu dute udal ordezkariak.

Datu horiek, gainera, EAEko datu-base batean sartuko dituzte, errolda bateratu batean, erasandako eraikinak identifikatzeko. Halaber, azken txostenean, amiantoaren errolda osoa jasotzeaz gain, egutegi bati lotutako ekin-tza-plan bat ere jasoko dute.

Lehenik, eraikinen azterketa

Hainbat fase izango ditu inbentarioak. Lehenik, eraikinen azterketa historikoa egingo dute, udal artxiboan jasotako informazioa aztertuz, eraikinen inguruko proiektuak eta erabilera historikoak ezagutzeko.

Era berean, ortofotografia bidezko analisia ere egingo dute, "airetikoko analisia eraikinen gainazalean dauden materialak aztertzeko, amianto egon daitekeen identifikatzeko". Udala ordezkariak azaldu dutenez, teknika hori "oso baliagarria"



Uralita asko amiantoz egindakoak dira oraindik. c.c.

da industrialdeetako poligonoak aztertzeko orduan.

Legeak hala behartuta

Ur-hornidurako sarearen azterketa ere egingo dute lan horien baitan. "Izan ere, azpiegitura horiek lur azpian egonik, ez daude begi-bistan; beraz, azterketa berezia egingo da". Horretarako, herriko ur-hornidurako sarearen adina aztertuko dute, "amiantoaren mapari geruza bat gehitu ahal izateko, hornidura-hodiek amianto izateko duten arriskuarekin". Horrez gain,

instalazio horiek ikuskatzeko jarduketako protokolo bat ere egingo dutela dio Udala Gobernuak.

Azkenik, zuzeneko analisia egingo dute, aurretiaz jasotako informazioa egiaztatzeko. "Horretarako, landa-lana egingo dugu, eraikinen barrualdea eta materialak ikuskatuz eta laginak hartuz, amianto dagoen ebaluatzeko", zehaztu dute.

Nabarmenezkoa da 2022an onartutako lege batek udalerrriak behartzen dituela amianto duten eraikin eta kokaleku guztien errolda egitera.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Arduratik idazten dut

Urte batzuk pasa dira hezkuntzan lanean ari naizela, modu baten ez bada, bestean; musikan zein kirolean. Baina ardura da azken hilabete hauetan sentitu dudana; ardura eta, nolabait, kulpasentimendua. Irakasle bizitza, ordutegi zein opor aldetik, ona da, eta, noski, jakina da hori guztion artean. Baina hori al da dena irakaskuntza munduan sartzen garenean? Oporrak, jaiegunak, ordutegia... Ez dakit besteoi, baina niri barrenak mugitzen dizkit. Gure geroa haiek dira, gure etorkizuna guk heziko ditugun ikasle zein haurrak izango dira. Baina gehien larritzen nauena eta barrenean min ematen didana gure hizkuntzarekiko jarrera da. Jon Maiak badu abesti bat hau guztia ondo azaltzen duena: *Euskal Herria B.* Badelako beraiek eraiki nahi duten Euskal Herri bat, bertako Euskal Herrian murgildu eta bizikide izan ordez. Arazo guztien artean honek larritzen nau; nik haien dena errespetatzen dudalako, baina haiek gurea? Euskal Herrian bizitzeak berezitasun eta altxor preziatu batzuk dituelako, horiek zaindu eta goraiatu behar ditugulako eta guk hezitzaile bezala horren ardura dugulako.

Greba Feminista Orokorretik egindako lanketa, plazara

Arrasateko Bizitzak Erdigunean asanbladak urteurreneko egitaraua prestatu du biharko, zapatua. "Urtebete pasa den honetan, Arrasaten zein Hego Euskal Herriko beste hainbat txokotan, hilabete hauetako lana plazara eta zaintza sistema publiko komunitarioa aldarrikatzen jarraitu nahi dugu", diote. Hala, urtebetean egindako lanaren berri emango dute bihar, Seber Altuberen, 11:30etik 14:30era, *Zertan ibili gara urte honetan?* izenpean egingo duten solasaldian. Era berean, informazio gunea jarriko dute eta, horrez gain, zaintza sistema publiko komunitarioa aldarrikatzeko propaganda tailerra egingo dute.

OHARRAK

Mondraren denda

Astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara, Maalako Errebala kalean.

Mondravember

Bihar, zapatua, bibote onenaren saria banatuko dute, 12:30ean, Herriko Plazan. Gero, 13:00etan, argazkia aterako dute taldekideek, egitarauari amaiera emateko. Horrekin emango diote amaiera hilabete osoko egitarauari.

Portaloiko Elkarteak

Dantzaldia egingo dute gaur, egubakoitza, 18:30ean hasita, Kulturelako bigarren solairuan duten lokalean.

VITALDENT | 35^{URTEAK}

ZURE AHOA DENA DA

ARRASATE

Otalora Lizentziaduna kalea 1

943 06 03 22

9 Promozioak: 347/91474 347/91474. Irailaren 29an. Oinarriko erabiltzailearen zehazketak: 2024/10/15etik 2024/11/30era bitartean eskatu eta onartutako finantzaketarako ikasari: 2023/09/01etik aurrera formatutako diru, eta onartu behar da erantsita. Tratamendu adibidea: eskutu (PSD), 1.700 euro. Kontratazioa 2024ko urrian 30 hilabeteko epea, hilabe 48 kuota, 42,66 eurokoa. TIN: 5,74%. UTB: 58,23. Irteera-konposua: 5,2. 34 euro, kuotaren finantzazioa. Kredituaren kosta gutxira: 335,68 euro. Interesen zehaztasun gutxira: 305,68 euro. Kredituaren zehaztasun gutxira: 1.734 euro. Prestazio gutxira epeko eta zer den zehaztasun gutxira: 2.035,68 euro. Kontratazioa 2024ko azaroan epea, 48 hilabete, hilabe 44 kuota 42,66 eurokoa. TIN: 5,74%. UTB: 58,23. Irteera-konposua: 5,2. 34 euro, kuotaren finantzazioa. Kredituaren kosta gutxira: 329,20 euro. Interesen zehaztasun gutxira: 289,20 euro. Kredituaren zehaztasun gutxira: 1.734 euro. Prestazio gutxira epeko eta zer den zehaztasun gutxira: 2.035,20 euro. Gabealdan onartutako interesak amonuntziatze dagoen kapitalari erabiltzen izaniko. Kostak kalkulatzeko, Finantzaio amonuntziatze-sistema, erabiltzeko kuota eta kuota konstanteak erabili dira. IRPE 355/19

Zure osasunak ezin du itxaron

%20ko

DESKONTUA!

ZURE HORTZ-TRATAMENDUAN

Eta urtarilean hasi ordaintzen!

Astelehenean hasiko dituzte Altamirako lanak

Auzoa osorik urbanizatzeko lanak bost fasetan egingo dituzte, eta astelehenean lehen fasea hasiko dute. Horretarako, 1.730.465,85 euroko inbertsioa egingo du Udal Gobernuak, eta hamar hilabete beharko dituzte lanak egiteko, aurreikuspenen arabera

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Altamira auzo "atsegin eta irisgarriago" bilakatzea da Udal Gobernuaren helburua, eta, bide horretan, urbanizazio lanak hasiko dituzte astelehenean, abenduak 2. Hain zuzen, Jose Luis Iñarra kalea berrituko dute, Emakume Txokoaren ondoko igogailutik Santa Marina auzoa hasten deneraino.

Hiru zatitan egingo dituzte lan horiek: lehenik, goiko zatia berrituko dute, Obenerrekako bidegurutzetik hasi eta Mesedetako ikastetxe ondoan dagoen igogailuraino; gero, Emakume Txoko paretik Altamirazpiko bidegurutzeraino; azkenik, Al-



Izaro Agirre teknikaria eta Kepa Urteaga zinegotzia, Jose Luis Iñarra kalean. E.A.B.

tamirazpiko bidegurutzetik Mesedetako ikastetxerako zatian egingo dituzte lanak.

Lanen helburu nagusia herri-tarrei irisgarritasuna bermatzea izango dela dio Kepa Urteaga zinegotziak. "Jose Luis Iñarra kale osoko espaloiak zabalduko dira; hori lortzeko, hainbat lekutan bi espaloi egotetik bakarra izatera pasako da". Halaber, baterian aparkatu ordez, ilaraka aparkatuko da.

Hoditeriak ere berrituko dituzte Altamirazpi kalea hasten den bidegurutzea mailaz igoko dute, eta "koexistentzia eremu" bilakatuko da. "Modu horretan, lehenetsuna oinezkoek izango dute, eta autoen abiadura jaitea lortuko dugu", dio Izaro Agirre udal teknikariak.

Azkenik, hainbat berdegune eta zuhaitz jarriko dituzte, eta, era berean, lur azpian dauden azpiegiturak berritzeko aprobe-tzatuko dituzte lan horiek. "Hain zuzen, argiteria instalazioaren azpiegiturak eta euri-urak eta ur zikinak jasotzen dituzten hoditeriak berrituko dira", gaineratu du Agirrek.

Ereindajaneke saskia bete gura du, gero zozketatzeko

Ereindajan Herri Saskia izeneko kanpaina jarri du martxan Ereindajan Arrasatek. Saski hori, batetik, ekoizleen ekarpen boluntarioarekin osatuko dute, eta, bestetik, proiektuarekin bat egiten duen pertsona, erakunde zein talde orok gehituko dituen ekarpenekin –musika diskoak, bazkari-bonua, kamiseta, herriko komertzioetako produktuak...-. Honako bide hauetatik egin beharko dira ekarpenak: arrasate@ereindajan.eus-era idatziz, 943 08 04 65 telefono-zenbakira deituz edo dendan bertan (Araba hiribidea 3). Txartelak bi eurotan salduko dituzte.

Diotenez, herritik eta herriarentzako aritu dira lanean, Debagoieneko lehen sektorea sustatzeko, biziberritzeko eta indartzeko asmoz. "Produktuak ortutik etxeko plateretaraino iritsi daitezten lanean jarraitu nahi dugu, gu ere bagarelako herriko eragile; herritarrei elikadura osasuntsua eta burujabea eskaintzea da gure lehenetsua".

GBT24

FINALAURREKOAK

ARRASATE

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

 Abenduak 1, igandea, 17:00

 Uarkape Pilotalekua

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea:
 bertsozale

Laguntzailea:
 goiena

Babesleak:
 LABORAL KUTXA

 FAGOR



FORD TOURNEO COURIER BERRIA



Easo Motor

Ford Easo Motor-en

Azken 10 autoak

19.900 €*-tik aurrera

4 urterako mantentze-lanak barne**



 **630 63 63 60**

*Finantzaketa-baldintzak kontsultatu
**4 urterako mantentze-lanak barne
edo 60.000 kilometro egin arte

FORD EASO MOTOR MUGARRI

San Andres kalea 6 - 20500
Arrasate

Euskal dantzak 'ereiten' jarraituko dute zapatuan

Txikitxu-Arrostaitz dantza taldearen 55-35. urteurreneko beste ekintza bat egingo dute zapatuan. Antolatutako bederatzik ekintzetatik hirugarrena izango da, eta euskal dantzetan hasi berri direnentzat zein urteak daramatenentzat ikastaroa egingo dute

Julen Murua Mesonero ARRASATE Txikitxu-Arrostaitzen 55-35. urteurrenaren baitako hirugarren ekintza egingo dute asteburuan: *Ereiten*. Dantza ikastaro bat egingo dute, "adin tarte guztiei zuzendutakoa; herriko jendeari eta inguruko herrietakoei ere", dantza taldeko kide Maite Bilbaok adierazi duenez. Ikastaroa bi mailatan banatuko dute: alde batetik, hastapenean ari direnentzat egingo dute; eta, bestetik, maila aurreratuagokoa. "Hastapenean oinarriko pausoak eta plazako dantzak ikasiko dituzte; maila aurreratuan, berriz, santamasi bueltan egiten den txerri dantza ikasteko aukera egongo da", Bilbaok iragarri duenez. Ikastaroa azaroaren 30ean izango da, zapatuan, 10:30etik 12:30era bitartean, Kulturelako taldearen lokalean.

Kapituluka banatzen

Irailaren 21ean hasi zituzten 55-35. urteurreneko ekintzak, *Sutan* izenpean. Orduetik hona,

"kapitulutan" banatu dituzte ekitaldi guztiak, guztira bederatzik saio antolatuta. Hainbat izango dira egingo dituzten ekintzak; tartean, erakusketa bat, kaleko entsegu bat eda kantu bazkari bat, baina egutegian gorri markatu beharreko data 2025eko urriaren 18a da, orduan egingo baitute Txikitxu-Arrostaitzen 55-35. urteurreneko ekitaldi nagusia: *Lotzen*. "Uarkapen egingo da, 18:00etatik 20:00etara. Bertan elkartuko gara 55-35 urte hauetan dantza taldean ibili garen guztiok, beterranoenetatik hasi eta gaztetxoentara, eta bi orduko saioa egingo dugu. Dantzari ez gain, Arrasateko musikariak ere egongo dira Uarkape pilotalekuan, eta herritarrek

2025EKO URRIAREN 18AN EGINGO DUTE 55-35. URTEURRENEKO EKITALDI NAGUSIA, UARCAPE FRONTOIAN

animatu gura ditugu ekitaldira, saioaz goza dezaten".

Urteetan egindakoa erakusten

Zenbait hamarkadaz ibili dira Txikitxu-Arrostaitzeko kideak euskal dantzak erakusten, zabalzen eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa egiten, eta urte horietan egindako esfortzua erakustea bada ekimen horren helburuetako bat, Bilbaoren arabera: "Guztiok partekatzen dugu euskal dantzekiko pasioa, eta hori da Txikitxu-Arrostaitzen balioetako bat. Ekintza horien helburua da 55-35 urte hauetan izan ditugun konpromisoari, lanari eta esfortzuari balioa ematea eta herriak ikustea dantza taldeak egindako ibilbidea nolakoa izan den. Era berean, Txikitxu-Arrostaitzi bultzada emateko ere aprobeixatu nahi dugu, taldea oso osasuntsu dagoela iruditzen zaigun arren. Gainera, euskal dantzen bueltako folklorea sustatzeko ere elkartuko gara, besteak beste".



Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeko kideak, Herriko Plazan dantzan. GOIENA

'Marco' filma ikusi ahal izango da Amaia antzokian asteburuan

Zapatuan, domekan eta astelehenean egingo dituzte saioak; Aitor Arregi domekan egongo da antzokian

J.M.M. ARRASATE

Aitor Arregik eta Jon Garañok zuzendutako *Marco* pelikula ikusgai egongo da asteburuan Amaia antzokian. Veneziako 81. Zinemaldian estreinatu zuten filma, abuztuan, eta orduetik mundu mailako beste hainbat festibalean ere eman dute pelikula. Arregi bera Amaia antzokian egongo da domekako saioan, eta, hasieran egingo duen aurkezpen batez gain, saioaren amaieran galdera eta erantzunetarako tarte bat ere egongo da. Saio guztiak 19:30ean izango

dira eta sarrerak salgai daude arrasate.eus webgunean, 5 euroren truke zapatuan eta domekan eta 4 eurotan astelehenean.

Harrerarekin "pozik"

Pelikula estreinatu zenetik hiru hilabete igaro dira dagoeneko, eta Arregik dio "pozik" dagoela lanak izan duen harrerarekin: "Abuztuan Veneziako Zinemaldian egon ginen, eta, ostean, Donostiakoan. Leku batean zein bestean pelikula bultzatu egin dela uste dut, eta pozik gaude izaten ari den harrerarekin".



GOIENA

'Bareback', hilabetez ikusgai

Harriak Bira 2024 ekimenaren barruan egindako *Bareback* erakusketa ikusgai dago dagoeneko Kulturako Klaustroan. Arantza Elejabeitiaren, Xara Aguirreren eta Idoia Leacheren lan artistikoak astelehenean zatura bisita daitezke, 17:30etik 20:00etara. Inaugurazio-ekitaldia azaroaren 22an egin zuten eta hilabetez egongo da erakusketa bisitatzeko aukera.

Uarkapen bilatuko dute bertsolariek finalerako txartela

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoa jokatuko da Uarkapen domekan, 17:00etan. Debagoieneko ordezkariak egongo da finalaurrekoan; izan ere, Maider Arregi oñatiarrak kantatuko du frontoian. Arrasateko saioaren ostean, erabakita geratuko da zein izango den aurtengo finala jokatuko duen zortzikotea.

'Azken portuko postdatak' aurkeztuko dute Kulturaten

John Anduezak Asel Luzarragarekin batera idatzi duen *Azken portuko postdatak* liburua aurkeztuko dute abenduaren 4an Kulturaten, 19:00etan, Goienako kazetari Aitziber Aranburuzabalak gidatuta. Aurkezpenean egongo da liburua erosteko aukera -Goienakideek eta AEDko bazkideek %40 merkeago erosi ahalko dute-.



Untzillako A-3920 errepidearen zati bat, atzean auzoko eliza ikusten dela. AMAIA TXINTXURRETA

Adif-en 3,7 milioi euro errepideak konpontzeko

AHTaren obrek kaltetutako errepideak konponduko ditu Adifek Aramaion. Lanak hiru eremutan egingo dira: Untzillan, A-3920 eta A-4021 errepideak; Zabolan, A-4021 errepidea; eta A-3920 errepidean, 32/360 eta 32/720 kilometro-puntuen artean

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Adif Alta Velocidad enpresak lizitatu du Aramaio errepideak konpontzeko eta egokitzeko obren kontratua. Abiadura handiko linearen Gasteiz-Bilbo-Donostia-Frantziako muga ibilbidea eraikitze obren eraginpean dauden errepideak konponduko ditu, zehazki.

Aramaio alkate Asier Agirrek adierazi du bazela orduan lan horiek egiteko: "Ordua zen. 2009an jausi zen errepidea eta orduan Adifek konpromisoa hartu zuen egokituko zuela alternatibaren erabilpena bide hura, baina zati batzuk egin gabe gelditu ziren. Bilera eta hitzarmen askoren ondorioz, lortu da aurrekontua martxan jartzea, eta espero dugu hementik lauzpabost hilabete ingurura obra horiek hastea". Eta hau gaineratu du: "Errepidea itxita egon zenean, Aramaio Arrasaterako tartean, Zabolatik eta Untzillatik desbideratu zen trafiko guztia. Auzo-tarteak kon-

pondu ziren, baina auzo-guneak gelditu ziren gelditu ziren moduan. Adifek konponduko zituela adierazi zuen, eta bi auzo horiek konponduko dituzte, hitzartuta dituzten zatietan".

Lanak, hiru eremutan

Hiru eremu egokitu eta hobetzeko obrak hartzen ditu kontratu horrek: Untzillan, A-3920 eta A-4021 errepideak; Zabolan, A-4021 errepidea; eta A-3920 errepidean, 32/360 eta 32/720 kilometro-puntuen artean.

Untzillan, zehazki, A-3920 errepidearen elkargunea egokitu eta hobetuko dute. Horren gainean, 230 metroko tarte batean jardungo da, A-4021 errepidearekin, gaur egun dauden lotuneetako

2009AN KONPONDU GABE GELDITU ZIREN AUZO-GUNEETAN EGINGO DITUZTE KONPONKETA-LANAK

bat kenduta eta ikuspen handiagoa emanda.

Era berean, A-4021 errepidea zabaldu egingo da bidegurutzetik, 200 bat metroko luzeran. 5 metroko galtzada bat eraikiko da, zoru berriarekin, drainatze-obrekin eta dagozkien kanalizazioekin.

Zabolan, A-4021 errepideko jarduna 6 metroko zabalera galtzada bat eraikitzean gauzatu da, eta edukiontzien inguruko eremua egokituko da.

Azkenik, A-3920 foru-errepidearen 32/360 eta 32/720 kilometro-puntuen arteko zatia egokitzeko eta hobetzeko lanak egingo dituzte. Egungo plataforma zabaldu egingo dute, errepidearen ertza errespetatuz, azpitik doan Aramaio errekastora lurra ez isurtzeko. Gainera, sestra igo egingo dute Aramaio ibaiaren bidegurutzean.

Kontratua 3,7 milioi eurotik gorako zenbatekoan lizitatu da eta 12 hilabeteko epean egin beharko dute.

Harrera beroa egin diote Sabin Salaberriren dokumentalari

Aramaioarraren bizi-ibilbidea jaso duen 'Ametsak' ikus-entzunezkoa proiektatu dute kultura etxean asteon

A.T.G. ARAMAIO

Dokumental "oso hunkigarria" dela adierazi dute hainbat herritarrek, Sabin Salaberri musikari eta konpositoreari buruzko *Ametsak* lana ikusi ostean.

Irailen aurkeztu zuten, Gasteizen, eta, orduetik, Arabako hamabost herritan aurkeztu dute. Eguaztenean izan zen Aramaion proiektzioa, eta ostean, mahai-ingurua egin zuten Enrike Ruiz de Gorbeak -dokumentalaren gidolaria-, Eloy Gonzalez Gavilanek -zuzendaria- eta Jose Mari Velez Mendizabalek -Urrezko Zeledonon

presidentea eta Aramaio Seme Kuttuna-.

Velez de Mendizabalek adierazi du, proiektzioaren aurretik, gainera, *NO-DO* deritzon albistei moduko bat ere izan zela, orain artean sekula ikusi ez diren edo gogoratzen ez dituzten Salaberriren irudiekin osatutakoa, eta herritarrei "biziki gustatu" zitzaizela herrian egindako aurkezpena. Bertan izan ziren batez ere Salaberriren lagunak, eta haren jaioterrian aurkeztu ostean, beste herri batzuetan erakusten jarraituko dute.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Euskararen Eguneko lasterketa egingo dute etzi, domeka

Abenduaren 1ean, domekan, egingo dute Euskararen Eguneko urteroko lasterketa. 11:00etan irekiko dute izen-ematea, Bizente Goikoetxea plazan, eta handik abiatuko da lasterketa, 12:00etan. Urtero moduan, ibilbidea hiru etapatan banatuta egingo da,

denak plazatik abiatuta: lehenengo ibilbidea izango da laburra, 270 metrokoa; bigarrena ia kilometrokoa izango da, herria gurutzatuta; azken ibilbidea izango da luzeena, 1,6 kilometrokoa. Gainera, azkenengo ibilbideari bi buelta emateko aukera egingo da, 3,2 kilometro luzatu arte.

Lasterketaren amaieran, luntxa egingo da plazan bertan.



ALAIK JUBILATUEN ELKARTEA

Jubilatuak Donostian izan dira

Alaiak Jubilatuen Elkarteak antolatuta, hainbat lagunek Donostiara egin dute irteera. Bisita gidatua egin zuten Miramar jauregian hasi eta Konstituzio plazan amaituta. Ondoren, bazkaltzera Basque Culinary Centerrean joan ziren eta eraikinaren bisita gidatua ere egin zuten; sukaldean ere izan ziren, hura bisitatzeko beharrezko batak jantzita.

Organoari bizirik eusteko, ezinbesteko kontzertua

Mariatxen Urkia sopranoak eta Jose Luis Frantzesena organo-joleak emanaldia egingo dute domekan Andre Mariaren Zeruratze parrokiari; Aita Donostiaren eta Edith Piafen abestiak abestuko dituzte, besteak beste, baita Gabon kanta batzuk ere

Mirari Altube ARETXABALETA

Gipuzkoako Organoen Zikloaren baitan urtero antolatzen duten kontzertua bueltan da. Mariatxen Urkia soprano aretxabaletarrak eta Jose Luis Frantzesena organo-jole azpeitiarrak emanaldia egingo dute domekan, abenduaren 19an, Aretxabaletako parrokiari, 19:00etan.

Pantaila aldarean

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen ditu organo emanaldiak, eta horretarako laguntzak eman: "Organoak bizirik mantentzeko apustua egin du. Izan ere, erabiliz gero afinatu egiten dira, eta konpondu apurtutakoak", azaldu du Urkiak. Hain zuzen, joan den astean egin zizkieten mantentze-lanak Aretxabaletakoari, parrokiari eskatuta, horretan aditua den Azpeitiko enpresa batek, eta domekarako gertu dago.

Organoaren alboan abestuko du Urkiak; hau da, koruan. Baina elizan eserita daudenek entzun bakarrik ez, ikusi ere egingo dute, Udalarri esker, aldarean jarritako pantailan. "Ni kantuan ikusiko naute, baita organoa zelan jotzen den ere: pedalak, teklatuak... Entzuleek gusturago jarraitzen dute emanaldia horrela".

Aita Donostia eta Edith Piaf

"Erraz entzuteko" kontzertua izango dela aurreratu du Urkiak; abesti batzuk organoak bakarrik joko ditu eta beste batzuk aho-tsarekin lagundutakoak izango dira: "Badu klasiko ukitutxo bat, baina edonork entzuteko moduko da eta abesti gehienak ezagunak izango dira". Horien artean, Puerto Ricoko William Gomez konpositorearen *Ave Maria* abestuko dute: "*Ave Maria* hori, gaixo zegoela idatzi zuen, eta estreinatu aurreko egunean hil egin zen". Horrez gain, Aita Donostiaren *Oñazez*

obra eta Edith Piaf frantsesaren hiru abesti ezagunen nahasketa bat ere abestuko ditu, besteak beste.

Organoari dagokionez, Handelen lan bat joko du, eta beste bat Mozartena; baita Dvorak konpositorearen *Sinfonia del nuevo mundo* eta Belliniren aria bat ere. "Eta bukatzeko, opari moduan, Gabonetako hiru bat abesti abestuko ditugu".

Prince organoa

Aretxabaletako organoa Prince sinadura duen "munduko baka-

rra" da. Cavaille-Coll organo egile frantses famatuaren ikaslea izan zen Fernand Prince: "Azkoitiko, Loiolako eta Donostiako Santa Mariako organoak dira Cavaille-Collek eginak, maila handikoak. Princek harendako egiten zuen lan eta hark oniritzia emandakoan maisuaren izenean sinatzen zituen organoak. Aretxabaletakoa izan ezik. Organo txikia da, baina soinu ezaugarriak dagokienez altxor txiki bat da, diotenez. Hortaz, garrantzitsua da erabiltzea, mantentze-lanak egiteko eta bizirik eusteko".



Mariatxen Urkia eta Jose Luis Frantzesena. GUKA AZKOITIA

Gabonetakoa, abenduaren 29an

Aretxabaleta Abesbatzak abenduaren 29an egingo du Gabonetako ohiko kontzertua. Buru-belarri dabilta hori gertatzen, aurtengoa "berezia" izan dadin gura dutelako.

Gabon sasoiko abesti ezagunak izango dira protagonista, ohi legez, baina horien artean hiru sekula ez dituztela abestu onartu du Urkiak: "Hirurak dira lan potenteak. Horietako bat da *Cavalleria rusticana* obraren zati bat, abesbatzak solistarekin abesten duena. 2020 hasieran hasi ginen prestatzen, baina pandemiarekin bertan behera utzi genuen proiektua, eta orain, berriro heldu diogu horri". Instrumenturen bat edo beste ere sartuko dute emanaldian, eta sorpresaren bat egongo dela ere iragarri du: "Beste ukitutxo bat emateko".



Irati Lete hainbat umeri bazkaltzen laguntzen. KURTZEBARRI ESKOLA

Irati Leteri lanpostua sortu diote Kurtzebarri eskolako jangelan

Urtebeteko praktikaldia egin du han, Pauso Berriak egitasmoari esker, eta orain, hiru urterako geratuko da

M.A. ARETXABALETA

Aztegi eta Gureak erakundeek 2010ean sortutako Pauso Berriak egitasmoaren baitan, Irati Lete Castro ikasle ohiak praktikaldia egin du Kurtzebarri eskolan azken urtean. "Esperientzia polita eta aberasgarria izan da; elkarrekin gozatu eta elkarrengandik asko ikasi baitugu", adierazi dute eskolako kideek.

Desgaitasun intelektuala duten pertsonak lan munduan murgiltzen laguntzen du Pauso Berriak egitasmoak, eta, praktikaldiaren ostean, Leterendako lanpostua sortzea erabaki dute.

Hainbat onura izango dituela uste dute: "Egitasmoak berak eta Iratiren ezaugarriak dituen lan-kide bat izateak gure hezkuntza proiektua aberastuko du eta pertsonalki ere era positiboan eragingo du". Praktikaldiak hori erakutsi duela adierazi dute: "Ezberdintasunak berdintasun bihurtuz, ezberdinak berdinek garelako ikusiz, elkarrengandik makina bat gauza ikas dezakegula jabetuz". Hiru urterako lanpostua izango da, hasiera batean, baina etorkizunean ere Leterekin bidea egiten jarraitu gura dutela diote eskolakoek.



UDA BOLA-TALDEA

UDA, bigarrena Euskal Herrikoan

34. Euskal Herriko hiru txirlo bola-txapelketari bukaera eman zioten zapatuan, Markina-Xemeinen, eta UDA bigarren sailkatu zen taldeen artean. Horretaz gain, Isana Gorosabel eskoriatzarra lehenengo emakumea izan zen. Sailkapen nagusiko txapela, oster, Asola Berri klubeko Ganix Rodriguezek jantzi zuen.

Etxean aurkeztuko dute 'Prosopagnosia', bihar

Pertsonen aurpegiak gogoratzeko ezintasuna gai hartuta, Ekain Martinez de Lizarduyk zuzendu duen eta Kepa Errasti eta Itziar Ituño protagonista dituen film laburra estreinatuko dute, Arkupen; bi emanaldi izango dira eta sarrerak agortuta daude

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Pertsonen aurpegiak gogoratzeko ezintasuna da prosopagnosia, eta, hori gai hartuta, Ekain Martinez de Lizarduy Stürtzek (Donostia, 1980) izen bereko film laburra ekoiztu du. Bihar, zapatua, Arkupeko Zeraia aretoan aurkeztuko du, eta ikusmin handia sortu du estreinaldiak, bi emanaldietarako sarrerak agortu egin direlako.

Itziar Ituño eta Kepa Errasti ditu protagonista filmak, punta-puntan dabilzan bi aktore. Eta biek ala biek baietza eman zioten proposamena jaso orduko: "Baietza eman bakarrik ez, lagundu ere bai. Erabaki potoloak hartu beharra izan dut eta izugarri ikasi dut eurengandik. Biziki eskertuta nago", dio Martinez de Lizarduyk.

Aretxabaletan bertan grabatu zuten, bi egunean, eta ekoizpenarako dirua finantzaketa kolektibo bidez eskuratu zuen: "Dirulaguntzarik izan ezean beste bide batzuk topatu behar dira, eta pozik nago, jendearen babesari esker aurrera egin dudalako".

Jaialdietara bidean

Dagoeneko hainbat jaialditara aurkeztu du filma: "Ekoizpen txukuna dela esan didate, eta merezi duela lehiaketetara bidaltzea; hala animatu nintzen. Eta horietako bostetan hautatu zuten lehiaketan parte hartzeko. Saririk ez du irabazi, baina pozgarria da milaka film laburren artean aukeratua izatea".

Zuzendari lanetan ez du eskarmentu handirik, baina badaki sariak irabaztea zer den. 2018an ekoiztu zuen irrintziaren gaineko *Erraiak* dokumentalak 30 saritik gora jaso ditu dagoeneko. "Dokumentalaren ostean etorri da fikzioa, eta, formatuak ezberdinak izan arren, badute lotura bat: biak doaz gure emozioak mugitzera".



Itziar Ituño, film laburraren une batean. ZINEBILERA



EKAIN MARTINEZ DE LIZARDUY ZUZENDARIA

"Uste dut guztiok dugula prosopagnosia apur bat"

"Gaitz hori zuen lankide bat izan arte ez nuen horren berririk. Hori kontatu zidan egunean, aspaldian neure buruan nituen ideia batzuek forma hartu zuten. Irudipena dut ez ote dugun guztiok prosopagnosia apur bat. Bizitza honetan unerik batean gelditu egin behar dugula uste dut, eta begiratu nor garen. Jendeare ere horixe proposatu nahi diot, geratu eta zintzoa izan dadila bere buruarekin. Filmaren aurkezpenarekin ez nago urduri; mundua zelan ikusten dudana erakutsiko dut".



KEPA ERRASTI AKTOREA

"Bultzada bat eman behar zaio ausardia duenari"

"Nik oso paper txikia daukat, baina proposatu zidanean inolako zalantza barik eman nion baietza, iruditzen zaidalako halako proiektu bat aurrera eramateko ausardia, ilusioa, gogoia eta kemena duen jendeare bultzada bat eman behar zaiola; gainera, herrikoa eta ezaguna izanda, are gehiago. Oso erraza izan da Ekainekin lan egitea, beti maitasunetik eta zaintzatik jardun duelako; eta hori lanbide honetan eskertzen da izugarri. Ikusleei esango nieke burua zabalik joan daitezela".

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Abian da euskararen "egoera kezkaigarria" iraultzeko lanketa

Diagnostikoaren zirriborroa osatuta dago, eta herritarrekin kontrastatuko dute abenduaren 3an

M.A. ARETXABALETAKO

Euskara indarberritzeko eta euskaldunak ahalduntzeko AROA plana garatzen hasi da Aretxabaletako Udala. Euskararen egoeraren diagnostikoaren zirriborroa osatu du, honako hiru bide hauek erabilita: aurretik egindako ikerketa eta plangintzak aztertuta; eta herritarrek betetako galdetegiak eta hainbat eragileri egindako elkarrizketak jasota.

Orain, diagnostiko hori herritarrekin landu nahi du, bi helbururekin: diagnostikoa kontrastatu eta osatu, eta datozen urteetarako erronka estrategikoak identifikatu. Abenduaren 3an izango da lan-saio hori, 18:00etatik 20:00etara, Arkupen. Udalak parte hartzeko gonbidapena egin du: "Guztion artean egoeraren irakurketa kritikoa

egiteko eta euskarak dituen ahulguneak, indarguneak eta erronkak identifikatzeko".

Ospakizunak

Bestetik, Euskararen Eguna ospatzeko dei egin dute euskalgintzako kideek, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte; Loramendik, esaterako, abenduaren 5ean ospatuko du. Txalapartariak eta bertsolariak lagun hartuta, jai giroa sortuko du udaletxe zaharrean, 18:00etan, eta txokolatea hartuta bukatuko dute.

Ixotu euskara taldeak, oster, *Euskaraz eragiten* egitaraua antolatu du, eta mahai-ingurua izango da gaur, 18:00etan, udaletxe zaharrean. Udalak antolatutako Ana Goitia kazetariaren bakarriketa saioa, oster, abenduaren 27ra atzeratu dute.

Txokolatea banatuko dute Aretxartekoek gaur, Herriko Plazan

Merkatarien elkarteak *Txoko Friday* izeneko ekimena antolatu du. Katilu bat txokolate edatera gonbidatuko ditu bezeroak, bizkotxo pare batekin; horretarako, Aretxarteko dendaren baten 20 euroko gastua egin dela erakusten duen txartela –edo hainbat txartel, batura 20 euro izanik– aurkeztu beharko da. Plazan banatuko dute, 18:00etan hasita.

Aretxarte eta Miguel Igartua omenduko ditu UDAk domekan

Aretxarte Eguna ospatuko du UDAk domekan, futbol zelaian, *Atxabaltan bizi erosi* leloarekin. Familia-argazkia aterako dute partiduaren aurretik, 16:15ean, eta bonuak zozketatuko dituzte.

Era berean, oraintsu hil den Miguel Igartua Barrutia izango dute gogoan, minutu bateko isilunea eginda. Elkarteko presidente izan zen 1965 eta 1967 artean.

Margolanak egitera gonbidatu ditu herritarrek Debateak

Autismoaren inguruko kontzientzia eragiteko margolanak egingo dituzte Iralabarri plazan bihar, zapatua, Debagoieneko Debatea elkarteak antolatuta. *Artismoa* izena jarri dioten ekitaldira herritarrek gonbidatu dituzte haiekin batera marraztera eta margotzera; bereziki, haurrak. 11:00etatik 14:00ak bitartean jardungo dute horretan.

Zabalik dago oraindik autodefentsa saiorako izen ematea

Abenduaren 28an eta 29an egingo dute autodefentsa feminista ikastaroa, Jabetze Eskolak antolatuta. Esther Lopezek gidatuta, norberaren buruarekiko konfiantza landuko dute, eta erasoei aurre egiteko oinarriko teknikak irakatsi. Izena emateko epea zabalik dago; helbide honetara idatzi behar da: berdintasuna@aretxabaleta.eus.



Eskoriatzako EH Bilduk antolatutako saioan izan zirenak, kultura etxean. JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU

Komunitatearekin elkarbanatu eta eraiki

Agintaldiaren gidaritzza hartu zutenetik gaur arte egindakoak "ondo" baloratu zituzten EH Bilduko ordezkariak, eta aurrera begirako erronkak izan zituzten berba. Zalantzak argitzeko tartea ere hartu zuten, eta ekarpenak jaso zituzten

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eskoriatzako EH Bilduk ia urte eta erdi darama Udal Gobernuaren gidaritzapean, eta orain arte egindako lanaren balantzearen eta egoeraren berri eman du. Hala, Eskoriatzako EH Bilduko zenbait ordezkari kultura etxean elkartu ziren, zapatu goizean, orain arte egindakoaren balantzea egin eta aurrera begira asmoen berri emateko.

Egindakoaren erradiografia

Xabier Uriarte zinegotzi eta EH Bilduko bozeramaileak orain arteko lanaren balorazio ona egin zuen bertan batutakoaren aurrean: "Orain arte, hainbat lan egin behar izan ditugu, ez direnak oso ikusgarriak izan, baina egin behar zirenak, eta horien guztien berri eman nahi diogu gure komunitateari. Izan ere, Udaleko lanaren egunerokotik irten eta herritarrekin zuzeneko harremana sustatzea ezinbestekoa da. Aurrera begira ere jarri gara, askotariko erronkak ditugu eta". Eguneroko-

kotasuneko lanei garrantzia kendu barik, proiektu esanguratsuak ere izan zituzten berba, eta berritutako lizitazioez hitz egin zuten, hondakinen tasaren igoraren gainean, eta Udaleko lanpostuen deskribapena eta berrantolaketa ere azaldu zuten; kasu horretan, Udaleko lanpostuen organigrama eguneratu dutela adierazi zuten, eta lanpostu bakoitzari balorazioa egin diotela nabarmendu, langile bakoitzaren eginbeharrak eguneratzeko. Horrekin batera, proiektu handiak ere izan zituzten hizpide.

Geotermia proiektua

Esku artean dituzten proiektuez berba egiteko tartea ere hartu zuten bertan batutakoek. Manuel

ALOR ASKOTARIKO AZTERKETAK EGITEA GARRANTZITSUA DELA AZALDU ZUTEN KULTURA ETXEAN

Muñoz kiroldegiko lanak, esaterako, edo Geotermia proiektuaren gainean. Uriartek balioa eman zion Geotermia proiektuarekin energia aurrezteko egin duten lanari: "Geotermia sistema ezarri da Luis Ezeizan eta kiroldegian, eta espero dugu bi eraikin horietan energia aurreztu izanaren emaitzak gure helburuetara iristea".

Diagnostikoaren indarra

Euskararen, berdintasunaren eta etxebizitzaren azterketak ere egin dituztela azaldu zuten. "Etxebizitzena, esate baterako, herritarrengandik irtenda". Herriko gazteek etxebizitzara eskuratzeko eta emantzipatzeko dituzten oztopoak ezagutzeko inkesta bat egin da, eta prozesua martxan da. Beste hainbat alorretako diagnostikoak ere abiatu dituztela azaldu zuen Uriartek, eta laster helduko dela ordua diagnostiko horien emaitzak jaso eta lan-ildo berriak zehazteko.

Katxiporretakoen 'Ostirala iritsi da!' ikuskizun berria gaur

Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian izango da pailazoan antzerki-ikuskizuna, 18:00etan hasita

I.B. ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, izango da Porrotx, Marimotots eta gainerako sudurgorrien ikuskizun berria, 18:00etan, Manuel Muñoz kiroldegian.

2023ko azaroan argitaratutako *Txapasen kaxa magikoa* ipuin eta disko ilustratuetan dago oinarrituta saioa. Josu Txapartegi (Zarautz, 1946) -*Txapas* ezizenez ezaguna- euskal akordeoilari, idazle, abesbatzako zuzendari, organo-jole eta sortzaileak bere bizitzan hamaika abesti sortuak dauzka, eta, abes-

ti horien artean, *Ostirala iritsi da* da Txapasek sortutako kanturik ezagunena, ostiralero ikastetxe askotako jolastokietan entzun daitekeena. Horregatik, Katxiporreta kooperatibakoek aitortza egin nahi diote Txapasi eta, hark bezala, egunerokotasunean haien balioak eta bizipenak maitasunez eta ilusioz partekatzen dituzten hezitzaile guztiei. *Ostirala iritsi da!* saioan, Txapasen eta Imanol Urbietaren kantuek presentzia berezia izango dute, baita jolasek, naturak eta bestelako sorpresek ere.

Hamar bikote arituko dira Joseba Iñurrategi frontoian musean

LEINNeKo ikasleek antolatuta, zapatu honetan mus txapelketa jokatuko da, 16:00etan hasita. Joseba Iñurrategi frontoian batuko dira parte-hartzaileak, 15:30ean, eta zortzi erregetara, lau jokotara eta 40 tantotara jokatuko dituzte partiduak. Guztira, hamar bikote arituko dira txapelketan; amaitutakoan, hiru sari nagusi banatuko dituzte.

Futsal campusean parte hartzeko izen-ematea zabaldu dute

Urtarrilaren 2tik 4ra bitartean egingo da areto futbol campusa, Manuel Muñoz kiroldegian. 2009tik 2016ra -biak barne- jaiotako neska-mutilei zuzendutakoa izango da, eta interesdunek abenduaren 9a aurretik eman behar dute izena. Horretarako, *whatsapp* mezu bat bidali behar da zenbaki hauetako batera: 688 64 98 99 edo 615 73 36 45.



RAFA CARRIET

Hamaika palet bete produktu

Tanta hotzak Valentzian eragindako kalteak direla-eta, elikagai-bilketa jarri zuen abian Atama Eskoriatza kenpo taldeak. Elikagaien gain, garbiketa- eta higiene-produktuak batu dituzte, eta, guztira, hamaika palet produktu bete dituzte. Antolatzaileen esanetan, dagoeneko elikagaien bankura bidalita dituzte batu zituzten produktuak.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Euskara ardatz, kultura izango da nagusi karpan

Zapatuan ospatuko dute Euskararen Eguna, eta egun osoko programazioa prestatu dute. Ekintzak Fernando Eskoriatza plazan izango dira, baina, biharkoetz gain, izango dira bestelako hitzorduak: euskarazko jostailuen erakusketa, ipuin aurkezpena...

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Abenduaren 3an da Euskararen Eguna, eta, egunean bertan, herritar talde batek egindako ipuin-liburua aurkeztuko dute, aurretik, azaroaren 30erako, hain zuzen, egun osoko egitaraua osatu dute, herritarrak batu eta jai giroan eguna ospatzeko.

Egun osoko egitaraua

13:00etan, Eskoriatzako Hankamotx bertso eskolako haurrek emango diote hasiera egunari. Aritz Irigoien da Hankamotx bertso eskolako irakaslea, eta aurten ere martxan daudela adierazi du: "Haurren talde bakarra dugu, eta bosgarren mailako zazpi ikaslek osatzen dute taldea. Astean behin kultura etxean elkartzen gara, eta, ikasurte honetan Gaba Baltzean egin genuen moduan, Euskararen Egunean ere igoko dira oholtzara gaztetxoak, bertsoak zein koplak eskaintzera".

Ondoren, Tio Teronen Semeak taldeak eskainitako *Haurreskolari* ikuskizuna izango da, eta 15:00etan, kantu bazkaria. Fernando Eskoriatza plazako karpan egingo dituzte ekitaldiak, eta bazkalostea Leire eta Dorleta eskoriatzarrek girotuko dute;



Leire eta Dorleta, joan den zapatuan, kontzejupean. I. BELOKI

aurtengo ZeDemontre topaketako irabazleek, hain zuzen ere. Musikarekin jarraituko du egunak; izan ere, **20:00etan**, Hamarratz oñatiarrekin erromeria izango da, eta 22:00etan, berriz, Gasteizko Pineapple Sweets DJek girotuko dute Inkernu taberna.

Jostailuen erakusketa

Zapatuko ekintzez gain, euskarazko jostailuen erakusketa egingo dute abenduaren 2an eta 3an, 17:00etaik 19:00etara bitartean, kultura etxean. 2 urtetik aurrerakoendako jos-

tailuak eta mahai-jolasak izango dira bertan, eta, jostailuak ikusteaz batera, horiek probatzeko aukera egongo da.

Ipuin aurkezpena

Horrekin batera, *Eskoriatzako eta Gatzagako betiko ipuiñek* liburua aurkeztuko dute abenduaren 3an, 19:00etan, Ibarraundi museoan. Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako hainbat kon-daira, istorio eta pasadizo biltzen ditu liburua, eta elkarlanean argitaratu berri dute zenbait herritarrek.

"Laugarren urtez antolatu dugu ekimena. Ibarraundi museoan hasi ginen egiten, eta Fernando Eskoriatzako plazako karpan egiten dugun bigarren aldia izango da. Eskoriatzarren zein inguruetakoa herrietako lanak izango dira bertan ikusgai. Euren lanak ezagutzeko aukera emango digu egitasmoak, eta Gabonetarako oparixoren bat egiteko ekimen aproposa dela esango nuke", azaldu du Arantxa Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

Zero kilometroko azoka, bertakoen produktuak ikusteko

Bertako artisauek 18 postu jarriko dituzte, eta izango da zer ikusi domekan, Fernando Eskoriatza plazako karpan

I.B. ESKORIATZA

Liburuak, xaboiak eta artilea, jokoak, kandela argizaridunak, egurrezko lanak, buztinez egindako lanak, belarritakoak... jarriko dituzte salgai Eskoriatzako eta bailarako hainbat he-

rritako artisauek domekan egingo den zero kilometroko azokan (11:00-14:30). Guztira, hemezortzi postu izango dira, eta egitasmoaren helburua da artisten lanak kalera atera eta ezagutzera eramatea.



Desfibriladorea Garro jauregiaren atarian. I. BELOKI

Desfibriladorea erabiltzen ikasteko saioa izango da bihar

Zapatuan helduentzat saioa izango da, erabilera askotariko aretoan; eta haurrentzat, abenduaren 8an

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Gatzagako Udalak kanpo-desfibriladore automatizatu bat jarri du jendaurrean, eta 365 egunetan eta 24 orduz dago erabilgarri. Garro jauregiaren atarian jarri dute bihotz-biriketako suspertzea egiteko gailua, eta, herritarrek erabiltzen ikas dezaten, prestakuntza-saio bat izango da, erabilera askotariko aretoan, desfibriladorea modu eraginkorrean eta behar denean berme guztiekin erabili ahal izateko. Saioak helduentzat eta haurrentzat izango dira: bata, zapatu honetan, eta bestea, abenduaren 8an.

Herritar guztiei irekita

"Ez izan zalantzarik, eman ize-na, pertsona guztiak gara baliagarriak eta laguntzeko gai. Helburua prebentzioa da", azaldu du desfibriladorearen erabilpenaren gaineko ikastaroa emango duen Eneka Zankadak. Gaineratu duenez, gutxi gorabehera, bi ordu iraungo du saioak eta doakoa izango da. Zapatu honetako saioa helduei zuzendutakoa da, 10:30ean hasita, eta abenduaren 8koa, 14 urtetik beherako haurrei zuzendutakoa, berriz, 17:30ean; biak, erabilera askotariko aretoan.



GATZAGAKO GATZ MUSEOA

Ereñotzutik bisitan

Joan den zapatuan, Ereñotzu (Hernani) herriko talde baten bisita izan zuten Leintz Gatzagako Gatz Museoan. Olak Auzo Elkarteko kideak ziren bertaratutakoak, eta Gatz Museoako jardueraren jatorria, gatz lortzeko modua, gaur egungo produkzioa eta bestelakoak ezagutzeko aukera izan zuten.

Gipuzkoako armariaren sinbologia aztergai

Patxi Olabarria antzuolarrak 'Gipuzkoako armaria, gure historiaren ispilu' lana ondu du, eta "armaria arakatzuz gure herriaren historia" deskubritu: kanoiena ez ezik, erregearen eta zuhaitzen ikurrak ikertu ditu, horien jatorriaz ondorioak atera nahian

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Nazio bat kontakizun bat dela dio Iñigo Larramendik, Nabarralde Fundazioko zuzendariak: "Hainbat osagai ditu, hala nola hizkuntza, ohiturak eta ikurrak, baina oharkabean daude horietako asko; normaltzat jotzen dira. Askotan, ordea, ziri bat dute: horien ezagutza beharrezkoa da, historiaz jakiteko eta gure berri izateko". Bada, horri tiraka ondu du Patxi Olabarriak *Gipuzkoako armaria, gure historiaren ispilu* lana.

Martitzenean aurkeztu zuen liburua, Oларanen: *Antzuolako Armariaren Alardea* lana idatzi ondotik iritsi zitzaion Gipuzkoakoari eusteko proposamena, Nabarralderen eskutik.

Iruñeko Erresumaren eratetik hasi –duela 1.200 urte– eta mendez mendeko bidea izan du hizpide; armariaren ibilbidea xehatu du. Haren esanetan, Gipuzkoako lurraldearen ermandadea sortu zen 1397an, eta erabiltzen zuten zigiluetako batean errege bat ezpata batekin ez ezik, hiru zuhaitz ageri ziren itsaso gainean: Enrique IV.a erregeak urte batzuetara eman zuen *Nobilis ac fidelis provinciae guipuzcoae* erabiltzeko baimena, baina Olabarriak dio "gipuzkoarrek" ez zutela erabili, "berandu arte". Kanoiei dagokienez, 1512an ezarri zizkion Juana I.ak, eta erregea, zuhaitza eta kanoiak zituen armaria sortu zuen.

Eremuen esanahia

XVI. mendean, heraldika jakintza arloa sortu zen, eta esanahia eman zieten armarriko irudiei: "Kanoiena bazuten, baina, beste irudiak zer diren azaltzen duen dokumenturik ezean, epikotasuna erabili zuten". Hala, Olabarriak adierazi duenez, batetik, azaldu zuten "erregeak nafarren eta aragoiarren arteko bataila" adierazten zuela –XVII. mendean



Patxi Olabarria antzuolarra, aurkeztu berri duen liburuarekin, Oларanen. A.R.K.

Armarriaren aldaketarako proposamena

Olabarriak dio herri baten sinboloak "berrikusi" egin behar direla, Gipuzkoako armaria kasu: "Kantoi bakarrek armaria, Nafarroaren kolorea den zoru gorrian, itsasaldeko Nafarroa irudikatzen duen itsasoaren ondoan hiru zuhaitz dituena. Zuhaitzen izena zehaztu gabe: haritzak, haginak, ezkiak, arteak, zumarrak, sagarrondoak edo bakoitza ondoen identifikatzen dena, euskaldunok gure erabakiak hartzeko zuhaitzaren azpian elkartzeko baikin; eta zuhaitzak, berriz, hiru, Nafarroako Erresumaren baitan, itsasora irteera zuten hiru tenentzian banatuta zegoelako orain Gipuzkoa deitzen den lurralde hau".

hasi ziren esaten Alfontso VIII.a zela, eta egun bertsiio ofiziala da Henrike IV.a dela-; eta zuhaitzekin, bestetik, euskaldunen eta erromatarren arteko gudua irudikatzen dela, euskaldunek euren buruaz beste egin zutela hagin pozoitsuekin erromatarren eskuetan jausi aurretik.

Ordutik hona, aldaketak izan ditu armariak. Gipuzkoako Batzar Nagusien eskariz, 1985ean kendu ziren kanoiak eta erregea; halere, ez zuten *Fidelissima bardulia nunquam superata* esaldia kendu, eta koroa gehitu zioten gainaldean.

Ateratako ondorioak

Olabarriak ondorio batzuk atera ditu armariak izandako ikurrak gogoan, "hori frogatzeko hainbat adibide" txertatuta: "Batetik, aipatzen dut ageri zen erregea nafarra zela –liburuan aipatzen denez, Eneko Aritza-; eta, bestetik, zuhaitzak ageri direla euskaldunok arbolak azpian elkartuta hartzen genituelako erabakiak; are gehiago, hiru dira, oraingo Gipuzkoa hiru eremutan zegoelako banatuta, hiru elizbarritutan, hiru tenentzian eta hiru euskalkitan".

Udalak landa lurzoruko lursailak mugatuko ditu topografikoki

Geograma enpresak egingo du lanaren lehen zatia, eta martitzenean izango dute batzarra lursailen jabeekin

A.R.K. ANTZUOLA

Udalak bultzatuta, eta "jabeen edo haien oinordekoen landa-ondasunen inguruko ezagutza faltak eta ezjakintasunak mugak nahastea edo besterik gabe desagertzea" ez dezan eragin, landa-lurzoruko lursailak topografikoki mugatzeari ekingo dio Geograma enpresak. Horretarako, udalerriko lehen poligonoan –bost daude guztira– hasiko dituzte lanak; alegia, Juan Kruz Lizarralde Udaleko Ingurumen zinegotziaren hitzetan, Galartza eta Uzarraga auzoetatik, osorik, eta Lizarraga auzoaren zati batetik –hiru poligonoren artean dago banatuta–, Bergarako mugetaraino. Hala, helburua da "mugetan egon daitezkeen akats posibleak argitu eta zuzentzea, eta mugei eta mugarriei GPS koordinatuak ematea".

Udalak emandako informazioaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdea Sailaren dirulaguntza baliatu dute lan horiek egiteko, eta 481 hektareako azalera duten 359 lursail baino gehiago mugatuko dituzte lehenengo fase honetan. "Proiektu horretan Uda-

lak daukan erronka oso garrantzitsua da, handia baita landa-lurrraren hedadura. Hori dela eta, gainerako poligonoak hurrengo urteetan egingo dira".

Jabeen parte-hartzea

Lan horiek "behar bezala" egiteko, alabaina, Udalak nabarmendu du ezin duela berak bakarrik jardun, lursailen jabe diren 103 herritar baino gehiagoren kolaborazioa ezinbestekoa dela azpimarratuta. Haren hitzetan, jabe horien ardura da auzokideekin lursailen mugak adostea ez ezik, topatzea eta garbitzea, hala ezean ezin daitezkeelako egin neurketa topografikoak. Parte-hartzea, gainera, borondatezkoa da, eta ez du gastu ekonomikorik eragingo parte-hartzaileengan.

Jabe horien guztien lankidetzaz, horrenbestez, beharrekotzat jotzen du Udalak, eta horretarako bi batzar egingo dituzte abenduaren 3an, datorren martitzenean, Oларango beheko aretoan, 11:00etan eta 18:00etan. Udalaren hitzetan, orduan azalduko dituzte proiektuaren xehetasunak, guztien intereseko proiektua dela iritzita.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Euskara "bizirik eta indartsu" mantentzeko, egitarau "berezia"

Aurpegi-margotzea, 'Kneecap' filmaren emanaldia eta 'Feminismoa eta euskara' hitzaldia antolatuko ditu Udalak

A.R.K. ANTZUOLA

Martitzenean ospatuko da Euskararen Eguna, eta egitarau "berezia" prestatu du Udalak, haren hitzetan, "euskara, gure hizkuntza eta ondarea, bizirik eta indartsu mantentzeko guztion ahalegina" behar delako.

Domekan, esaterako, aurpegiak margotzeaz gain, pankartak egingo dituzte Zurrategin, 12:30ean hasita; 18:00etan, berriz, *Kneecap* filmaren emanaldia izango da Torresoroan. Aben-

duaren 3an, Euskararen Egunean, musika izango da Herriko Plazan, eta lelo lehiaketako irabazlearen berri emango dute.

Hitzaldia eguaztenean

Abenduaren 4an, *Feminismoa eta euskara* hitzaldia izango da Oларanen, 18:30ean. Hain zuzen, Idurre Eskisabel Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia eta Lorea Agirre *Jakin* aldizkari zuzendaria izango dira hizlariak.



EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2024



Appa Hi! aplikazioaren pantaila bat.

Erne, hi!

Bergarako hika, 'Appa Hi!' aplikazioan laster

Martxan da 'Hika.ahotsak.eus'

Oñatin euskara elkarte berria: Aixotu

Gozaldia, Euskaraldia iragartzeko jaia

Euskara aktibatzaileen gidaliburua

Euskararen erabileraren ustezko feminizazioa

Euskararen Nazioarteko Eguneko hitzorduak



“LANA ere Euskararen alde”



Euskara: askok hautatu duten bide berria

Askotariko istorio eta arrazoiak dituzte Bellak, Gordillok, Martinezek eta Lamadridak. Baina guztiek daukate zerbait komunean: ez dute etxetik euskara jaso; umetan ez dute erabili; gerora egin dute ikasteko hautua

ANDREA BELLA
BERGARA

"Argi daukat hona etorri naizela euskaraz bizitzera"

Uruguaiakoa da Andrea Bella; 2008an hasi zen euskara ikasten, eta duela urtebetetik bizi da Bergaran. Ibilbide horren ondoren, Euskaraldiko dinamizatzailea da, gainera, gaur egun. Arrazoi nagusi bat izan du Euskal Herrira etortzeko: "Sentitzen dut euskara bultzatu nahi dudala".

Uruguaiako euskal etxe batean hasi zen, 18 urte zituela, euskal dantzen eskolak hartzen, eta orduan sortu zitzaion euskara ikasteko aukera. Haren ahizpa hasi zen lehenengo, eta geroago hura, 2008an, Eusko Jaur-laritzak kudeatutako HABE programan lehenengo eta Etxepare Institutuak kudeatutako ikastaroetan gero. "Oso esperientzia polita izan zen. Internet bidez ikasten genuen, Maizpide euskaltegiko irakasle batekin, Jon Urdangarinek. Gero, Dani Oiarbide ere izan zen gure irakaslea. Barnetegiak ere izaten genituen: udan bi astez eta neguan astebetetz", azaldu du Bellak.

Korrikan parte hartzeko zapaldu zuen Euskal Herria lehen aldiz, 2011. urtean. "Euskaltegiko bi irakasle etorri ziren Uruguaira, eta Korrikan parte hartzeko proposamena egin ziguten. Nik orduan ez nekien Korrika zer zen ere. Orduantxe azaldu zidaten, eta, azkenean, etorri nintzen Euskal Herrira Korrikan parte hartzera".

Marraztea ere gustuko du Bellak, eta arlo hori ere euskararekin lotu du. Izan ere, pandemia garaian, Jagi Hadi Mundura taldea sortu zuten munduan zehar



GOIENA

bizi ziren euskaldunek, eta taldearen lehenengo urteurrena ospatzeko liburu bat kaleratu zuten, euskarazko hainbat hitzen esanahia azalduta. Bellak egin zituen liburuko ilustrazioak, taldeko beste kide batekin batera.

Instagram bidez erakusten ditu obrak; horiek ere, euskaraz. "Uruguain inor gutxik ulertzen du Instagramen jartzen dudana, baina, hala ere, nik euskaraz izan nahi dut. Batzuei, horrela, kuriositatea pizten zaie euskarari buruz", azaldu du.

Aurten etorri da Euskal Herrira bizitzera, eta Euskaraldiko dinamizatzaile lana du orain. "Argi daukat hona etorri naizela euskaraz bizitzera. Ez gaztelaniaz, eta ez uruguaiaraz. Euskaraz".

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

ABENDUAREN 3AN, MARTITZENA, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN

BABESLEA:

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



TOÑI GORDILLO
ESKORIATZA

"Asko balio izan dit, jendearekin harremanak egin eta kulturaz gozatzeko"

Duela hamarkada batzuk hasi zen Toñi Gordillo euskara ikasten; 22 urterekin. Etxean ez zuten euskaraz hitz egiten, baina hark hartu zuen euskaltegira joaten hasteko erabakia. Batez ere, "kultura eta hizkuntza" ulertzeko beharrak bultzatuta eman zuen pausoa: "Hemengoa izan naiz bertidanik, eta bertako kultura eta hizkuntza ulertzea garrantzitsua iruditzen zitzaidan". Lau urtez egon zen euskaltegian, eta orduz geroztik praktikatzen jarraitu du mintzamenari dagokionez: "Bi alaba dauzkat, eta txikiak zirenean saiatzen nintzen haiekin dena euskaraz egiten. Lan-kideak ere euskaldunak dira, eta haiekin ere batzuetan euskaraz egiten dut". GOIENA irakurtzen du astero, irakurmena lantzeko.

"Gaur egun, noizean behin egiten dut euskaraz, baina garrantzitsuena euskaraz egiten dutenak ulertzea da; hori nahi nuen". Duela urte batzuk hartutako erabakiarekin "oso gustura" dagoela adierazi du: "Ikaragarria da; izan ere, asko balio izan dit, jendearekin harremanak egin eta kulturaz gozatzeko".




TOÑI GORDILLO

RAMON MARTINEZ
ARRASATE

"Motibazioa eman dit euskarak; zerbait inportantea da niretzako"

Duela bi urte hasi zen euskara ikasten Ramon Martinez, erretiroa hartzearekin batera. Arrasatearra da, baina gazteleraz bizi izan da: "Nire anaiak eta koinatak bai, euskaraz hitz egiten dute, baina nirekin erdaraz egin dute beti. Oñatin egin izan dut lan, eta lanean euskaraz egiten zuten, baina nirekin erdaraz. Mundua erdaraz bizi izan dut".

Erretiroa hartutakoan, denbora libre asko zuela eta, erabaki zuen momentu egokia zela euskara ikasteko. Haren kabuz ikasi du gehiena, eta duela bi hilabete hasi da mintzalagun dinamikara joaten, ahozkotatuta hobetzeko: "Nire kabuz hasi nintzen; ez nintzen euskaltegira joaten. Etxean, irratia entzuten nuen, Whatsapp euskaraz erabiltzen hasi nintzen, eta euskaraz asko irakurtzen. Gauza bakarra falta zitzaidan: hitz egitea. Horregatik hasi nintzen mintzapraktikan". Egunero baliatzen ditu ordu batzuk euskara ikasteko, irratia entzunez edo irakurtzen: "Motibazioa eman dit euskarak; zerbait inportantea da niretzako, eta burua lantzen laguntzen dit".




GOIENA

JESUS ANGEL LAMADRID 'KETXU'
ARETXABAETA

"Nire seme-alabekin komunikatzeko hasi nintzen euskara ikasten"

Lanean proposatu zioten lantokian antolatutako euskara ikastaroetara joatea Jesus Angel Lamadrid *Ketxu*-ri, duela sei urte. Ikastaro haietan hasi zen, astean bi bider, ordu eta erdiko eskoletan. "Konturatu nintzen niretzako gutxi zela, gehiago behar nuela. Horregatik apuntatu nintzen euskaltegira". Duela sei urte hasi nintzen ikasten. Lanean hasi nintzen, ikastaro batean. Astean bi bider joaten nintzen, ordu eta erdiz, baina oso gutxi zen niretzako, eta, horren ostean, euskaltegian hasi nintzen. Pandemiaren ostean hasi zen mintzalagun dinamikarekin. "Ostiraletan taberna batean elkartzeko gara, eta ordubetez euskaraz hitz egiten dugu". Azaldu du "zaila" egiten zaiola, baina "poliki-poliki" aurrera doala. Argi dauka zergatik eman duen pausoa: "Nire seme-alaben ama-hizkuntza euskara da, baita nire emaztearena ere. Batzuetan, ez nien ulertzen, eta hori oso gogorra zen niretzat. Emazteari galdetu behar izaten nion zertaz ari ziren. Nire seme-alabekin komunikatzeko hasi nintzen euskara ikasten".



JESUS ANGEL LAMADRID

Zer, nor eta non ginateke euskara barik?

UEMA OÑATI Euskaraz bizi gara

OÑATI dabillen herria

AZK

Komunikazio estrategikoarekin indartu zure marka EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

azk.eus

'Appa Hi!' eta 'Hika. ahotsak.eus' aurkeztuko dituzte Durangoko Azokan

Hitanoak jarraitzen du izaten euskara elkarten berbagaietako bat. Haren erabilera bultzatzeko hainbat ekimen egin dira, eta horietako bi Durangoko Azokan aurkeztuko dituzte Badihardu elkarteok; Euskal Herriko I. Hikadromoa ere egingo da bertan

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Urteetan zehar egin dira Debagoienean eta, oro har, Euskal Herrian, hitanoa biziberritzeko ekintzak. Badihardugu euskara elkarte ari da, buru-belarri, hitanoaren egoera aztertze lanean, eta, bertako kide Idoia Etxeberria oñatiarrak dioenez, "herri batzuetako egoera beste batzuetakoa baino hobea izan arren, egoera, oro har, ez da ona". Debagoienaren kasuan, "Antzuola eta Oñati" dira, Etxeberriak dioenez, hitanoa gehien

erabiltzen diren udalerrriak, baina, esan bezala, "egoera ez da ona". Hala ere, hitanoa biziberritzeko lan horretan, "Debagoieneko herri guztietan egin dira ekintzak", eta hori "positibotzat" jotzen du Etxeberriak.

Ekimenak martxan

Hikaren erabilerrari dagokionez egiteko asko egon arren, Etxeberriak dio badagoela gai honen bueltako "mugimendua"; hika ikasteko eta haren erabilera sustatzeko egiten diren ekimenak,

alegia. Herri batzuetan beste batzuetan baino gehiago nabari da mugimendu hori, baina, oro har, oñatiarrak dio egiten direla "hikaren erabilerrari sustatzeko ekintzak". Etxeberria bera "herri ekimenetik sortu zen Oñatiko Ingo Xonau! taldeko koordinatzailea" da, zeinetan hasiera batetik egin zuten diagnostiko bat jakiteko "zenbat emakume dauden hika egiten dakitenak, badelako oso eremu intimoko hizkera mota bat". Horrez gain, gainontzeko he-



Oñatin egin zen hika topaketa. GOIENA

rrietan ere egiten dituzte ekintzak, eta ikusten da "badagoela gaiari buruzko sentsibilitatea".

Durangon aurkezpenak

Hitanoa biziberritzeko helburuarekin sortu zuten, 2021. ur-

tean, *Appa Hi!* aplikazioa Badihardugu euskara elkarte kideek, CodeSyntax-en laguntzarekin, eta gaur egun bailarako zenbait herritako hitanoa landu daiteke bertan, Euskal Herriko beste herri batzuetakoaz



Hezkuntzaren
hizkuntza, euskara,
sortzen hamaika
aukera!

euskararen
eguna
2024

berritzailekoa eraldatu gure
industriaren harremana gure
gisa merkatu nazioartean
dugun merkatu enpresa produktua
jartzera urteotan enpresaren horregatik
esperientziari enpresaren garapenean
izatera guztia argia diogu jardura
merkatuarekin argia diogu jardura
espezializazio ditugu jardura
pertsonentzat gorako
bati negozio-estrategia igaro
urteikikuspegi integratzen gaitasun
izateko sarrailagintza kontzeptu
hemendik zabala



SARRILAGINTZAREN INDUSTRIA
1963tik

gain: "Oñatiko hitanoarekin hasi ginen aplikazioa garatzen, 2021. urtean, eta, geroago, Arrasateko, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako hika lantzeko aukera ere sartu genuen aplikazioan. Datorren urtera begira, Bergarako bertsoia gehitzeko asmoa dugu".

Etxeberrriak adierazi duenez, aplikazioarekin batera, Badihardugu elkarte ari da hitanoa lantzen euren proiektu nagusia den *Ahotsak.eus*-en barruan: "*Ahotsak.eus* proiektuan 20 urte daramatzagu adineko jendea elkarriketatzen, eta horietan, modu naturalean jaso izan dugu hika. 2019. urtetik, berariaz hika lantzeko lanak egiten ari gara, eta orain, *Ahotsak.eus*-en hikari buruz dauden pasarteak *Hika. ahotsak.eus* atarira eraman ditugu. Beraz, hikari buruzko pasarteak, argitalpenak eta ikus-entzunezkoak agertzen dira, Euskal Herri osokoak". Badiharduguk euren bi proiektuak aurkeztuko ditu Durangoko Azokan, abenduaren 6an, 19:20an, Kabian gunean, eta Etxeberrriak aitortu du eurentzat garrantzitsua dela Euskal Herriko txoko ezberdi-

netara hedatzea: "Euskalkiak aldatu egiten dira herriz herri, eta, hortaz, hikako formak ere bai. Izan daitezke antzerakoak, baina bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta, horregatik, guretzat ere oso garrantzitsua da ahalik eta herri gehienetan egotea hika ikasteko aukera".

I. Hikadromoa

Aurtengo Durangoko Azokan, Euskal Herriko lehenengo Hikadromoa egingo dute hika bul-tzatzen ari diren kide batzuek, Landako ikastetxean, abenduaren 7an, 16:00etatik 19:00etara bitartean.

Iaz egin zen aurrenekoz, Oñatin, Euskal Herriko Hika Topaketa, eta, Etxeberrriak dioenez, topaketa hura oinarri hartuta egingo dute lehenengo Hikadromoa: "Oñatin egin zen topaketa hartan elkartu ginen hika bul-

DATORREN URTERAKO, BERGARAKO HITANOAREN BERTSIOA GEHITU NAHI DUTE 'APPA HI!'-N

tzatzen ari garen 80 eragile inguru, Euskal Herri osokoak. Ikusi genuen sekulako beharra zegoela elkar ezagutzeko eta indarrak batzeko, une hartan oso bananduta geundelako geografikoki, eta bakoitzak lurraldeko punta batean eragiten zuelako". Ekimen horren bueltan lanean ari zirenak gutxi ez zirela ikusita, eta elkarrekin zerbait egiteko asmoz, aurten sortu da hika eragileen talde bat: Sirhika. Talde hori Badihardugu elkartetik koordinatzen dute, eta bertan sortu zen Euskal Herriko I. Hikadromoa sortzeko ideia: "Helburua da hikazaleak elkartzea, erakustea hitanoa bizirik dagoela eta ondo pasatzea. Mintzodromoaren antzeko zerbait izango da: mahai baten inguruan launaka jarri eta, hamabost minutuz, gai baten inguruan berba egitea izango da kontua, denbora jakin batean behin mahaiz aldatuta". Etxeberrriak adierazi du guztiei egindako deialdi bat dela, eta gonbidapena egiteko aprobetxatu gura izan du: "Animatu gura ditugu hikazale guztiak; ondo dakitenak bai, baina ikasi gura dutenak ere bai".

"Hitanoaren eta nokaren gaineko estereotipoak hautsi nahi ditugu"

IDOIA ETXEBERRIA BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEKO KIDEA

Hitanoa biziberritzearen barruan nabarmena da tokaren eta nokaren erabilerearen artean dagoen ezberdintasuna.

Hitanoa berreskuratzea bai, baina barruan ere badago mamia.

Hitanoa berriro ere erabiltzen hastea da helburua, baina, horren barruan, nokaren erabilera, nolabait esanda, berpiztea ere gura dugu.

Generoak badu zerikusirik gai horretan?

Bai, genero arrazoiengatik ikusten da noka askoz gehiago galdu dela toka baino. Ez da herri batean gertatzen, orokorra da. Momentu jakin batean, hitanoa lotu zen baserritarra izatearekin, hizkera baldarrarekin edo ez-jasoarekin, eta batzuek euren seme-alabei ez zioten hizkera hori transmititu.



IDOIA ETXEBERRIA

Emakumeen kasuan oso argia izan da.

Estereotipoak haustea da helburua?

Azkenengo urteetan ez denez nokarik erabiltzen, neska gazteek pentsatu dezakete hitanoa ez dela euren erabili dezaketen hizkera mota, mutilen kontu bat dela. Egon daiteke pentsamendu hori, mutilak ibiltzen direlako hika hitz egiten eta neskak, normalean, ez. Horri haustea gura dugu, hitanoa biziberritzeko, baina, bereziki, noka berreskuratzeke.

EUSKARAZ BIZI, EUSKARAZ SENTITU, EUSKARAZ MAITATU.



ANTZUOLAKO UDALA

www.antzuola.eus



INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55

Ulma Taldearen Euskara Planak 20 urte bete ditu

Kooperatiba bakoitzak bere euskara plana du, eta talde mailan ere euskara batzordea dute. Urtez urte egiten ari diren lanaren ondorioz, euskarak geroz eta pisu handiagoa lortu du enpresan, eta abenduaren 3an ospakizuna egingo dute Arantzazun

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Aurten 20 urte bete dira Ulmak bere lehen Euskara Plana mar txan jarri zuenetik. Egun, kooperatiba bakoitzak bere euskara plana du eta talde mailan ere euskara batzordea dute. Bertan, negozio bakoitzeko kooperatibetako ordezkariak hartzen dute parte. Batzorde horrek garatzen eta koordinatzen du Ulma Talde mailako Euskara Plana, Emun aholkularitzaren laguntzarekin.

Diote horrela lortzen dutela "euskararen erabilera eta presentzia modu koordinatuan bultzatzea" Ulma Taldean.

Taldekoek adierazi dute, gainera, egindako lanaren eta hiz-



Ulmako euskara batzorde baten bilera. ULMA

kuntzaren egoeran "eragin zuzena" izan dutela azken bi hamarkadetan izan diren "egoera sozioekonomiko, zailtasun zein urte onek" ere. Hasierako urteetan kooperatibista euskaldun eta euskaltzaleen militantzia ezinbestekoa izan zen. Ondoren etorri zen euskararen inguruko lanketa erakundetzea; gestio planetan euskara helburuak sartzeari, hizkuntza irizpideak zehaztu eta negozioetara pasatzea eta euskara planetako arduradunak euskara batzordeetako kide eta lehendakaria izatetik pertsonen arduradunak izatera pasatzea. Haien guztien "esfortzu eta inurri lana" azpimarratu nahi izan dute.

Hainbat datu bilakaeraz

2008an, euskaraz ulertzen zutenak %84 ziren Ulman; 2023an, aldiz, %95ek ulertzen zuten. Ahozko erabilerrari dagokionez, berriz, 2008an %52koa zen, eta, iaz 10 puntu gehiagokoa -%62koa-. Batzar nagusien eta bilera informatiboetako euskararen erabilera ere neurtzen da urtez urte. 2004an, batzar informatiboan %4 soilik egiten zituzten

euskaraz, eta aurten, bilera horien %40 egin dituzte euskaraz. Batzar nagusiei dagokienez, berriz, duela 20 urte, hitz egiten zenaren %7 egiten zuten euskaraz; eta aurtengoetan %76 egin dituzte euskaraz.

Gainera, aurten Ulma Taldeak Bai Euskarari saria jaso du alor sozioekonomikoa euskalduntzean eta euskara sustatzeko egindako lanagatik.

Ospakizun eguna

Egindako bidea ospatzeko eta Euskararen Eguna aprobetxatuz, Ulma Taldeak ekitaldia antolatu du abenduaren 3rako, Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Azken 20 urteetan Ulman euskarari bere lekua emateko egin denaz, lortu denaz, bidean gelditu denaz eta datoren 20 urteetan egin nahi eta behar denaz hitz egiteko eta hausnartzeko tartea izango dute bertan. Ulma Taldeko lehendakari Ibon Calvok hauxe adierazi du: "Oñatiko kultura eta izateko era euskararekin bat doaz. Ulma eta Oñati ezin dira banandu, ezta Ulma, Oñati eta euskara ere".

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Guk ere euskaraz!!

Gu ere euskararen alde!

Ab

ARRASATE BERRIA
HILETA ZERBITZUAK

San Andres auzoa.
Tel.: 943 79 22 19

AOT

ARETXABALETAKO
TANATORIOA

Basabe 6, behea.
Tel.: 943 79 22 19

WWW.FUNERARIAARRASATE.COM • TANATORIOA@GMAIL.COM

BABESTUTAKO EDUKIA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



LH Duala Euskaraz egitasmoaren aitortza ekitaldian sarituak izan ziren enpresetako hainbat ordezkari. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

'LH Duala Euskaraz', eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko tresna

Foru Aldundiak babestutako programak langile kualifikatuak euskaraz prestatzen ditu, gazteak lan-merkatuan sartzeko bidea errazten du, enpresen eta ikastetxeen arteko harremanak estutzen ditu eta lan merkatuak behar dituen beharrei aurre egiteko informazio bikaina lortzen du. Gero eta enpresa gehiago batzen dabilta ekimenera

EAEko erakunde publiko nagusien babesarekin, LH Dualak ikasketak konbinatzen ditu enpresetan eta ikastetxeetan, batzuen eta besteen arteko lankidetzaren bitartez eta euskara erdigunean jarrita. Izan ere, ikasleek enpresan egongo duten formakuntzak lotura estua izan behar du heziketa-zikloko lanbide profilarrekin eta programatutakoarekin. Horrenbestez, enpresan egindako lan horiek, produkzio-emaitza ez ezik, ikasketak bera ahalbidetu behar dute, bai eta, azken finean, zenbait gaitasun eskuratzea ere: lanari dagozkion gaitasunak, lanbide-arloari dagozkionak eta enplegagarritasuna hobetzeko bestelako gaitasun erabilgarri batzuk.

LH Duala euskaraz hiru modalitatetan egin daiteke, ikaslearen premia eta ezaugarrien arabera: lehen mailako LH Dual Orokorrean, bigarren mailako LH Dual

Orokorrean eta LH Dual Intentsiboan –ikus *lhdualeuskaraz.eus* atarian–.

Hizkuntza paisaiaren garrantzia

Programa horren parte izateko ezinbestekoa da ikaslearen in-
struktorea euskalduna izatea eta bien arteko arteko harremana euskaraz izatea. Ikasleak lantokian harrera egiten dioten unean igarri behar du enpresako hizkuntza-politika. Euskaraz lan egiteko, lagungarria da hizkuntza-paisaia zaintzea; hau da, enpresako errotulu, informazio, dokumentu edota aplikazio in-

**ABANTAILEN ARTEAN,
LH DUALEKO LANTEGI
PARTAIDEEN
LEHIAKORTASUNA
AREAGOTU EGITEN DA**

formatikoak euskaraz izatea. Lantaldeak ere pisu handia dauka aspektu horretan; hizkuntza-paisaiaren parte da.

Ikasle kualifikatuak

LH Duala euskaraz eginda, ikasleak eleaniztasunean prestatzen dira eta lantokien lehiakortasuna areagotu egiten da. Ikasleek benetako lan-egoeretan ikasten dute eta lan-esperientzia handia lortzen dute. Gainera, enplegagarritasuna areagotzen zaie; ikasleek %70ek lortzen dute kontratua.

Bestetik, baliokidetzatitutuluak lor ditzakete: goi mailako ikasketen %50 euskaraz eginda, B2 baliokidetzatitutuluak; eta erdi mailako ikasketen %50 euskaraz eginda, B1 baliokidetzatitutuluak. Gainera, hizkuntza teknikoaren ezagutza lortzen dute, eta ikaslearen komunikazio gaitasuna hobetu egiten da, lan-munduratzeko prestatuago egonda.

Enpresetzako arrakasta

Lantegientzat ere asko dira LH Dualean parte hartzearen abantailak: batetik, pertsonak ezagutzeko eta hezteko aukera zabaltzen zaie; eta, bestetik, Euskal Herriko enpresen ekoizpen sarearen premietara egokitutako langile kualifikatuak formatzen dituzte, enpresetako prozesuetan eta kulturaren ikasiak. Hala, enpresen lehiakortasuna areagotu egiten da, eta langileak Euskal Herriko enpresen ekoizpen sarearen premietara egokitu.

Kudeaketa aurreratua da programaren ziguiletako bat. Horren bidez, lantokiak hizkuntzen kudeaketa aurreratua egiten du, lantaldearen giroa hobetu egiten da, eta zerbitzu hobea eskaini. Esperientzia horrek enpresetako belaunaldien erreleboa errazten du, ondorioz.

Ikastetxeentzat informazioa

Ikastetxeei begira, informazio ezin hobea biltzen du LH Dualak, lan merkatuak behar dituen beharrei aurre egitearekin lotutakoak. Zer esanik ez dago programak enpresen eta ikastetxeen arteko harremanak estutzen laguntzen duela, baita enpresen Erantzun Sozial Korporatiboko politiketan ere.

**GERO ETA IKASLE
GEHIAGORI
ESKAITZEN DIO
KALITATEZKO
FORMAKUNTZA**

Milaka parte-hartzaile

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 14.626 ikasle daude Lanbide Heziketa euskaraz ikasten: Gipuzkoan 8.300, Araban 1.283 eta Bizkaian 5.043. Praktikak egiteko 4.016 lantoki baino gehiago dituzte aukeran Gipuzkoan, 450 lantoki baino gehiago Araban eta 2.067 lantoki baino gehiago Bizkaian.

"Harribitxia da"

LH Duala Euskaraz egitasmoa Laneki elkarrearen, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlanean oinarritzen da. Helburua da ikasleek euskararen ezagutza maila lan mundua euskaratzeko akuilu izatea, euskarak lan munduan duen balioa azpimarratzea. Horrela, LH Duala Euskaraz egitasmoaren aitortza ekitaldia egiten da urtero, ikasle, irakasle, lantoki, erakunde eta eskoletako ordezkarien praktika onak saritzeko. Garbiñe Mendizabal Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendariaren bitartez, aurreko enpresen bitartez, aurreko errekonoizimendu berezia jaso dute Copreci kooperatibak, Aita Mennik eta Elkarmediak. Horiekin harremana duten Lanbide Heziketako honako ikastetxe hauekin ere eskertuta agertuta: Meka LHII, Mariaren Lagundia, Aretxabaleta Lanbide Eskola LHII, Arizmendi Ikastola, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Miguel Altuna LHIII eta Izarraitz Lanbide Heziketa LHIII.

Enpresa eta ikastetxe horiek, Mendizabalen esanetan, "norabide argi bat" markatzen dute eremu sozioekonomikoan euskara indartzeko desafio kolektiboan: "Beti esan ohi dugu gure Lanbide Heziketa sarea harribitxia dela. Eta halaxe da; Europan erudutzat jotzen dute, aitzindaria delako gauza askotan. Euskararen ikuspegitik ere bai, gero eta ikasle gehiagori euskaraz kalitatezko formakuntza eskaintzen diolako eta, ondoren, ikasle horiek gure lantokiak eta bereziki gure industria euskalduntzen dituztelako", egin du gogoeta.

Lan munduan euskararen presentzia indartzeko desafioa Gipuzkoa eta EAEko "etorkizuneko enpresa ereduarekin" lotu du. "Digitala, jasangarria, lehiakorra, parte-hartzailea, talentua sustatuko duena, pertsonekin eta lurraldearekin konprometitua, nazioartekotua... eta euskalduna. Euskararen erabilera sustatzen duena, modu kontziente eta antolatuan".

Hasier Larrea Herrero ARRASATE

Hizkuntza gutxituen inguruan gertatutako generizazio prozesuak aztertu dituzte EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko irakasle Jone Miren Hernandez Garciak eta Marta Luxan Serranok, euskararen erabileran antzemandako feminizazioa adibidetzat harturik. AED elkarteak eta Ekin Emakumeek gonbidatuta eman zituzten azalpenak asteartean Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.

Zer hartu duzue oinarri ikerketa egiteko orduan?

Emakumezkoek euskaraz gizonzkoek baino gehiago hitz egiten duten baieztapena, 1990etik datorrena. 2022an Soziolinguitika Klusterrak argitaratutako ikerketa hori berretsi zuen, azken bost urteetako datuak hartuta. Hortik ondorioztatzen da euskararen erabilera feminizatzen ari dela, eta are gehiago feminizatu daitekeela. Estatistika horiek halako gauzak azaltzeko balio dezakete, baina ulertu behar dugu nola eraikitzen diren eta eraikitze prozesu horien atzean zer dagoen. Gainera, es-

"Hiztun bitarra berreraikitzeari utzi beharko genioke"

JONE MIREN HERNANDEZ ETA MARTA LUXAN EHU-KO IRAKASLEAK

Elkarlanean kaleratu duten 'Hiztunaren genero nahasmendua. Hizkuntza gutxituak, euskara eta generizazio prozesuak' artikulua aurkezten egon dira Arrasaten asteon

tatistikek zati bat bakarrik jasotzen dute, eta kanpoan gauza piloa geratzen dira.

Emakume/gizon dikotomiatik harago joan nahi izan duzue?

Guk plazaratu nahi dugu estatistika eta diskurtso horien birtatez hiztun bitarra berreraikitzen ari garela. Eta interesgarria litzateke pentsamendua

irekitzea, beste modu batean planteatzea. Hiztuna anitzagoa izan daiteke, euskaldun hiztun queerra badago, begira Zarauzko igandeko bertso saioa, Altza

Lili kabareta... Gauza asko egi-ten dabilta eta une honetan horri begiratzea da garrantzitsua. Hiztun horiei ere arreta jarri behar diegu, euren inguruan ere hitz egin behar dugu, gauza emergenteak gertatzen ari dira. Bestela, erdigunean hiztun-profil bakarra jarriko da, sozialki eraikia. Baina hiztunak, izatez, anitzak dira eta anitzak izan dira iraganean ere.

Aipatzen duzue iraganeko momentu batzuetan emakumeak euskararen erdigunean agertzen direla, eta beste batzuetan periferian; adibideren bat jartzerik?

Adibidez, frankismo garaian, lehen ikastola erdi-klandestinoak emakume sare bat zegoelako sortu ziren. Mende hasieratik zetozen hainbat emakumek hartu zuten rol hura, Emakume Abertzale Batzaren mugimendutik zetozenek, Elvira Zipitriak eta hainbatek. Idoia Fernandezek ikerketa zoragarri batean azaltzen du hori. 70eko hamarkadan hasten dira Ikastolak "ofizializatzen edo instituzionalizatzen", eta orduan hasten dira gizonzkoak agertzen. Hortik aurrera, emakumez osatutako



ZENBAKI

Aholkulariak eta abokatuak

Euskararen alde!

Behar dudanerako

www.zenbaki.eus

Basabe industrialdea, F-0

Aretxabaleta

943 71 21 12

ERREKA



Euskara da gure hizkuntza,
berrikuntza gure bidea.

www.erreka.com

sarea desegiten da eta emakume haiek ikusezin geratzen dira. Dimentsio publikoa hartzen dute ikastolek eta jada ez dira militantziarekin hainbeste lortzen. Noski bazeudela emakumeak han, baina ordura arte euskal hezkuntza erabat zegoen emakumeen eskuetan. Eta gizonezkoak bultzatzen, bai. Baina zergatik desagertzen dira emakume horiek? Gizartean beste mugimendu batzuk gertatzen ari direlako. Tresna bat daukagu, nahiko konplikatu, genero sistema edo patriarkatua deitzen dioguna. Ez da elementu bat modu independentean mugitzen dena. Ziur aski, halako mugimendu bat gertatzeko bestelako mugimenduak gertatu dira inguruan.

Ze beste ondorio atera duzue?

XX. mende hasieran bazeuden autore batzuk emakumeen hizkuntza praktikak epaitzen zizutenak. Batzuek esaten zuten emakumeak salbatzaileak direla eta haien eskuetan utzi behar dela euskara; eta beste batzuek, kontrakoa, emakumeak erdarara jotzen dabiltzala etengabe. Aldiz, gizonezkoen joera ez da



Hernandez eta Luxan, aurkezpena egin aurretik; hondoan, Euskaltzaindiko kideen argazkia. H.L.H.

epaitua izan, halako testurik ez dugu aurkitu, ez dago bi generoen arteko konparaketarik. Hori bada ondorioetako bat: emakumeen jokabidea beti egon da erdigunean.

Hori euskararekin gertatu da soilik?

Azterketa bibliografikoa egin dugu, beste hizkuntza gutxitu batzuetako komunitateetan zer gertatu den aztertzeko, eta gauza bera gertatu da; emakumeen inguruan eraikitako diskurtso eta ikuskera batzuk errepikatu

egin dira beste komunitate askotan: Galesen, Irlandan, Latinoamerikan... Emakumeen figura oso lotuta egon izan da transmisioarekin, hezkuntzarekin; hor dugu ama-hizkuntzaren kontzeptua bera. Horrek baditu

arriku batzuk. Egiten diren interpretazioak dira, neurri batean, hizkuntza gutxituen bizi-raupena emakumeen esku uzten dela. Ikusi dugu beste komunitate batzuetan ere.

Gizonek, aldiz, ze rol hartzen dute?

Hizkuntza gutxituetan aritzeak izan ditzakeen ondorio positiboak gizonezkoek hartzen dituzte, baina horren inguruan ez da horrenbeste eztabaidatzen. Hau da, zalantzan jartzen den guztia emakumeen esku uzten da, eta, are gehiago, emakume euskalduna izatea zer den ere horren gainean eraikitzen da. Beraz, ari gara emakume euskaldun batzuei buruz hitz egiten. Baina aldarrikatu nahi duguna da badaudela emakume euskaldun izateko beste modu batzuk.

Genero perspektibatik ikertzen jarraitzeko beharra ikusten duzue?

Bai; begirada konplexu bat, beste toki bat behar dugu gauzei begiratzeko. Rol banaketa gertatu da hizkuntzarekin. Eta zer gertatzen da apurtzen badugu dinamika horrekin? Interesgarria da, abanikoa irekitzen da. Dagoeneko ez litzateke izango: edo zuk edo nik.

ULMAN
euskara
bidelagun

ULMA

Arnasguneen garrantzia zabaltzeko eta gazteen ahalduntzea bultzatzeko

Arnasetik lehiaketako sariak banatu zituzten atzo Bergaran. Udalaren saria jaso zuten Aranzadi ikastolako eta Mariaren Lagundia ikastolako ikasleek egindako bideo banak



Aranzadi ikastolako ikasleen *Txokorako bidea* lanaren une bat. A.I.

Larraitx Zeberio Lekuona BERGARA Bergarako Seminarixoa aretoan egin zuten Arnasetik bideo sormen lehiaketako sari banaketa, atzo. LHko 5-6 kategorian Bergarako Udalak emandako saria eskuratu zuten Aranzadi ikastolako *Txokorako bidea* izeneko laneko egileek. DBHko 2-3 kategorian, berriz, Bergarako lanik onenaren saria jaso zuten Mariaren Lagundia ikastolako ikasleen *Nor miresten duzu zuk?* lanak.

Txokorako bidea izeneko ikus-entzunezkoak Sara Ezena-

rrero, Labrit Alvarez, Ilargi Loiola, Lur Iburguren, Irati Ortiz de Urbina eta Bidane Oteiza ditu protagonista. Boskoteak herriko txokorik gustukoena zein den aurkezten du ikus-entzunezkoan, eta azaltzen dute zergatik duten hain kuttuna.

Mariaren Lagundia ikastolako *Nor miresten duzu zuk?* lanaren egileak Maialen Agirre, Oihana Bolinaga, Nora Gisasola, Naia Murgiondo, eta Lur Mendieta dira. Banan-banan azaltzen dute nor miresten duten, eta miresten duten pertsona horri ematen

diote eskuz esku darabilten koloretako kutxa bat. Kutxa horretan gordetzen dituzte denek argazkiak.

Hirugarren urtez jarraian antolatu dute bideo sormen lehiaketa Arnasa Gara proiektua bultzatzen duten erakundeek: UEMAk, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak. Arnasguneetako 10 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimena da, eta bi minutuko bideoak sortu dituzte ikasleek. Kategoria bakoitzak gai jakin bat zuen jarrita: *Txokorako bidea* (LH

5-6), *Prestatu nirekin* (DBH 1-2) eta *Bosteko katea* (DBH 3-4) izan dira hiru gaiak. Parte hartzea handitzen doa urtetik urtera: iaz, 112 lan jaso zituzten; eta aurten, 260. "Hiru urte besterik ez du lehiaketak, baina oso gustura gaude jasotako erantzunarekin. Lan asko jaso genituen iaz, eta aurten are gehiago. Iaz baino 148 gehiago!", adierazi du UEMako lehendakari Martin Aramendik.

UEMAko ordezkariak nabarmendu du lehiaketak harrera ona izan duela hasieratik uda-

lerri euskaldunetako eskoletan eta gazteen artean. "Hasieratik errotu da, eta asko poztzen gaitu horrek. Proposatutako ariketak mimoz landu dituzte ikasleek, eta lau haizeetara zabaltzeko moduko edukia sortu dute denek artean". Hain zuzen ere, lan guztiak ikusgai daude *Arnasgara.eus* atarian.

Arnasguneen garrantzia

Euskararen arnasguneek duten garrantzia zabaltzea ere bada Arnasetik bideo sormen lehiaketaren helburua. "Azken batean,



**Txantxiku
Ikastola**

HEZKUNTZA KOOPERATIBA
EUSKALDUNA

**euskaraz bizi
nahi dut**



UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

*Zutaz arduratzen gara
Guk ere euskaraz!!*





Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodiaq Seat Arona

Tel.: 943 71 18 70 | Faxa: 943 71 18 71 | www.udalaitz-arrasate.com

Mariaren Lagundia ikastolako ikasleen *Nor miresten duzu zuk?* lanaren une bat. M.L.

arnasguneak giltzarriak dira euskararen biziberritzerako, eta hori ikusaraztea da lehiaketaren helburua. Udalerririk euskaldunenetan eta arnasguneetan ere giltzarria da herritarren sentsibilizazioa eta kontzientziazioa euskarari eusteko, eta horretan eragin nahi du lehiaketak", esan du Aramendik. "Hiztun komunitate sendo bati esker, euskaraz modu naturalean bizi daitezkeen udalerriek dute arnasgune izendapena, eta funtsezkoak dira Euskal Herri euskaldunagoa lortzeko".

Ikus-entzunezkoen lanketa

Lehiaketaren bitartez euskarazko ikus-entzunezkoak sortzeko gaitasuna lantzen dute ikasleek eta, bide batez, haien inguruan dauden irakasleek eta gurasoek. "Bestetik, kategoria bakoitzean proposatzen diren ariketak aukera polita dira tokian tokiko ondarea aintzat hartzeko eta gainerako euskal herritarrei erakusteko. Lehiaketa horri esker, Bergarako txoko bat, jai bat, esamolde bat edo ohitura bat Euskal Herriko gainerako gazteengana iristen da, eta sare

hori sortzeko garrantzi handia du", ohartarazi du Aramendik.

Bultzatzaileek argi dute gaur egungo gazteen komunikazio-hizkuntzara heltzeko teknologia berrietara egokitutako proposamenak lantzea ezinbestekoa dela, eta askotariko teknika, tratamendu, genero, sorkuntza prozesu eta gaiak lantzen saiatzen dira. Asmoa bada gazteen etorkizunerako begirada sortzaileak piztea ere.

Gazteak ahalduntzea

Lehiaketako bultzatzaileendako garrantzitsua da gazteak ahalduntzea, "euskarari eusteko eta hizkuntza-ohituretan eragin" ahal izateko. "Euskara ez da beste hizkuntza bat gehiago. Bertako hizkuntza da, berezkoa, eta urte askoan jazarria eta gutxitua izan dena. Horrek ondorioak ditu. Hizkuntzak ez dira boligrafoak bezala galtzen, arrazoi zehatzengatik baizik. Horregatik, hori guztia ezagutarazi behar zaie gazteei, hizkuntzaren egoeraren berri emanez. Arnasetik lehiaketa gazteen kontzientziazio horretan eragiten duen beste bitarteko bat da". Hala,

lehiaketaren helburua ez da soilik ikus-entzunezko sormena sustatzea, baizik eta gazteek beren komunitateetan euskararen babesean jokatzeko duten paperari buruzko hausnarketa

sortzea. Atzoko ekitaldian saria jaso zuten baita ere Berriatua, Lekeitio, Lesaka, Zumaia, Azkoitia, Gaztelu, Zarautz, Ondarroatua edo Zalbidiako ikasleen ikus-entzunezkoek.

Sarituak

LH 5-6

- Irabazlea: 'Elizpeko arbola' (Berriatua HLHI).
- Bergarako Udalaren Saria: 'Txokorako bidean' (Aranzadi ikastola).
- Finalistak: 'Lekeitioko abadien moila' (Azkuia Natura Ikastola) eta 'Lesakako txokorik politenak' (Irain Eskola Publikoa).

DBH 1-2

- Irabazlea: 'Gabon maiteak' (Azkoitia BHI).
- Finalistak: 'Olagarro Eguna' (Zumaiako institutua) eta 'Gazteluko festak' (Orixe, Tolosa).

DBH 3-4

- Irabazlea: 'Leokadi' (Ondarroa BHI).
- Finalistak: 'Kate exotikoa' (Salbatore Mitxelena ikastola, Zarautz) eta 'Ondarrokoa bosteko kati' (Ondarroa BHI).
- Bergarako irabazlea: 'Nor miresten duzu zuk?' (Mariaren Lagundia ikastola, Bergara).

Publikoaren saria

- 'Txokorako bidea'. (Lardizabal Herri Eskola, Zaldibia)



Gualbi

aholkularitza

Qu ere euskararen alde!

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!





Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com
Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasores.com

'Jendaurrean' euskaraz ere egin behar delako

Jendaurrean Erabili ikerketa proiektuari amaiera ematen dion 'Jendaurrean.eus' webgunea aurkeztu du Soziolinguistika Klusterrak, "erakundeek euren komunikazio publikoan euskararen erabilera handitu eta hizkuntzen kudeaketa egokia egiteko"

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA "Komunikazio publikoan diharduten erakundeentzat interesgarriak izan daitezkeen ezagutzak eta tresnak" batzen dituen webgunea sortu du Soziolinguistika Klusterrak: *Jendaurrean.eus*. Izan ere, bertako zuzendari Imanol Larreak dio erakundeek komunikazio publikoa "modu erosoan" egiteko "ezinbestekoa" dela hizkuntzak kudeatzea.

2015a ezker martxan

Jendaurrean.eus webgunea Jendaurrean Erabili proiektuaren baitan sortu da. "Bederatzi urteko lana" izan dela dio Larreak, eta "erakundeek jendaurreko

komunikazioan euskara ere hobeto edo modu eraginkorragoan erabili dezaten euren jarduna errazteko bide eta bitartekoak lantzeko" sortu zen proiektua. Soziolinguistika Klusterra "ikergune bat" denez, "praktika komunitate bat izateaz gain ikerketa proiektuak ere" egin dituztela dio Larreak. Proiektua martxan jarri zutenetik, "lau ikerketa proiektu egiteaz eta praktika komunitatea dinamizatzeaz" arduratu dira, beraz, Soziolinguistika Klusterreko kideak. Hori guztia eginda, "proiektua bukatutzat" jo dute, *Jendaurrean.eus* ataria aurkeztuta: "Webgune horrek

batzen ditu, alde batetik, urte hauetan guztietan egin ditugun ikerketak, txostenak eta ikasitako guztia; eta, beste alde batetik, sortu da tresna bat erakundeek jendaurreko komunikazioan lagunduko diena; emaitza praktikoagoa".

Behar bati erantzuten

Jendaurrean Erabili proiektuarekin lanean hasi zirenean "behar bati erantzuten" ari zirela dio Larreak. Orduan, jendaurreko euskarazko komunikazioaren arloan hutsune bat nabari zuten Soziolinguistika Klusterrekoek, eta bederatzi urte geroago hutsune horrek "hutsune izaten"



Jendaurrean.eus atariaren aurkezpena. SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRA

jarraitzen duela dio Larreak: "Proiektua bukatu dugunean ere nabari dugu hutsunea. Horregatik da beharrezkoa gida. Hutsune hori ez balitz egongo eta komunikazio hori bermatuta egongo balitz, ez legoke gida baten beharrik. Diagnostiko horretan erakunde guztiak bat gatzoz: oraindik eutsi egin behar zaio horri, eta euskara kontuetan, beste arlo askotan gertatzen den bezala, inertziak beti eramaten gaitu hizkuntza hegemo-

nikoetarantz, eta, ezer egin gabe geldituz gero, galdu egingo litzateke euskararen presentzia. Askotan, erakunde baten barruan euskararen presentziari eustea ere erronka bat izaten da, eta, are gehiago, alde horretatik aurrerapausoak ematea".

Jendaurrean.eus webgunearen aurkezpenarekin ikerketa proiektuari amaiera eman arren, Larreak aitortu du "jarraipena eta erabilera" eman behar zaiola aurretik landutako guztiari.

Euskara hauspotzeko eta herrian eragiteko, Aixotu

Azkenengo euskara taldea desagertu eta hamabost urte geroago sortu da talde berria: Aixotu. Gaia "arlotu politiko-sozialetik" landuta, euskara hauspotzea eta jasan dituen erasoei aurre egitea dute helburu. Abenduaren 3an izango da aurkezpena

Julen Murua Mesonero OÑATI

Hamabost urte igaro eta gero, Oñatik badu euskara elkarte berria. Apirilean, Euskal Herrian Euskaraz mugimenduak antolatutako Arrotze Astearen baitan, "euskararen alde egiteko" sortu zuten Aixotu, bertako kide Iñigo Madinaren hitzetan, "euskara jasaten ari den erasoei eta oldarraldiei aurre egiteko eta, bide batez, Oñatiko erabilera hauspotzeko helburuarekin".

15 urte igaro eta gero

Laixan izan zen Oñatin eragiten zuen azkenengo euskara taldea, baina, desagertu zenetik 15 urte igaro diren honetan, Aixotukoek



Aixotu euskara taldeko kideak, Antixenean. GOIENA

euren bidea egitea dute helburu: "Aspalditik, taldeko kide batzuen artean hitz egiten genuen baze-goela euskara talde baten beharra herrian. Bileretan askotan atera da Laixan taldearen izena, baina egia da taldeko kideok dugun adinagatik ez gara iristen Laixan erreferente moduan izatera, ez dugulako askorik ezagutu. Gure bidea egin nahi dugu".

Gazteengan eragiten

Taldearen helburua Oñati osoan eragitea bada ere, badago helburuko publikotzat hartzen duten adin tarte bat; izan ere, Madinak dioenez, "egin diren ikerketetan ateratako datuen arabera, Oñatiko erabilera, beste herri askorekin alderatuta, altua da; baina, hala ere, ikusten dugu jaisten ari dela. Batez ere, gaztetxoenen artean. Euskaraz dakitena kopururik erabiltzen dutenen kopurura badago aldea, eta horretan ere eragin nahi dugu. Etorkizunera begira, gazteek garrantzi handia dute, eta, taldeko kideok ere gazteak gara kontuan hartuta, hor eragiteko asmoa dugu".

Aurkezpena, 3an

Urte erdi baino gehiagoko proiektu horren bueltan lanean ibili ostean, Euskararen Egunean, abenduaren 3an, aurkeztuko dute Aixotu euskara elkarte, Antixena gaztetxean, 18:00etan. Aurkezpenaz gain, euskararen egoeraren eta horren gainean izandako bizipenen bueltako solasaldia egingo dute Gorka Torre eta Luken Etxabe Euskal Herrian Euskaraz mugimenduko kideek. Aurkezpenaren eta solasaldiaren ostean, kontzertu akustikoa emango dute Uxue Igartuak eta Joane Arkauzek.

Talde irekia

Madinak jakinarazi du Aixotu euskara taldea "irekia" dela eta "Oñatin euskara talde bat sortu dela entzun duen eta taldean egon nahiko lukeen inor balego", ez dutela "aterik itxiko" eta guztien ekarpenak izango direla "ongietorriak". Madinak dioenez, taldean egon gura duten haien tzentzat "aurkezpenaren eguna izan daiteke momentu aproposena bertara joan eta Aixotu taldeko kideetako batekin hitz egin ahal izateko".

G Goizper Group
Elkarlanean garatzen



Industria



Ihiztadura



Bioteknologia

Berrikuntza eta garapen teknologikoa Goizper Groupeko enpresa-filosofiaren parte dira, eboluzionatzeko eta balio erantsiko soluzioak eskaintzen jarraitzeko gakoak. Euskal jatorriko kooperatiba gisa, berdintasuna, ingurumen soziala eta euskal kulturaren babesa balio oso garrantzitsuak dira Goizperrentzat.

www.goizper.com



Zapore gozoko egubakoitza

Gaur egingo dute Gozaldia, Arrasateko Seber Altube plazan. Euskaraldiari begira, Euskaren Egunaren harira antolatutako kultur ekimen sortaren barruan, 17:00etatik aurrera hainbat gozogile egongo dira, eta 18:00etan emango zaio hasiera ekitaldiari

Sara Lanz Azpiazu ARRASATE

Euskaraldiaren laugarren edizioa gero eta gertuago dago, eta herrietan giroa berotzen hasia da. Ekimen horrek hizkuntza-ohituren aldaketa eta euskararen erabilera sustatzea du helburu, baina arrakasta lortzeko ezinbestekoa da aurretik herritarrek motibatzea eta euskararen aldeko mugimendua indartzea. Horretarako sortu da Gozaldia, Euskaraldiari begira antolatutako kultur ekimena, eta parte-hartzea bultzatzeko egitasmo

berezia. Arrasatek, beste hainbat herriren moduan, ostiral honetan ospatuko du Gozaldia, euskararen aldeko jai gozo eta hunkigarria bilakatuta.

Euskaraldia euskararen erabilera sustatzeko ekimen kolektiboa da, jada hainbat edizio arrakastatsu izan dituena. Ikerketek diote parte-hartzaileen bi herenek hizkuntza-ohiturak aldatzen dituztela Euskaraldiari esker. Urtez urte, ekimenak euskara gehiago erabiltzeko eta hizkuntza-ohiturak kontziente-

ki aldatzeko espazio bat sortu du. Dena den, euskara gehiago eta hobeto erabiltzeko erronka horrek jarraipena behar du, eta laugarren edizioa, 2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo dena, indarberrituta dator. Garazi Azkuek, Euskaraldiko komunikazio arduradunak, nabarmendu du "aurretik egiten den mugimendu guztia Euskaraldia bera bezain garrantzitsua" dela.

Euskaraldiaren aurretik giroa berotzeko sortutako ekimen berezia da Gozaldia. Ez da fes-

ta arrunt bat, baizik eta herrietan giro alai eta motibazioa pizteko aukera. Azkuek azaldu duenez, "Euskaraldia badatorrela adierazteko modu bat da, eta maiatzaren 15etik 25era egingo dela gogorarazteko aukera". Herri batzordeak indartu, herritarrek aktibatu eta euskararen erabilera sustatzeko helburua du.

Herri bakoitzak bere ekitaldiak antolatzen ditu, haren behar eta egoerei egokitzuz. Aurten, hama-bost herri inguruk egingo dute Gozaldia; gehienek, zapatuan. Euskararen Eguna abenduaren 3an izanik, bada hurrengo bi asteak ere baliatuko dituztenak. "Arrasatek erabaki du Gozaldia egubakoitzera aurreratzea, zapatuan ekintza ugari baitira herrian", azaldu du Arrasateko Euskaraldiko dinamizatzaile Uxue Sampedrok.

Gozotasunekin, konpromisora

Arrasaten, Seber Altuben ospatuko da Gozaldia, gaur. Hain zuzen ere, 17:00etan hasiko dira ekitaldiak, herriko hainbat gozogileren parte-hartzearekin: Goxo Goxua, Errastiko gozogileak

eta Saharako pastak salgai egongo dira. Sampedrok adierazi duenez, "prezio sinboliko batean, bi euroren truke, herritarrek produktu goxoak eta sagar-zukua dastatzeko aukera izango dute".

Haurrak eta gurasoak ere protagonista izango dira. Txatxili-purdi elkarteko lagunek jolasak eta askotariko dinamikak antolatzen arituko dira, giroa alaitzeko. Ekitaldi nagusia 18:00etan izango da, eta Arrasateko Euskaraldiko hamaikakoaren aurkezpena egingo dute. Izenak ondo dioen moduan eta hasierako Euskaraldian egin moduan, hamaika laguneko enbaxadore taldeak osatzen du hamaikakoa. "Adin eta euskararekiko harreman desberdinak dituzten pertsonak dira; tartean, euskaldun berriak ere badaude. Guztiek euskararekiko jarrera positiboa dute", azaldu du Sampedrok".

"AURRETIK EGITEN DEN MUGIMENDU GUZTIA EUSKARALDIA BERA BEZAIN GARRANTZITSUA DA"

Gure egunerokoan oro da urrea

BIKAIN
EUSKARAREN KALITATE-ZIURTAGIRIA

MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

ABENDUAK 3 · EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA



ehbildu



Arrasateko Gozaldia prestatu duen lantaldeko kideetako batzuk Euskaldiko leloarekin. XABIER URTZELAI ATXA

Honako hauek osatzen dute Arrasateko hamaikakoa: Brian Mena Echeverria, Anixe Uribarren Bengoa, Luka Bergaretxe Otadui, Maitane Tricio Duque, Aitor Etxezarreta Learreta, Gloria Nieves del Olmo, Arkaitz

Agirrezabal Mateo, Emma Cairns, Fernando San Miguel Zubieta, Lucy Cebrino Lozano eta Belen Kortabarria Atxa. Sampedrok nabarmendu du guztiek ezagurri bat dutela amankomunean: "Ariketa egiteko prest dauden

pertsonak dira guztiak, bai *ahobizi* zein *belarriprest*".

Motorrak berotu ostean Euskaldia prestatzen duten bitartean, herritarrak ere parte hartzerantz bultzatzen dituzte. Era berean, ekimen horren garrantziaz jabetzeko, hausnarketa sustatzen da: zein rol hartuko duen parte-hartzaile bakoitzak, hizkuntza-ohiturak nola aldatu ditzakeen eta zer erronkari eusteko prest dagoen. *Ahobizi* edo *belarriprest* rolen artean aukeratzeko, hausnarketa horiek beharrezkoak dira. Ilusioz ekingo diote lan horri.

oinarrizten; atzean prestaketa-lan handia dago. Ekimenak benetako eragina izan dezan, ezinbestekoa da herrietan mugimendu aktiboa sortzea eta parte-hartzaileak konprometiturik egotea. Sampedrok gogorazi duenez, "ez da soilik hamaika egunetan ariketa bat egitea, baizik eta aurretik prestakuntza eta ostean jarraipena izatean oinarritzen da". Horretarako, Arrasateko talde motorra lanean ari da, herritarrak eta eragileak mobilizatzeko.

Motorrak berotzen hasteko, herrietan batzordeak eratu eta antolakuntza sendotzen da, lehenik. Horri esker, talde motorrek Euskaldia prestatzen duten bitartean, herritarrak ere parte hartzerantz bultzatzen dituzte. Era berean, ekimen horren garrantziaz jabetzeko, hausnarketa sustatzen da: zein rol hartuko duen parte-hartzaile bakoitzak, hizkuntza-ohiturak nola aldatu ditzakeen eta zer erronkari eusteko prest dagoen. *Ahobizi* edo *belarriprest* rolen artean aukeratzeko, hausnarketa horiek beharrezkoak dira. Ilusioz ekingo diote lan horri.

Batzordeek, gainera, giroa pizteko ekimenak antolatzen dituzte. Gozaldia eta halako egitasmoak aukera bikaina dira, Euskaldia berri emateaz gain, herritarrak ilusioz betetzeko eta euren eginkizuna aktiboki hartzerantz animatzeko. "Ez da bakarrik Euskaldia gerturatzeko ari dela esatea, baizik eta euskararen aldeko ekintza kolektibo baten parte izatea eragiten du", azaldu du Arrasateko Euskaldiko dinamizatzaileak.

Aurtengo helburua argia da: "Ilusioa berpiztea eta euskararen erabilera eguneroko ohitura bihurtzeko ahalegina egitea". Eta ezinbestekoa izango da herritarren, entitateen eta eragileen arteko elkarlana indartzea. Gozaldia eta gisa horretako ekimenak dira, hain zuzen ere, prozesu horren lehen urrats garrantzitsuak.

GOZALDIA DA EUSKARAREN ALDEKO ELKARGUNE ETA EUSKARALDIA HASTEKO PIZGARRI



Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Ez dadila eten euskararen haria!

Campusak
Eskoriatza
Aretxabaleta
Bilbao AS Fabrik

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu
943 71 41 57
www.mondragon.edu

Gakoak euskara aktibatzekeo

"Euskaraldia gaindituko duen Euskaraldia" da gidaliburua. Helburua da ikusaraztea Euskaraldiaren antolaketa ez litzatekeela mugatu behar hamaika egun horietara, baizik eta bide horretan erabilgarriak izan daitezkeen proposamenak jasotzen ditu

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Euskara aktibatzaileendako gidaliburua atera du Euskaraldiak, "Euskaraldia gaindituko duen Euskaraldia". Gidaliburuaren helburua da ikusaraztea Euskaraldiaren antolaketa ez litzatekeela mugatu behar hamaika egun horietara, baizik eta ikuspegi zabalagoa eta arnas luzeko ikuspegi bat erantsi beharko litzaikeela ekimenari, eta bide horretan erabilgarriak izan daitezkeen proposamenak, gakoak, jasotzen ditu liburuxkak.

Arrasateko adibidea

Kike Amonarrizek egin du gidaliburua, eta, haren ustez, "Euskaraldiak bere helburuak beteaz gain", izan beharko luke aukera bat, helduleku bat, baliabide bat, tokian tokian -auzoetan, herrietan, bailaretan- euskararen aldeko mugimendua indartzeko eta egonkortzeko. "Gida horren helburua da mugimendu hori nola zabaldu eta zaindu daitezkeen proposamen bat egitea Euskaraldiari begira, baina, batez ere, ekimen horretatik harago".

Amonarrizek adierazi duenez, garrantzi berezia ematen diote Euskaraldiaren antolaketari eta prestaketari, eta mailaketa bat egiten dute. "Batetik, badago gune zentral bat, antolaketan buru-belarri ari direnak osatzen dutenak. Antolaketa hori ahalik eta zabalena eta osatuena izateari garrantzia ematen diogu, baina baita gune horretatik sortuko diren beste talde edo eremuei ere. Adibidez, bigarren geruza bat sortzen da hortik, euskara aktiboak osatzen dutena, bai-

na haiek laguntzaileak behar dituzte aurrera egiteko, eta haiek izango dira bai Euskaraldiaren mezua eta bai hizkuntza biziberritzeko mezua zabalduko dutenak herri bakoitzeko ahalik eta gizarte eragile eta erakunde gehienetan".

Adibide bat ere eman du Amonarrizek: "Demagun Arrasaten hamar edo hamabi lagun ibiliko direla Euskaraldia antolatzen. Haiek behar dute 50 lagunek osatutako geruza bat euskaltzalea dena, pertsona inplikatuak, eta haiek lortu behako luketena da bakoitza 10-15 pertsonarekin egotea, kafea hartzea, hitz egitea, haiek ilusionatzea, gero pertsona horiek bakoitzak bere kuadrillan, lantokian edo elkarteetan mezua zabaltzeko eta Euskaraldiaren berria normalean iristen ez den tokietara ere iristeko". Horrek lor dezakeenaren kalkulua ere egin dute Euskaraldian lanean dihardutenek: "Kalkulatzen dugu Euskal Herrian lortu ahal izango genukeela Euskaraldiaren mezua 200.000 eta 400.000 pertsona artera zuzenean heltzea, nahiko modu errazean".

Harreman pertsonalak

Hizkuntza ohituren aldaketak lortzea da Euskaraldiaren helburua, eta, hori iparra bada, harreman pertsonalak ezinbestekoak direla uste dute, mezua mugimendu sozial zabal batera iristeko. "Ez da nahikoa postak edo *whatsapp* mezua bidaltzea, harreman pertsonalak behar-beharrezkoak dira helburua lortzeko, jendearengana iristeko. Eta gidaliburuaren asko sakontzen dugu harreman horiek nola bideratu, eraginkorrak izateko zer puntu hartu behar diren kontuan azpimarratzeko eta proposatzeko zer den zaindu beharrekoa pertsonetik harremanetan. Horretarako irizpide batzuk daude jasota liburuan, askorendako oso ezagunak izan daitezkeenak batzuk, baina beste batzuek berrikuntzak ekar ditzaketena", dio gida-

**"KALKULATU DUGU
200.000 ETA 400.000
PERTSONA ARTERA
HELDU GAITEZKEELA,
ZUZENEAN"**





Herritar bat, gidaliburua eskuetan duela. O.E.G.

buruan parte hartu duen Kike Amonarriek.

Gidaliburuak zortzi ideia eta proposamen jasotzen ditu, Euskaraldiaren ekinbidea sustatu eta "euskara aktibatzaile" izan nahi dutenendako "erabilga-

rriak" izan daitezkeenak. Eta zortzi mugarri zehazten ditu: jarrera aldatu, harremanak sortu, sare bat irudikatu, sare bat osatu, taldearen funtzionamendua finkatu, ekintzak antolatu, Euskaraldia antolatu eta

indarberritu. Behin zurrunbiloa igarota ere, harremanei "eutsi" egin behar zaiela dator azken gako horretan; adibidez, "antolatzaileen taldea zaindu egin behar da". Ekimenaren aurrean izan beharreko jarrerari buruz,

berriz, aldatzea gomendatzen du liburuak: "Kexatzea edo etsipenean erortzea baino askoz hobea da mugitzea eta antolatzea. Horixe da, Euskaraldiari begira, geure buruari jarri diogun zeregin nagusietako bat: ingurukoak hauspotzea". Sarea ere bada beste mugarri bat, eta horri buruz liburuak dio euskalgintza jende mota jakin batendako bakarrik den estereotipoa gainditu egin behar dela: "Asko eta askotarikoak gara euskaldunak eta euskaltzaleak".

Abian dira lanketak

Irailean aurkeztu zuten gidaliburua, Euskaraldiak ondutako gida praktikoa, Eibarren, eta Euskaraldiaren antolaketan ibili diren edo ibiliko diren boluntario, teknikari eta eragileek herritarren aktibaziorako modu eta molde berrien proposamenak entzun zituzten zuzenean; Euskaraldiaren mugimendua sortzeko, osatzeko, sarea irudikatzeko, ekintzak antolatzeko eta indarberritzeko hainbat gako.

Gidaliburua bera osorik kontsulta daiteke Interneten, baina

ale fisikoak ere atera dituzte, Euskal Herri osoan banatzeko. Euskaraldiaren testuinguruan parte hartuko dutenen artean zabaltzea da asmoa, ideia zabaltzeko. "Hala ere, guk transmititu gura dugun mezua da Euskaraldia ez dela kanpaina huts bat, ez dela hamaika egunera mugatzen den ekimena bakarrik. Epe luzerako proposamena da, euskararen mugimendu soziala indartzera datorena, gidaliburu hau da gizartearen aktibazioa lortzeko ahalegin, proposamen bat, Euskaralдитik harago ere erabili behar dena", dio Amonarriek. Euskaraldian euskara aktibatzaile izateko ideiak gura dituenak gidaliburua irakurri dezake, ekimenarekin bat egin eta hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzeko. Maiatzaren 15etik 25era izango da Euskaraldia.

INTERNETEN DAGO GIDALIBURUA KONTSULTATZEKO, ETA ALE FISIKOAK ERE ATERA DITUZTE

**Teknologia,
gure izaera;
Euskara gure
hizkuntza.**

ikerlan MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE



m
Mondragon
Unibertsitatea

Euskarak 365 egun, Euskararen Eguna

mondragon.edu



ZAPATUA 30**Eskoriatza Bertso saioa**

Hankamotz bertso eskolako kideen eskutik. Ostean, *Tio Teronen semeak*, *haurreskolari* ikuskizuna.

Fernando Eskoriatza plazan, 13:00etan.

Eskoriatza Kantu bazkaria

Leirek eta Dorletak girotuko dute bazkalostea.

Fernando Eskoriatza plazan, 15:00etan.

Eskoriatza Hamarrazt taldea

Oñatiko taldearekin dantzaldia.

Fernando Eskoriatza plazan, 20:00etan.

Eskoriatza Pineapple Sweet DJak

Emanaldia egingo dute.

Inkernu tabernan, 22:00etan.

DOMEKA 1**Aramaio Herri lasterketa**

11:00etan izen-ematea zabalduko dute eta 12:00etan hasiko da lasterketa, herriko kaleetan.

Bizente Goikoetxea plazan.

EGITARAUA



GOIENA

Oñati 'Egun zoragarriak' antzezlan

Pabellon 6 gazte konpainiaren antzezlan. 12:00etan

Batxilergoko ikasleendako eta 19:00etan herritar guztiendako.

Abenduaren 3an, Santa Ana antzokian.

Oñati Idoia Asurmendi

Aramaio musikiariak *De amar y desandar* diskoa aurkeztuko du.

Sarrerak, hamar euro.

Gaztelekuan, 12:00etan.

Antzuola Aurpegi margotzeak

Umeendako tailerrak. Gainera, pankartak ere egingo dituzte.

Zurrategin, 12:30ean.

Antzuola 'Kneecap' pelikula

Rich Peppiatten filma.

Torresoroan, 18:00etan.

Oñati 'Hemen ez du inork ordaintzen' antzezlan

Dario Foren lan ezaguna taularatuko du Arrasateko Doke Antzerki Taldeak. Sarrerak, hamar euro.

Santa Anan, 19:00etan.

**MARTITZENA, 3
EUSKARAREN EGUNA****Bergara Kalejira**

Kalejira koloretsua egingo dute Aranzadi Ikastolako kideek. Haur Hezkuntzatik batxilergora arteko ikasleek eta irakasleek.

Seminarixoan, 10:45ean.

**NAHI DOGUNIAN,
NAHI DOGULAKO,
EUSKARA GURIA
DALAKO**



MARIAREN
LAGUNDIA
IKASTOLA

Espoloia 1
BERGARA
943 76 25 40

www.mlagundia.org

**ZAINDDU DAIGUN
EUSKERIE!**

*Elkar mugituz
egingo dugu*

Abenduak 3
**Euskararen
Nazioarteko Eguna**



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Oñati II. Appa Hi lehiaketa

Herriko ikastetxeetako DBHko laugarren mailako ikasleek hitanoa praktikatu dute, *Appa hi!* aplikazioko lehiaketan. *Gaztelekuan, 11:30etan.*

Oñati 'Egun zoragarriak' antzezlan

Pabellon 6 gazte konpainiaren antzezlan, ikastetxeetako batxilergoko ikasleentzat bakarrik. *Santa Anan, 12:00etan.*

Bergaran Berriketa-plaza

Euskararen gaineko esperientziak jasotzeko berriketa-plaza bilakatu dute udaletzeko osoko bilkuren aretoa. *Osoko bilkuren aretoan, 17:00etan.*

Antzuola Dantzaldia

Erromeriarekin batera, Euskararen Eguneko lelo lehiaketako irabazlea jakinaraziko dute. *Herriko Plazan, 17:30ean.*

Oñati Euskal kantuen saioa eta txokolate-jana

Ikastetxetako Guraso Elkarteek txokolatea banatuko dute, behar da. Ikasleek bizkotxoak salduko dituzte, bi eurotan. *Herriko Plazan, 18:00etan.*



Aramaioarrak iazko lasterketan korrika. GOIENA

Aretxabaleta Euskara Planari ekiteko batzarra

Euskara Planaren diagnostikoa kontrastatzeko eta aurrera begirako diseinua egiteko herritarren parte-hartzea lortu gura da, eta, horretarako, hausnarketa-batzordea eratuko da herritarrekin bat. *Arkupan, 18:00etan.*

Aretxabaleta Tonbola

Ixotu taldeak antolatuta tonbola egingo dute. *Durana kalea, 16:30ean.*

Oñati 'Egun zoragarriak' antzezlan

Pabellon 6 gazte konpainiaren antzezlan, herritar guztiendako. Debalde da, baina gonbidapena hartu behar da. *Santa Anan, 19:00etan.*

Bergara 'Euskaraz bizitzeko, euskararen errepublika' hitzaldia

EHEko Intza Gurrutxagak, gazte euskaltzale Maialen Arteagak eta Alex Arteaga musikariak egingo dute berba. Ondoren, luntxa. *Arrano tabernan, 19:00etan.*

EGUAZTENA, 4**Antzuola 'Feminismoa eta euskara' hitzaldia**

Euskalgintzako Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabelek eta *Jakin* aldizkari zuzendari Lorea Agirrek egingo dute berba. *Olaranen, 18:00etan.*

Arrasate 'Azken portuko postdatak' liburua aurkezpena

Asel Luzarragak eta John Anduezak elkarren artean idatzitako liburua aurkeztuko dute, Goienako kazetari Aitziber Aranburuzabalak gidatuta. *Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan.*

EGUENA, 5**Aretxabaleta Euskararen Eguneko ospakizuna**

Loramendi euskara elkarte kideek, txalapartariak eta bertsolariak lagun hartuta, egunerako prestatutako adierazpena irakurriko dute, eta, bukatzeko, txokolatea banatuko diete elkartutako guztiei. *Udaletxe zaharrean, 18:00etan.*

Ausolan.



BEHI-ALDE



ERKOP

EUSKARA GURE BIDEA DELA,
ELKARREKIN AURRERA



BARRENETXE
bertoko barazkiak



MIBA

Abenduak 3.
Euskararen Nazioarteko Eguna



Zu zeu izan Kutxabanken ere,
bizi euskaraz.

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.

Kutxabanken Hizkuntza Politika
ikusi hemen: www.kutxabank.eus



"Menopausian beldur asko sortu ohi dira"

MIREIA ALBERDI NUTRIZIONISTA

Bergaran eta Arrasaten egin ostean, menopausiaren eta elikaduraren gaineko tailerra hasi du Alberdik Elgetan. Gustura irten ziren parte-hartzaileak lehenengo saiotik

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Menopausiarekin lotutako lau gako eman digu Mireia Alberdik (Bergara, 1973) Elgetan: elikadura, kirola, atsedena eta bizitza soziala. Galdera asko sortu dira.

Nola sumatzen dituzu ikastaroetara bertaraten diren emakumeak?

Informazioa badago, baina Elgetan ere entzun dudana da kasu konkretuetan emakumeek ez dakitela nora jo. Emaginek izan beharko lukete gure erreferentzia, eta uste dut une honetan Osakidetza ez dagoela horretan. Bergaran, esaterako, ikastaroak antolatu dituzte, baina 08:00etarako. Nor joan daiteke? Trantsitu guztiak, bestetik, ez dira berdinak: emakume bakoitzak berea egingo du. Uste dut gauza horiek gaztetatik ezagutu behar direla. Gutxieneko nozio batzuk ezagutzea oso garrantzitsua da. **Aipatu duzu menopausia bigarren nerabezaro bat dela; zergatik?**

Hormonei dagokienez aldaketa handiak daude, eta aldaketa oso sakonak dira. Askotan, ezinegon handia sortzen da. Antzekotasunak badaude, eta, nerabezaroan moduan, menopausian ere beldurrak sortzen dira.

Gehiago hitz egin beharko litzateke menopausiari buruz?

Oraintxe hasi gara menopausiari buruz apur bat berba egiten,



Mireia Alberdi, eguaztenean, Elgetan. L.Z.L.

"INFORMAZIOA BADAGO, BAINA KASU KONKRETUETAN EMAKUMEK EZ DUTE JAKITEN NORA JO"

baina zenbatetan hitz egiten dugu sentitzen dugunari buruz? Elgetan irten da libidoaren jaitzieraren gaia. Poliki-poliki joan beharko dugu halakoak normalizatzen. Trantsituak errazagoak izango lirateke.

Parte hartzaileei esan diezu euren denbora defendatzeko.

Emakumeak menopausiara helitzen garenean gertatu ohi zaigu pilatzen zaizkigula gauza asko: nerabezaroan dauden seme-alabak, gurasoak gainbeheran hasten dira, lana, etxea... Eta ondorioa da guretako denbora barik gelditzen garela. Bai, animatu ditut ardurak banatzera eta norberarendako denbora defendatzera. Kirola egiteko, atsedean hartzeko, ondo elikatzeko, sumatzen ditugun aldaketei arreta jartzeko...

Dozena bat emakume tailerlean

Udaleko Gizarte Ongizate Sailak antolatu du tailerra eta eguaztenean egin zuten hiru saiotik lehenengoa. Beste biak datozen bi eguaztenean izango dira. Dozena bat emakume eman dute izena. Datorren eguaztenean, elikagai-gehigarrien inguruan egingo dute berba; eta azkena praktikoa izango da, menu ereduak prestatuko dituzte eta.



Eguaztenean Elgetan egindako saioa. L.Z.L.

Argazkia eta afaria egingo ditu gaur Movember Elgeta taldeak

Kamiseta salmenta eta bibote politenaren izendapena ere iragarri dituzte; 18:00etan hasiko dira ekintzak

L.Z.L. ELGETA

Elgetan ere bada azaroan bibotea uzteko erabakia hartzen duenik. Aurtengo nobedadea da taldea osatu dutela eta, logoa ateratzeaz gainera, kamiseten salmenta (18:00), biboterik politenaren izendapena eta talde argazki ofiziala (18:30), poteoa musikatua (19:00) eta Ozkarbi elkartearen egitekoa den lagunarteko afaria (21:00) antolatu dituztela. Kamiseten salmenta Ozkarbiaren egingo dute. Hortik aurrerakoak "inprobisatzen" joango direla azaldu dute.

Lagunartean sortutako dinamika da, baina deialdi irekia egin dute. "Azken unean animatzen direnendako ordeko biboteak egongo dira; betiere, hurrengo urtean bibotea ez kentzeko konpromisoa hartzen badute", dio taldeko Mikel Litagok.

Movemberren helburua gizonen osasun arazoei agerikotasuna ematea da; tartean, prostatak minbiziari, barrabiletako minbiziari eta osasun mentalari. Gaia jorratzen duten elkarteei ematen dizkiete lortutako irabaziak.

Goibekok gaur banatuko ditu Errigora saskiak

"Iaz, hamabi saski eskatu ziren Elgetatik; aurten, hamabost. Hau da, Euskal Herrian banatuko diren 16.000 saskietatik hamabost", azaldu dute Goibekokok. "Elgetatik ere jarri da aletxo Nafarroako euskalgintzaren hainbat eragileri laguntzeko. Tartean: AEK, ikastolen elkartea, Agerraldia eta Sortzen. Guztira, 230.000 eurotik gora doaz Nafarroara".

Agerreko euskalgintzakoek adierazi dute saskien bidez bidalitako inoizko ekarpenik handiena jasoko dutela aurten. Esker ona adierazi dute.

Saskia eskatu duten elgetarrek gaur jaso dezakete, Ozkarbi elkartearen, 18:30etik 20:00etara.

'Han egon zen' liburua aurkeztuko du Mikel Zubimendik

Han egon zen. Jose Luis Elkorok, bizitza bete bat liburua aurkeztuko du kazetari bergararrak Elkororen jaioterrian, Elgetan. Gaur izango da ekitaldia, udaletxean, 18:00etan.

Elkororekin luze jardun ostean idatzi du liburua Zubimendik. "Haren biziari buruz egiten du Euskal Herriak bizi izandako une esanguratsu askorekin: ikurrinaren legeztapena, Alkateen Mugimendua, lantegien euskalduntzea, Xibertako eta Zuricheko bake-negoiazioak, *Egin* egunkariaren sorrera eta itxiera... Jose Luis Elkororen biografiaren bidez Euskal Herriaren historia garaikidea azal daiteke", aurreratu du egileak.

OHARRAK

Jolasak eta boloak

Gaurko, umeendako jokoak (17:30) eta bolo txapelketa (18:30) iragarri ditu Ozkarbi elkarteak. Hiru kategoria izango dira boloetan: 6-12 urte, 13-16 urte eta 17tik gorakoak.

BiblioHotz ipuinak

Gaur, *Azken bisitaria* saioa egingo du Bego Alabazanek, 19:00etan, liburutegian.

ION ANDER CASTRO ZABALA

Era guztietako aulkien konponketa
Zurmezko artikuluen salmenta

TAPIZERIA OROKORREAN

943 78 71 65
639 01 69 69



Bergarako Musika Eskolako ordezkariak eta Bergarako Udaleko Kultura zinegotzi Maite Usabiaga, martitzeneko prentsaurrekoan. TXOMIN MADINA

Eraikinaren egoera larria hobetzeko ekintzak

BMEk "beste diru-iturri batzuen" beharra ikusi du eraikinaren mantentzerako, eta zozketa bat jarriko dute martxan; eta datozen hilabeteetara begira auzolanak egingo dituzte. Bergarako Udalak diruz lagunduko ditu lehen solairuko lau ikasgelen konponketa-lanak

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Bergarako Musika Eskolako eraikinaren egoera larria dela adierazi dute, asteon, eskolaren bueltako komunitateak eta Bergarako musika eta dantza arloko hainbat ordezkariak. "Musika Eskolan sartzea besterik ez dago eraikinaren egoeraz jabetzeko", adierazi zuen BMEko guraso eta erabiltzaile Iker Badiolak. Zerrendatu zituen arazoaren artean daude irisgarritasun falta –hiru solairuko eraikinak ez dauka igogailurik eta eskailerak daude kanpoan eta barruan, eta ez dago komun egokiturik–, isolamendu falta,

temperatura egokia mantentzeko arazoak, teilatuaren zaharkitzea –itoginak– eta egurrezko zoruaren ezegonkortasuna eta zaharkitzea.

Musika Eskolaren izaera irabazi asmorik gabeko elkarte batena dela gaineratu zuen, eta haren aurrekontua sostengatzen duten hiru zutabeak dira erabiltzaileen kuotak, Bergarako Udala eta Eusko Jaurlaritzak. Dena den, Badiolak azpimarratu zuen BMEk "zama gehigarri" bat duela; hau da, eraikinaren mantentzearen ardura, baina egiturazko arazoek "irtenbide garestia" dutela.

Beste diru-iturri batzuk

Lau hamarkadatan konponketa lanak egin dituzte, lehenastun arabera, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Bergarako Udalaren diru-laguntzekin. Baina, etorkizunera begira, eraikinaren egoera dela eta, egongo diren gastuei aurre egiteko eta "Udalaren laguntza mugatua" denez, beste diru-iturri batzuen beharra ikusi dute.

BMEk hartu duen lehenengo erabakia da Gabonetan zozketa bat egitea: "Euro baten truke salduko diren txartelak aterako ditugu, eta salmentarekin lortu-

tako dirua egiturazko konponketa egiteko erabiliko dugu".

Bestalde, "azaleko konponketa bideratze aldera", auzolana jarriko dute martxan ikasturte honetan. Halaber, jakinarazi dute bi ekimen horietaz gain beste zenbait ekintza ere antolatuko dituztela, hala nola musika eta dantzari lotutako emandaldi solidarioak. Hala, herritarren edozein proposamen entzuteko prest daude.

"Musika eta dantza eskolak herriarengana jotzen du laguntza eske, musikaren biziraupena bermatzeko, azken finean, eskolan hezten direlako etorkizuneko musikari, dantzari eta abeslariak. Gaur egun, Bergaran daukagun jario kulturala oso emankorra da; ikusi besterik ez dugu herriko musika taldeetako partaide

IRISGARritasun falta eta zoruaren ezegonkortasuna dira arazoetako batzuk

gehienak bertakoak izan direla. Jario honen jarraipena bermatzeko, baldintza duinak beteko dituen eraikin baten beharra daukagu. Herritarrek ere gonbidatzen ditugu eraikina ikustera", aldarrikatu zuen hitzartzean Badiolak.

Bergarako Udalaren babesa

Maite Usabiaga Bergarako Udaleko zinegotzia ere egon zen prentsaurrekoan, eta, BMEren asmoei babesa adierazteaz gain, gogoratu zuen Udalak BMErekin urtero sinatzen duela hitzarmena hezkuntza plana aurrera ateratzeko. Martitzenean iragarri zuen lehen solairuko lau ikasgelen konponketa lanak Udalak ordainduko dituela. Estimazioen arabera, 30.000-35.000 euroko kostua izango dute. "Egia da orain bide berriak jorratzen hasiko zaretela, eta horrek denbora eskatuko dizue. Aztertu beharko dira ondo eta horren baitan erabakiak hartu. Udala konprometitzen da orain duzun konponketa hori ordaintzera. Uste dugu garrantzitsua dela kalitatezko hezkuntza bat eskaintzea Udaletik, eta hori zainetzea ere gure ardura da", azaldu zuen Usabiagak.

Eraikinaren lekualdatzeaz zioen Udalak bere jabe goan dituen eraikinak ez liratekeela egokitu eskolaren beharretara.

Jabetza Mariaren Lagundiarena Musika Eskolak erabiltzen duen eraikina Mariaren Lagundiarena da. 1987. urtean, Mariaren Lagundiak "denbora mugagabek" eraikinaren lagapena egin zion, utzitako lokala musikarako erabilpen baldintzarekin eta lagapen-hartzaileak "bere kontura eta higiezinaren onurarako konponketa eta egokitzapen obrak" eginda.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Solasaldia, hitzaldia eta kalejira, Euskararen Eguna ospatzeko

Gaur da azken eguna Bergarako Udalak antolatu duen euskararen bizipenak jasotzeko solasaldian izena emateko

I.A.A. BERGARA

Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan hainbat ekintza egingo dira abenduaren 3an Bergaran. Batetik, Udalak, Eus-

kararen Historia Soziala jasotzeko egitasmoaren barruan, euskararen inguruko bizipenak jasotzeko saio bat egingo du. 1950-1980 urte bitarteko bizipenak

jaso nahi dituzte. Ekitaldia udaltekiko osoko bilkuren aretoan izango da, 17:00etatik 19:00etara. Gaur da izena emateko azken eguna, eta joan nahi dutenek 943 77 91 29 (Euskara Zerbitzua) telefonora deitu behar dute.

Halaber, abenduaren 7an Durangon egingo den euskararen aldeko manifestazioari begira hitzaldia antolatu du Bergarako Euskal Herrian Euskaraz taldeak, Arrano tabernan, 19:00etan. He-

rriko musikari Alex Arteagak, EHEko bozeramaile Intza Gurrutxagak eta Maialen Arteaga kazetariak hartuko dute parte.

Era berean, Aranzadi ikastolako ikasleek kalejira egingo dute, 10:45ean hasita. Seminarixotik hasi eta Herrilagunak, Irala, Barrenkalea, San Martin Agirre plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili eta Ibargarai kaleak zeharkatuko dituzte, eta Seminarixora bueltatuko dira.

Garraioari buruzko galdetegia zabaldu du Angiozarko Batzarrak

Angiozar Bailarako Batzarrak galdetegi bat jarri du herritarren eskura, bailarako garraioaren berri jakin eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Bergarako Udalari eskaerak egiteko. Galdetegia bailaran bizi diren 300 lagunendako eta bertan lan egiten dutenendako da. Abenduaren 2ra arte erantzun daiteke. Galdetegia: <https://labur.eus/UXQHR>.

Euskararen Eguneako adierazpena onartu dute

Gai-zerrendatik kanpo, UEMAk abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunerako egindako adierazpen proposamena onartu zuen Bergarako udalbatzak, EH Bilduren aldeko bederatzi eta EAJren bost botoekin; Alderdi Sozialista abstenitu egin zen

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Hamaika puntu zituen asteleheneko ohiko osoko bilkurari gai-zerrendatik kanpo gehitu zitzaion UEMAk abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunerako egindako adierazpen proposamena, eta onartu egin zen, EH Bilduren aldeko 9 botoekin eta EAJren aldeko bostekin. Alderdi Sozialista abstenitu egin zen.

Adierazpen proposamenean jasotzen da, besteak beste, euskararen arloan "jauzi sendoak" emateko garaia iritsi dela, eta, "bi hizkuntza hegemonikorekin talka egoeran dagoen hizkuntza gutxitua izanik, aldeko hizkuntza politikak egin beharra ezinbestekoa" dela euskarari eusteko. Datuak jasotzeaz gain, euskararen aurkako oldarraldiak ere salatzen ditu: "Horri guztia-ri aurre egiteko, inoiz baino gehiago, euskararen aldeko neurriei tinko heldu behar diegu, eta jauzi handi bat eman norabide egokian".

Udal Gobernuak bozeramaile Maite Usabiagak zioen bat egin dutela Europako Hizkuntza Gutxituen Sareak eta Euskalgintzako Kontseiluak "euskara larritasun linguistikoko egoeran zegoela" dioen adierazpenekin. Nabarmendu zuen hizkuntzaren aldeko politikak egin behar direla: "Entzuten ari gara euskara bidegurutzetara heldu dela eta arreta berezia eman behar diegula egiturazkoak diren arazoak, eta hizkuntzaren aldeko politikak egin".

EAJko ordezkari Mikel Letek balioa eman zien euskararen arloan orain arte emandako pausoei, eta azpimarratu zuen hizkuntza handiagoei aldetik erasoak nahiz gorabeherak izan, administrazioek, eragileek eta herritarrek elkarlanean jarraitu behar dutela lanean euskara indartzen eta egoera hobetzen.

PSE-EEren abstentzioari dagokionez, adierazpenak jasotako



Asteleheneko osoko bilkura. I.A.A.

BERGARA ETA SORALUZE ARTEKO BIDEGORRI ZATIA GFA-RI EMATEA ONARTU ZEN

gehiengoarekin ados zegoen Alonso, baina zioen ezin direla gaiak "nahastu", oldarraldi judizialaren gaiari erreferentzia eginez: "Gauza bat da euskararen bideak nolakoa bidea izan behar duen, eta bestea da epaileek egiten dutena; hori da eskubide laboralak defendatzea".

A25eko adierazpena

Astelehena Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna izanik, A25eko adierazpena onartu zuen udalbatzak, aho batez, eta Usabiagak azpimarratu zuen "ukatzailleak diren diskurtsoen irakurketa kritikoa" egin eta salatzaren direla adierazpenean: "Feminismotik aurrerapausoak ematen goazen heinean, agertzen dira gainditu behar ditugun beste harresi batzuk. Datuak hor daude, eta erakusten dute egiturako arazoa daukagula.

Gure aldetik, garrantzitsua da tinko agertzea mezu horien kontra, eta salatzea".

Alderdi jeltzaleak nabarmendu zuen administrazio aldetik badagoela zeregina, eta adierazi zuen talde feministarekin eta herritarrekin instituzioek berdintasun arloan asko daukatela hobetzeko.

Bidegorria eta eskertzak

Bestalde, Bergara eta Soraluez arteko bidegorri zatia 50 urterako Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea onartu zen, aho batez. Lau kilometro inguruko bidegorri zatia da.

Alkatearen jakinarazpenetan, Gorka Artolak eskerrak eman zizkien Valentziako hondamendiaren ostean euren iniziatibaz mobilizatu ziren herritarrei, baliabideak biltzeko bideak sortu eta hara joateagatik.

Beste puntuetako bat izan zen herritar batek Laboratoriumi egindako Seminarioko egurrezko idazmahaiaren eta zigiluaren dohaintza. Eskerrak eman zizkion Udal Gobernuak herritarrei, eta bergararrak animatu zituen dohaintzak egitera, halako objektuak herriaren eskura jartzeko.

Bergarako 24 odol-emaile omenduko dituzte zapatuan

San Joxepeko Arin Gunean 13:30ean egingo diete aitortza 25, 40, 50 eta 75 odol-ateratze egin dituztenei

I.A.A. BERGARA

Bergarako odol-emaile elkarteak odol gehien eman duten bergarar emaileak omenduko ditu bihar, San Joxepe elkarte Arin Gunean, 13:30ean. 24 izango dira dominak eta opariak jasoko dituztenak, eta 25, 40, 50 eta 75 odol-emate tarteetan banatu dituzte omenduak.

Elkartetik aurreratu dutenez, iaiz 1.014 lagunek egin zuten odol dohaintza gutxienez behin Bergaran; 513 emakumek eta 501 gizonetok. Dena den, odol-emaile aktiboak, jarraikortasuna izan

dutenak, 617 izan dira; 310 emakume eta 307 gizonetok.

Hamabostean behin egiten dira odol-ateratzeak, Arin Gunean, 16:30etik 20:15era, eta hurrengo hitzordua abenduaren 11n izango da. Urtean zehar birritan egiten dituzte ateratzeak Mariaren Lagundian eta Miguel Altunan.

Datorren urteko erronkei dagokionez, adierazi dute urtarrietik aurrera www.gotatanta.eus atarian hartu ahalko dela odola ateratzeko hitzordua, eta, era berean, asmoa dutela sare sozialetan presentzia izateko.



BEDELKAR

Bedelkartxo, maskota berria

Bedelkarrek Bedelkartxo izeneko maskota berria izango du gaurtik aurrera. Mikel Aginagalde bergararra da egilea eta eskua irudikatzen du. Adierazi duenez, merkataritzaren muina den "elkartruke" eta "eskutik-eskura" gertutasunarekin bat egiten du; baita eskuekin lan egitea, eskua ematea, agurtzea edota eskuzabaltasuna.

OHARRAK

Trafiko mozketak

Fraiskozuri kalea itxita egongo da ibilgailuendako bi noranzkoetan gaur, 17:00ak arte, frontoiko lanak direla eta.

Movember Gararen azken ekintzak

Elgoibarko Brilet taldeak kontzertua emango du Ventin gaur, 18:30ean. Bihar, 11:30etik aurrera, mendi buelta, bazkaria eta bibote mozketak egingo dituzte.

Bertako zuhaitzen landaketa domekan

Kukubasok antolatuta, bertako zuhaitzen landaketa egingo dute San Martzialen. 10:30ean elkartuko dira, San Martzialgo ziburuetan. Izena eman behar da.

"Eskaladaren boomaren isla da rokodromo berria"

MIKEL URIBESALGO ESKALATZAILEA ETA BOULDER TOPAKETAREN ANTOLATZAILEA
Rokodromo berriaren eta eskalada bizitzen ari den loraldiaren ondorioz Labegaraietan mugimendu handia dagoela dio Uribesalgok, eta azken topaketa da horren seinale

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Labegaraietako rokodromo maiz erabiltzen duenetako bat da Mikel Uribesalگو (Bergara, 1982). Bergarako eskalatzaileek bi hitzordu bereziki garrantzitsu izan ohi dituzte kanpora begira: jaietan kalean egiten duten Mokoloblock eta urtero egiten duten rokodromoko boulder topaketa. Azken hori azaroaren 23an egin zuten, eta, Uribesalgoren arabera, gero eta jende gehiago dabil rokodromoan.

Diozu bogan dagoela eskalada.

Rokodromoan, behintzat, mugimendu handia dago. Hiru urte pasatu dira rokodromo berria dugunetik, gure baldintzak nabarmen hobetu zirenetik. Eta rokodromo berrituari gehitu behar zaio eskalada bizitzen ari den booma. Lehen, ohiko erabiltzaileak 25 bat lagun ginen, eta, gaur egun, 70 bat izango dira rokodromo maiz erabiltzen dutenak; arratsalde batzuetan, 30 lagun elkartu izan gara aldi berean.

Gustura zaudete rokodromoarekin?

Azpiegitura egokia da zuentzat?

Gustura gaude, bai. Gakoetako bat izan zen Udalarekin batera diseinatu genuela, neurri handi batean, rokodromo berria. Azken finean, azpiegitura erabiliko duten erabiltzaileekin batera egiten bada bidea, emaitza hobeak lortzen dira. Oso ondo geratu da, nahiz eta beti dagoen zer hobetu.

Zer hobetuko zenukete?

Sarreraren kontrola, adibidez. Tabernakoa arduratzen da, eta larregikoa da harentzat; ederra litzateke Udaleko langile bat egon ahal izatea. Bestalde, txalotzekoa izan da Udalak enpresa bat kontratatu izana presak-eta garbitzeko; lehen, auzolanean egiten genuen, baina, orain, lehen baino askoz presa gehiago dira, eta asko eskertu dugu Udala arduratu izana. Ea urtero egin dezaket, presek



Mikel Uribesalگو, Labegaraietako rokodromoan, joan den hilaren 23an. GOIENA

"ESKALATZAILEEKIN BATERA DISEINATU DA AZPIEGITURA, ETA EMAITZAREKIN OSO GUSTURA GAUDE"

erabilera handia dute eta! Garbitu berri dituzte, eta dagoeneko igartzen da jende asko pasatu dela...

Ordutegi aldetik, nahiko?

Egunero dago zabalik, asteleheneetik domekara. Ordutegi aldetik ez gaude askorik kexatzeko moduan, baina aste barruan 13:00etatik 16:00etara itxi egiten da eta eskalatzaile batzuek eskatzen digute ea posible izango litzatekeen asteburuetan bezala ordutegi jarraitua izatea. Udalean esan digute ezetz, baina erabiltzaileek eskatzen jarraitzen dute, egia esan. Hala ere, kontziente gara udal bati askoz gehiagorik ezin diogula eskatu; badaude pribatuak diren rokodromoak, baina dirutza bat eragingo luke. **Boulder topaketa egin zenuten hilaren 23an; zer moduz joan zen?**

Oso ondo. Kanpora begira, bi hitzordu garrantzitsu izaten

ditugu urtean: batetik, jaietako Mokoloblock edo street boulderra; eta, bestetik, udazken edo negu partean egiten duten boulder topaketa. Izan ere, orain da rokodromoan jende gehien dabilen sasoi, eta garrantzitsua da; tarteka, erabiltzaile gehiegi ere elkartzen gara, baina gustura gabiltza.

Topaketa bat zen, baina txapelketa txiki bat ere antolatu zenuten...

Saltsa apur bat zuen artean, ala?

Garrantzitsuak dira halako topaketak, elkar ezagutu eta elkarri laguntzeko, baina ondo pasatu nahi dugu, eta, horretarako, lehiaketa txiki bat ere antolatu genuen. Oso modu herrikoian, eskalatzaile bakoitza arduratu zen pareta zenbatgarren saiakeran eskalatu zuen zehazten, eta, gero, hiru puntuazio altuenak sailkatu ziren finalerako. Par-taide guztiek eroan zuten kamiseta etxera, eta irabazleak... irabazi izanaren ohorea.

Normalean agertu ohi ez den eskalatzaileak joan zen topaketara?

Rokodromoko erabiltzaileak izan ziren gehienak, Bergarakoak. Hala ere, etorri zen Arrasatekoren bat edo beste, baina ia denak ginen ezagunak.



NIRE USTEZ

MAMADOU SARR

Erregularizazioa guztiontzat

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13. artikulua dio pertsona orok duela askatasunez zirkulatzeko eta estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzeko eskubidea. Hala ere, estatuek eskubide horri mugak ezartzen dizkiote.

Azken egun hauetan komunikabide guztiak ari dira Espainiako Gobernuak onartu berri duen azken neurriaz. Datorren hiru urteetan 900.000 migranteri erregularizazioa lortzeko baldintzak erraztuko zaizkie. Berri pozgarria bada ere, oraindik zalantzak sorrarazten dizkit. Lege berriak lan bilaketarako bisa aukera eskaintzen du, baita familia-elkartean onurak ere. Baina Senegalen kontsuletxearen menpe dagoen agentzian bisa edo familia-elkartzea eskaera egiteko txanda lortzea ia ezinezkoa da. Gainera, urtero milaka bisa eskaera ukatzen dituzte. Gizarte errotze bitartez lortzeko epea hiru urtetik bira murriztuko da, eta horrek oraindik egoera irregularrean dauden pertsonak abusuen aurrean babes gabe uzten jarraituko du. Erraz ditzatela guztiz erregularizatorako bideak, herritar guztien eskubideak bermatuak izateko ezinbesteko pausoa baita.

Bergara Oinez: atzoko saioaren ostean, abenduan azkena

Helduen osasuna zaintzea eta herritarren arteko harremanak sustatzea helburu duen Bergara Oinez ekimenaren urteko hamaugarren saioa egin zuten atzo. Hurrengo irteera urteko azkena izango da, abenduaren 12an; 10:00etan elkartuko dira, Agorrosinen. Komeni da hiru egun aurretik izena ematea Agorrosinen edo San Joxepe elkartearen.

Honako hauek dira 2024ko Bergara Oinez ekimena antolatu duten eragileak: Jardun, Pol-Pol, Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia, San Martin Ikastetxea, Osasun Publikoa, Duintasuna, San Joxepe, BPXport, ASPACE, Bergarako anbulatorioa, Goye-neche fundazioa eta Udala.

2025eko urtarriletik martxora arteko ur jarduerak umeentzat

Umeei zuzendutako ur jardueretan izena emateko aukera ireki dute asteon Agorrosin kiroldegian (943 77 70 95 edo agorrosin@bergara.eus). 2025eko urtarriletik martxora arte askotariko jarduerak antolatu dituzte, eta izena eman ahalgo da abenduaren 16ra arte. Behin-behineko zerrendak abenduaren 19an jakinaraziko dituzte, eta, akatsak zuzendu ostean, zozketa egin eta behin betiko zerrenda argitaratuko dute, abenduaren 19an. Gero, plaza libreak betetzeko epea abenduaren 19tik urtarrilaren 4ra artekoa izango da, eta ikastaroak urtarrilaren 11n hasiko dira. Zozketan abonatuak izango dute lehentasuna.

Futbola: gizonetzkoen lehen taldea, lider bihurtzeko lehian

BKEko futbol saileko Ohorezko Erregional Mailako gizonetzkoen lehen taldea bigarren da orain sailkapenean, lider doan Zarautz taldearekin puntuetan berdinduta (23). Joan den asteburuan, Deusto gaintu zuten Agorrosinen (2-0), eta, asteburu honetan, laugarren sailkatua den Añorgaren aurka jokatu dute (zapatua, 19:00). Horrez gain, gazte

mailako Nazional Mailako taldeak sailkapeneko beheko postuetatik irteteko lehian jarraituko du, asteburuan Agorrosinen Indartsu taldea menderatzen badu (zapatua, 16:30).

Bestalde, BKEko ordezkariak gogora ekarri dute Gabonetako kanpaina martxan dutela. Kamisetak, txandalak, jertseak, motxilak eta bestelako materiala jarri dituzte salgai; eskaerak www.bergarakodenda.com atarian egin behar dira. Interesdunei eskatu diete eskaerak garaiak egiteko.

Erromatar garaiko aldare eta hilarrietan arakatzen

Juan Martin Elexpuru idazle bergararrak 'Euskarazko izenak erromatar garaiko aldare eta hilarrietan' izeneko liburua kaleratu berri du, Nabarralderekin; euskararen historian sakontzera datorren lana. Salgai dago, 20 eurotan, eta Durangoko Azokan ere egongo da

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA *Euskarazko izenak erromatar garaiko aldare eta hilarrietan* liburua argitaratu berri du Juan Martin Elexpuru (Bergara, 1950). 300 argazki eta hamar mapa jasotzen ditu Nabarralderekin argitaratutako 240 orriko lanak. Salgai dago dagoeneko liburu-dendetan eta eskuragarri izango da, baita ere, Durangoko Azokako Nabarralderen standean.

"Hutsune bat" betetzeko asmoarekin idatzi du liburua Elexpuru: "Gezurra badirudi ere, antzinateko epigrafeen gaia beti erdigunean egon den arren euskararen historiaren azterketan, nik dakidala orain arte ez da argitaratu epigrafe horien bilduma, katalogo, zerrenda edo dena delakorik. Osorik, alegia, argazki eta guzti, lortu daitezkeen neurrian".

Testuingurua eta esanahia

Ibon Serrano eibartarrarena da azaleko ilustrazioa, eta barruko orrietan sakabanatuta dagoen materialaren berri ematen du bergararrak. "Kontaezin ahala dira gaiari buruzko lanak, baina orain arte ez da argazki eta guztiko bilduma-lan handirik argitaratu", dio egileak. Euskarazko izenak daramaten Erromatar garaiko aldare edo hila-

rien berri ematen du Elexpuru. Horietako asko galduta daudela adierazi du idazleak, eta beste asko eraikuntza berriagoetan berrerabili egin direla.

Garona Garaian -Luchon inguruan- aurkitu da pieza gehien; 205 pieza, hain zuzen

EUSKARAZKO IZENA DARAMATEN ALDARE ETA HILARRI ASKO GALDU EGIN DIRELA DIO ELEXPURUK



Juan Martin Elexpuru, kaleratu berri duen liburuarekin. NABARRALDE

ere. Pirinio hegoaldean ere ugari dira, eta azkenaldian Soriako Tierras Altas eskualdeak eman du ezusteko atsegin gehien. Hamabi pieza zenbatu dira Errioxa eta Soria inguruan; sei Aragoi, 23 Nafarroan, eta 15 Araban. Gipuzkoan, Bizkaian eta Zuberoan bana identifikatu dira. Horien guztien berri ematen du Elexpuru kaleratu berri duen liburuan, eta garrantzi handia eskaintzen zaio testuinguru historikoari zein sozialari, eta izenen ustezko esanahiari.



Lamine Thior bakarrizketaria, emanaldi baten. NDANK NDANK

Lamine Thiorrekin barre egiteko eta hausnartzeko gonbita, bihar

Bakarrizketari ezaguna gonbidatu du Nndak Ndank-ek Seminarixora (19:00); sarrera doakoa, aulkiak bete arte

J.B.L. BERGARA

Ndank Ndank elkartearen eskutik, goi mailako bakarrizketa saio batez gozatzeko aukera izango da bihar, hilak 30, Seminarixora (19:00). Jatorri afro-andaluziarra duen Lamine Thior -Senegalen jaio zen- bakarrizketari ezaguna gonbidatu du Ndank Ndank-ek, elkarbitza eta elkartasun programaren barruan antolatzen ari diren ekitaldien artean. "Arrazakeriaren bueltako gaien inguruan hausnarketa eragin nahi dugu, eta umorea tresna eraginkorra izan daiteke horretarako. Lami-

ne Thiorren esperientzia eta bizipenek publikoari beste errealitate bat ezagutzeko aukera emango diotela uste dugu, eta, horrez gain, herriko kultura eskaintza pluralagoa egiteko modu bat ere bada", dio Ndank Ndank-ko Eli Dominguezek.

Sarrera doan, bete arte

Izan ere, Thiorrek aurreiritzi arrazisten aurkako kritika zorrotza egiten du. Espainiako aretoetan arrakasta handia ari da izaten gaur egun. Doakoa izango da sarrera; betiere, edukiera bete arte.

'Azken galdera amari' liburua aurkeztuko dute etzi, gaztetxean

Kartzela zaharreko Irakurketa Taldeak (KIT) gonbidatuta, Manex Beristainen *Azken galdera amari* liburuaren aurkezpena eta ipuin kontaketa musikatua izango dira domekan, abenduak 1, kartzela zaharrean (17:00). Beristainek heriotza du hizpide liburuan, eta haren bizipenetatik abiatuta egin izan du berba orain arteko aurkezpenetan; doluaz, minbiziaz eta bestelakoez egingo du berba Beristainek: "Umeei garbi hitz egin behar zaie heriotzaren inguruan". Helduendako eta 5 urtetik gorako umeei dago zuzenduta domekako aurkezpena, eta antolatzaileek eskatu dute umeak heldu batekin lagunduta joateko.

Diskoa aurkeztuko dute gaur Amustei eta Bidelapurak taldeek

Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenaren barruan, kontzertua izango da gaur, hilak 29, kartzela zaharrean (22:30). Amustei eta Bidelapurak taldeak igoko dira oholtzara, Bergaran oso errotuak dauden bi talde, eta biak datoz kaleratu berri duten diskoa aurkeztera. Amusteik hamar abestiz osatutako *Amustei II* diskoa argitaratu zuen irail bukaeran eta Ander Solozabalek eta Ekaitz Aranberrik gidatzen duten Bidelapurak taldea, ordea, hamabi kantu berriekin dator; *Inorenak ez diren lurretan* da diskoaren izenburua, azaro hasieran kaleratu zutena. Sarrera zortzi euro ordaindu beharko da.

Irulegiko Eskuaren gaineko eranskina

Juan Martin Elexpuru kaleratu berri duen liburuan badago aldareez eta hilarriez harago doan bestelako lanketarik ere. Izan ere, Irulegiko Eskuari eskaini dizkio idazle eta filologo bergararrak azken 39 orriak. Irulegiko Eskuaren inguruan sorturiko azken "nahasteari" begira du izenburua. "Adituek testuaren irakurketa eta interpretazio ustez fidagarria

eman zuten aurkezpen egunean, baina handik urtebetera hasierako bertsioa aldatzera zetozen bederatzi artikulua argitaratu ziren *Fontes* aldizkarian. Artikulugileak aurkezpeneko adituak ziren, EHUKo hainbat kidez eta iberista ezagunez lagunduta". Elexpuru hasierako baieztapenak aztertu ditu, eta geroko zuzenketak ere bai, eta ondorio nagusi batera

heltzen da: "Gauzak nahastea besterik ez dutela lortu".

Aurkezpena abenduaren 3an

Liburua 20 eurotan dago salgai, liburu-dendetan. Hala ere, Elexpuru Azpeitiko Azoka plazako lehen solairuan egingo du lehen aurkezpena, abenduaren 3an, 19:00etan hasita. Esandako moduan, Durangoko Azokan ere erosteko aukera egongo da, Nabarralderen standean.



Abenduan egingo diren jardunaldien berri ematen, martitzen iluntzean, zinema-aretoan elkartutako herritar taldea. O.E.G.

Elikadura Mahaia sortzeko bidea hasi dute

Oñatiko Elikadura Mahaia sortu gura du herritar talde batek, eta gaiari buruzko jardunaldi irekiak antolatu ditu abendurako. Elikadurari buruzko interesa edo kezka duten herritarrak gonbidatu gura dituzte proiektura batzeko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatiko Elikadura Mahaia sortzeko ekimena jarri du martxan herritar talde batek, eta horren berri emateko prentsa agerraldia egin dute astean. Abendurako antolatu dituzten jardunaldien jakinarazpena ere egin dute, eta ekimenera batzeko gonbidapena egin diete gaiarekin bat egiten duten herritarrei.

Herritarrak batzeko deia

Elikadurak duen garrantzia mahai gainean jarri eta tokiko elikadura jasangarriaren erronkari heltzeko beharra ikusita hasi da gaia lantzen herritar talde bat. "Erronka honek badi-tu hainbat erronka bere barruan. Guztiak dira garrantzitsuak. Tokikoa izatea, agroekologikoa, osasuntsua, duina, kontzientziaz landurikoa, iraunkorra... Esan moduan, askotarikoak dira erronkak, eta garrantzitsua da horiek guztiak mahai gaineratzea. Gure aletxoak jarri gura dugu horretan. Hausnarketa eta erronka horie-

kin batu gara hainbat herritar azken hilabeteetan, Oñatiko Udalaren bide-laguntzarekin. Eta, orain, uste dugu urrats berria egiteko unea dela, hausnartzeko gaiak herriratzekoa, sentsibilizazioan eragitekoa, sare-tzekoa, zerbait sortzekoa...", azaldu zuten martitzen iluntzean zinema-aretoan egindako agerraldian.

Proiektu hori martxan jartzeko egin gura duten bide horretan, elikaduraren inguruko jardunaldiak antolatu dituzte abendurako, eta zinema-aretoan izango diren ekitaldi ireki horiek aprobetxatu gura dituzte gaia erdigunean jartzeko eta herritarren artean ere euren proiektua zabaltzen hasteko. "Herrian badaude elikaduraren inguruko kezkak dituzten bizilagunak, erpin asko dituen gaia da eta. Jardunaldiak interesgarriak izan daitezke herritar horiek erakartzeko eta adierazteko Elikadura Mahaia sortzera goazela eta proiektu honetan ondoan

nahi ditugula", azaldu du, aurkezpenaren ostean, sortu berria den elikadura taldeko kide Aitzol Gandiaga Congetek.

Urte osoko prozesua

Oñatiko Elikadura Mahaia sortzea da abiapuntua, eta oraindik ezin dute zehaztu proiektuak hartuko duen forma zein den. "Badaude honen inguruko ereduak inguruko herrietan, Bergaran, adibidez, baina hau sortze prozesu bat da. Ez dakigu zer izango den gero, sorrera bakarrik da. Pentsatzen dugu urte osoa iraungo duela proiektuak, sortuko den Elikadura Mahaia hori egonkortzeko bakarrik bada ere, baina oraindik taldeak zein dinamika hartuko duen ezin dugu esan. Urtarrilean

2025. URTEAN ZEHAR EGINGO DUTE OÑATIKO ELIKADURA MAHAIAREN LANKETA, TALDEAN

Abenduan egingo diren jardunaldiak

ABENDUAK 11

• **Agroekologia eta etxeko ortua.** Jakoba Ereondo Saltsamendi agronomo eta paisajista.

ABENDUAK 17

• **Kapazak al gara garaian garaiko elikagaiekin bizitzeko? Garaian garaikoaren garrantzia eta trantsiziorako alternatibak.** Amaia Diaz de Monasterioguren Osinaga eta Andrea Larea Garcia dietista eta nutrizionistak.

ABENDUAK 18

• **Tokiko elikadura jasangarria. Etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Narbaiza Irizar (Ereindajan kooperatiba), Asier Garai Zabaleta (Eskubaratz ekoizpen proiektua) eta Agus Otxoa-Aizpurua Calvo (Mauxka jatetxea).

Oharra: Hitzaldi guztiak 18:30ean izango dira, zinema-aretoan.

hasiko gara batzen eta dinamikak berak hartuko du bere martxa. Orain nahi duguna da sortzen hastea", argitu du Gandiagak.

Oñatiko Udalak duela pare bat urte atara zuen ingurumen beka baten bitartez, herriko elikadura sistema aztertu eta hura agroekologiaren bidean indartzeko urrats berriak proposatzeko egindako ikerketaren aurkezpena egin zuten ikerlariak. Egindako lanarekin ateratako ondorioetako lau ziren Elikadura Mahaia sortzea, sentsibilizazioan eragitea, topagune moduko bat egitea eta nekazaritza testei ekitea, eta hori ere izan da proiektu horren aurrekari, tokiko elikadura jasangarriaren erroka lantzearekin batera. Herritarrak batu gura dituzte orain proiektura, eta ideiak bidea eta forma hartu ahala jakinaraziko dute zein puntutan dagoen.

2025eko larreratzeko kanpaina jarri du martxan Udalak

Datorren urtean ganadua herri lurretan larreratzeko eskaera urtea bukatu aurretik egin behar dute abeltzainek, eta, hori gogora ekartzeko eta eskaera gauzatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa jakinarazteko, gutuna bidali die Udalak kanpainen parte hartuko duten 100 ganaduzaleei.

Udaberrian egingo den larreratzeko kanpaina berriari begirako Udalaren oharrak hainbat gai argitzen ditu: larreratzeko tasak eta ganadu jabeek eman beharreko datuak, hazterria eta *tricomonas bovina* deritzon gaitzei aurre egiteko neurriak, auzolana eta ingurumen laguntzak. Abenduaren 20a azken eguna.

Emakume ekonomialarien erakusketa, zabalik

Ekonomia ikusteko hainbat modu eta ezagutza ekonomikoaren eraikuntzan "emakumeek izan duten zeregina ikusarazteko" asmoz, *Ekonomia birplanteatzen duten emakumeak* izeneko erakusketa zabalduko dute abenduaren 2an, Mondragon Unibertsitateak Oñatin duen fakultatean; hango batzorde feministak antolatutakoa da. Erakusketak, ikuspegi feministatik, garai, leku eta diziplina askotariko emakumeek ekonomiari egiten dizkieten ekarpenak jasoko ditu argazkien eta panelen bitartez.

Datorren astean ikusi ahal izango da, abenduaren 2tik 5era bitartean, 10:00etatik 17:00etara, Enpresagintza Fakultate barruan.

Hiru milioi euro jasoko dira unibertsitaterako

Beste dirulaguntza bat helduko da Oñatira, Next Generation funtsetik. Zehazki, 2.996.285 euroko laguntza jasoko du Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatearen fatxada zaharberritzeko eta Turismo Bulegoa han kokatzeko. Bi proiektuak egingo dituzte Aldundiak Europatik jasoko duen diru horrekin.

Monitorizatu egingo dituzte aparkalekuak

Arantzazuko eta Araotzeko aparkalekuak monitorizatu egingo dituzte. Panel batzuk egongo dira, aparkalekuetan tokia dagoen edo ez adieraziko dutenak: Azkoagainen eta Urtiagainen panel bana egongo da, eta semaforo bat Jaturabeko zubian

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatiko Udalak uste du turismoa bultzatzen den besteko lana egin behar direla herrira ekarri ahal dituen kalteak saihesteko ekintzak, eta horren barruan sartzen da Arantzazuko eta Araotzeko aparkalekuak monitorizatze esku artean duen proiektua. Hau da, haraino iritsi aurretik panel batzuk egongo dira, aparkalekuetan tokia dagoen edo ez adieraziko dutenak: Azkoagainen eta Urtiagainen panel bana egongo da, eta semaforo bat Jaturabeko zubian. Helburua, da informazioa garaz adieraztea eta auto pilaketak eta gaizki aparkatutako autoak saihestea.



Udal brigadako langileak Arrikutzeko aparkalekuan lanean. O.E.G.

Neurriak hartzeko saiakera

Ikusita handitzen doala turismoa barrualdera iristeko joera, proiektu hori sor daitezkeen kalteei aurre hartzeko ahalegin bat dela adierazi du Udaleko Turismo batzordeburu Xabier Igartua Loidik: "Araotz gunea bai da azkenaldian gero eta jende gehiago joaten den inguru bat, eta ez dago Arantzazu besteko ondo prestatuta horrenbeste auto sartzeko. Arantzazun bertan ere gertatu izan da ingurua gainezka egotea, eta, askotan, arazo bihurtzen da jendeak ibilgailua bide izkinan aparkatzea. Gertatu daiteke larrialdi egoera batean suhiltzaileak edo anbulantziak ezin pasatu izana".

Sistema monitorizatu horrek Arantzazuko, Arrikutzeko eta Araotzeko aparkalekuetako betetze maila kontrolatuko du. Urtiagaino bidegurutzean eta Arantzazu sarrerako santutxuaren parean zinta magnetikoak jarriko dituzte lurrean, ibilgailuak pasatzen direnean jakiteko aparkalekuan lekuri gelditu den, panel informatiboan bitartez hori adierazteko kanpotik autoan datozen. "Azkoagainen panel bat egongo da, goiko apar-

UDALAK TURISMO JASANGARRIAREN ALDE EGITEKO DUEN KONPROMISOAN SARTZEN DA IDEIA

kalekuen egoera zein den jakiteko. Beteta baldin badaude, gorri jarriko da, eta turistek jakinaraziko zaie beste gunea batera joateko. Urtiagainen ere egongo da panel bat".

Kamerak ere egongo dira

Kamerak ere jarriko dituzte aparkaleku-guneetan eta Araotzeko ostatu inguruan, baina web kameren modukoak izango dira, ez zaintzakoak; hau da, aparkalekuen egoeraren informazio orokorra bistaratuko dute, ez matrikulak irakurri edo bestelako zelatatze helbururik. Udaltzainek ere kamera bidez jarraitu ahal izango dute egoera eta isunak jarriko dituzte semaforo gorriari kasu egin ez eta bide bazterretan ibilgailua aparkatzen dutenei. Aste Santuan, udan, eguraldi ona egiten duen edozein asteburutan eta elurra denean

sortzen diren egoerak hobeto kontrolatzeko izango zaie lagungarri kamera horiek.

Araotzen, lanak hasita

IP21 enpresak egin du Araotzeko eta Arantzazuko aparkalekuen monitorizatzeko sistemaren proiektua. Lanak lizitaziora aterako dira laster, eta datorren udarako, abuzturako edo, amaitzea aurreikusten da. Dena den, Araotzen hasi dira lanak egiten. Argindarra eta Internet sarea falta da aparkaleku pareko gunean, eta Udaleko brigadako langileak dabilta zuloa egiten, Arrikutzeko kobetako sarre-ratik eramango duten argindarra eta sarea sartzeko. Joan den astean hasi ziren lan horiek egiten.

Aparkalekuen monitorizazio lanek 130.000 euroko aurrekontua dute eta Europako Next Generation funtsetik ordainduko da ehuneko ehuneko, turismo jasangarriarako Udalak lortutako dirulaguntza horrekin. Oñatik turismo jasangarriaren alde egiten duela adierazi du Igartuak, eta asmo horien barruan sartzen da datorren urtean zehar egingo duten egitasmo hori.



NIRE USTEZ

RAMON MARTIN

Herria herriak bakarrik salbatzen du

Populismoa erraz eta azkar zabaltzen ari da munduan zehar –gutako askoren harridurarako–, eta herria da erabiltzen duen kontzeptuetako bat; herria zerbait definitua, bakarra eta homogeneoa izango balitz bezala. Jakina, horrek berekin dakar benetako herria zein den eta nolakoa den erabakitzen duen pertsona edo talde politiko bat egotea, herriaren interprete bakarra dena. "Herriak bakarrik salbatzen du herria" da populisten azken asmakizuna. Agian, logikoa, entzundakoa; pozo, pentsatu eta gero.

Historialariek edo XX. mendeko artxiboko dokumentuekin lan egiten dugunok behin eta berriz aurkitzen ditugu ideia simple horren ondorio suntsitzaileak. Gobernuko ordezkari, justiziako agintari edota biolentzia erabiltzen duen baten ahotan herria aipatzen denean, zigorra da ondoan datorrena.

Ez gaitezen engainatzen utzi; ez da herri bakarra, dena anitza da, eta arazoan aurrean ez dago erantzun bakarra. Hortik, politika eta politikarien beharra.

Euskaraldia dinamizatzeko lanposturako deialdia egin dute

Urtarriletik ekainera, egunean lau orduko jarduna izango da; abenduaren 8a aurretik bidali behar da curriculuma

O.E.G. OÑATI


Euskaraldiko herri batzordeak izena eman du Euskaraldian parte hartzeko eta Udalak eta Topaguneak lankidetzaz hitzarmena egingo dute dinamizatzailer bat kontratatzeke. Aste honetan atera da deialdia, eta abenduaren 8a bitartean bidali beharko dituzte curriculumak interesatuek, Lansarean web-gune atariaren bitartez edo jon@topagunea.eus helbidera.

Urtarriletik ekainera, bost hilabeteko kontratua egingo zaio hautatuari, egunean lau orduko

jardunean. Herritarrei eta herriko eragileei Euskaraldia aurkeztea, entitateekin lanketa planifikatzea, *belarriprest* eta *ahobizi* dinamikak aktibatzea, ekimenak garatzea eta antolatzen diren ekintzak koordinatzea izango dira egin beharretako lan batzuk. Era berean, eskatuko zaio, besteak beste, euskara maila egokia izatea, Oñati eta inguruak ezagutzea, kudeatzeko gaitasuna izatea, lanerako autonomia handia erakustea eta euskaltzalea izatea eta euskaltzalea ezagutzea.

Udal egutegia zabalduko du

Olaia Oteroren *Hostoa uretan* lanak irekiko du 2025eko udal egutegia. Haren beste argazki batek, Tomas Igartuaren bik, Xabier Urbinaren eta Oier Yanizen hirunak eta Ibernalo Iparragirrenen, Amaia Igartuaren eta Jaione Zuluetaeren lan banak osatuko dute egutegia. Azaleko argazkia 150 eurorekin saritu dute; gainerako hamabiak, 75na eurorekin.



OLAIA OTERO.

DEL VAL KARENA HENKO TXERRIKUMEAK

Bergarako
Seminarixoa
Azaroak 29
21:30

Chill out gunea

20:00etatik aurrera
San Martin plazan
DJ NAVAJITA SUAREZ

Sarrera arrunta **5 €**

Goiena aplikazioan alta emanda **2 €**

Goiena txartela erakutsita **0 €**

4. kontzertua

ABENDUAK 13

ONDARE

MAIDER MIMI

721-GOGOR GABILTZA

BANANA SHAKE

Finala

URTARRILAK 17



Begarako Udala



GIPUZKOA

Kultura



SEIN

Luzapena, Espazioa, Erakundeak

www.sein.eus

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA



MU haize berrietuekin izango da Iturripen, bihar

SASKIBALOIA Joan den astean Bartzelonan Mataro taldeari 58-80 irabazi ostean, David Peñak lehenengoz zuzenduko du talde morea Iturripen. Gasteiztarrak jokalarien jarrera nabarmendu du, eta adierazi du ez dela emaitzekin itsutzeko momentua

Xabiert Urtzelai Atxa ARRASATE

Carlos Diaz entrenatzaile sevillarrak Ointxe!-n jarraituko ez zuela iragarri ostean, Mondragon Unibertsitateko neskek balio handiko garaipena eskuratu dute asteburuan Bartzelonan (58-80), eta seguruenik gorabeheratsua izan den aste bati amaiera emateko modurik onena izan da. Taldeko entrenatzaile berri David Peñarekin izan da GOIENA –ondoan dago elkarrizketa–, eta Mataron jokatuako partiduez egin du berba: "Hasiera ezin hobea izan genuen. Erritmo oso altuan hasi ginen jokatzeko, sekulako energiarekin; neskek kolpea eman nahi zuten mahai gainean. Egia esan, aurreikusitako baino askoz hobeto ibili ginen defentsan, aste barruan egindako bi lan-saioretan erasoko jokoan jarri genuen eta arreta, eta ez horrenbeste defentsan. Hala, lehenengo laurdenean lortu genuen abantaila ikusgarria izan zen (2-18), eta, gero, abantaila hura kudeatzen saiatu ginen".

Bigarren sailkatua dator

Peña kontziente da zapatuan joan den astekoa baino kontrario gogorragoa izango dutela aurrean, Gironako Geiege Pacisa bigarren dago eta sailkapenean, ligan sei partidu irabazi-



Mataroko kantxan lortutako garaipenaren ostean, talde-argazkian. OINTXE!

ta –hiru garaipen ditu MUK–. "Kontrario gogorra izango da, zalantza barik. Baina espero dudana da joan den astean erakutsitako lanak progresioa izatea, aurrerapausoak ematen joatea. Saskibaloia ausart baten aldeko apustua egin dugu, proposamen berriekin gatoz, eta hori Iturripeko zaleen aurrean erakutsi nahi dugu. Neskek gogotsu daude erakusteko hau dela euren maila, eta uste dut nire erronkak ere hori izan behar duela, kategoria honetan entrenatzeko maila badaukadala".

Bosgarrena mutilendako

Hirugarren FEB mailako MUrendako zapatukoa ligako bosgarren garaipena izan zen (74-69), eta Berrocalen mutilak hirugarren postuan daude sailkapenean. Domekan, atzealdean dagoen Ulaciaren kantxan jokatu dute (18:30).


"Neskek erakutsi duten jarrera eta prestutasuna ezin hobea izan da"

DAVID PEÑA MU-KO ENTRENATZAILEA

Joan den astean geroztik da David Peña (Gasteiz, 1995) LF2 kategoriako Mondragon Unibertsitateko entrenatzaile. Carlos Diaz entrenatzaile sevillarra ordezkatu behar zuela barneratzeko asti barik, talde berriarekin pare bat entrenamendu saio egin eta Bartzelonarako bidea hartu zuen asteburuan. Eta Talenom Boet Mataroren kantxatik ligako hirugarren garaipenarekin itzuli dira moreak (58-80).

Asteburuko garaipenaz galdetu aurretik, nor da David Peña?

Saskibaloia oso lotuta dagoen gasteiztar bat; 18-19 urterekin konturatu nintzen entrenatzaile izan nahi nuela, eta Gasteizko hainbat klubetan taldeak



OINTXE!

koordinatzen ibili naiz urte hauetan. Ointxe!-ko kirol zuzendari Arri-rekin harremana neukan lehendik ere, eta hark proposatu zidan iaz Arrasatera etortzea. Berez banuen Ointxe!-ren filosofiaren berri, eta proiektu erakargarria iruditu zitzaidan; izan ere, klub barruan entrenatzaile gazteak behar zituzten, eta halaxe iritsi nintzen Ointxe!-ra. Aurretik,

harrobian eta gizonezkoen talde nagusiko bigarren entrenatzaile nabilen lanean, eta egun batetik bestera etorri da aldaketa.

Hori da azkar batean txipa aldatu behar izatea...

[Barre] Bai, pentsatzeko tarte handirik barik baiezkoa eman, eta bi entrenamendu saio egin ahal izan nituen neskekin Bartzelonara joan aurretik.

Zerekin egin duzu topo?

Taldea hartu nuenean, entrenatzaile taldearekin berba eginda kontziente nintzen aldaketa dezente egin beharko genituela, hutsetik hastea komeni zela, baina denboraldiarririk egiteko asti barik. Hala ere, lehenengo minututik nesken partetik jaso dudana erantzuna ezin hobea izan da, lanerako prestutasuna erabatekoa izan da eta nahikoa izan da energia positibo apur bat sartzea eta pare bat tekla ukitzen asmatzea oso erantzun ona jasotzeko. Neskek ere erakutsi nahi zuten egoera irauli nahi zutela eta kategoria horretan lehiatzeko kapaz direla.

Halakoetan, aldaketa sakonak egin nahi izateak ere arriskuak izaten ditu...

Bai, baina aldaketen beharra ikusten genuen eta neskek ere horixe jakinarazi digute. Ideia berriak sartzen saiatu gara, eta erlojuaren kontra egin dugu hori.

'HEMEN DEBAGOIENA'

GOIENA TELEBISTA

EGUNERO, 19:30EAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
GAURKOTASUN-GAIK EGUNERO



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



Maila goreneko eskubaloia Zubikoan

ESKUBALOIA Egunotan jokatzeko dabilzan Europako Txapelketak etena ekarri du Guerreras Iberdrola ligara, eta Aloña Mendikoek hutsarte hori baliatu dute puntako bi talde Zubikoara gonbidatzeko, Super Amara Bera Bera eta Zuazo (martitzena, 19:30)

Xabier Urtzelai OÑATI

Datorren martitzenean, abenduak 3, maila goreneko bi talde aurrez aurre izango dira Zubikoan (19:30, sarrera doan). Lurrealdeetako selekzioak Suitzan, Austrian eta Hungarian jokatzeko dabilzan Europako Txapelketan daude, eta horrek etena ekarri du liga nagusietara.

Aloña Mendiko presidente Iñaki Mendarozketak dio ez dela halako lagunarteko bat antolatzen duten lehenengo aldia: "Egia esan behar badut, hasierako asmoa ez zen maila horretako lagunarteko bat Oñatira ekartzeko, Imanol Alvarezekin harremanetan jarri ginenean gure asmoa gehiago zen klubeko entrenatzaileendako ikastaro moduko bat antolatzea". Baina Bera Berako entrenatzaileak bestelako aukerak ere eskaini zizkien, eta halaxe sortu zen Iberdrola ligako euskal taldeen arteko partida antolatzea. Gainera, egutegiaren kapritxoak... Europako Txapelketa amaitu eta liga berriarazten duten momentuan bi talde horiek aurrez aurre izango dira, eta orduan bai, puntu garrantzitsuak izango dituzte jokoan. "Halaxe da; abenduaren 20an Zubikoan izango ditugun bi taldeek elkarren kontra jokatzeko dute Iberdrola ligan,

eta horrek ere interesgarriago egiten du Zubikoako partidua".

Harmailetan giro ona

Oñatiko hitzorduak balioko du bi taldeetako jokalariek ligako erritmoa ez galtzeko, baina ez horrenbeste urte amaierako euskal taldeen arteko partidua prestatzeko; bereziki, Espainiako hautatzaile Ambros Martinek Bera Berako hainbat jokalaririk Lyndie Tchaptchet, Anne Erauskin, Carmen Arroyo eta Elba Alvarez- eraman ditu-eta selekzioarekin; horrek zaildu

egingo du martitzeneko partidutik ondorioak ateratzea. Bistan dagoena da bi taldeen artean jauzi nabarmena dagoela: Bera Berakoak ligan hirugarren dade -zortzi garaipen- eta Barakaldokoek partidu bakarra irabazi dute. Mendarozketak, baina, ikuskizun polita izango dela aurreikusten du: "Ea harmailak betetzen ditugun; aste barruan jokatzeko, akaso, ez da zaleendako egunik aproposena, baina talde horien agenda oso estua da, ez zegoen beste aukerarik".



Bera Berakoak eta Zuazokoak, Zubikoan, 2012an jokatzeko lagunartekoan. GOIENA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Aretxabaleta-Durango
Dom. 16:30. Ibarra.

GAZTEAK MAILA NAZIO.

Bergara-Indartsu
Zap. 16:30. Agorrosin.

O.ERREGIONALA GIZON.

Mondra-Zarautz
Zap. 16:30. Mojategi.

Añorga-Bergara
Zap. 19:00. Añorga.

Mutriku-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. San M.

GORENGO EMAKUM.

Orioko-Mondra
Zap. 16:00. Mendib.

Debagoiena B.-Usurbil
Zap. 17:15. Azkoagain.

GORENGO GIZON.

Aretxabaleta-Eibart.
Dom. 16:30. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Eskoriatza-Tolosala
Dom. 17:30. M.Muñoz.

Lagun Onak-Mondrate
Dom. 18:00. Urreta.

GIPIZKOAKO TXAP.

Antiguo.-Aloña Mendi
Gaur. 21:00. Pio Baroja.

ESKUBALOIA

GIP. SENIORRAK GIZO.

Mek Eibar-Soraluce BE
Zap. 15:30. Eibar.

Egia-Fagor Profes.
Zap. 18:00. Donostia.

Mugarri Ingou-Urola
Dom. 13:00. Iturripe.

GIP. SENIORRAK EMAK.

Zuhegan-M.Lingua Bergara
Zap. 17:30. Orrio.

Oñabike Aloña-Erein.
Zap. 16:00. Zubikoa.

Karibe-Atm. Bergara
Gaur. 20:00. Legazpi.

GAZTEAK NESKAK

Goizper Berg-Saieko
Dom. 13:00. Labegaraie.

Goizper Berg-Saieko
Dom. 13:00. Labegaraie.

SASKIBALOIA

FEB HIRU. MAILA

Ulacia-MU
Dom. 18:30. Zarautz.

EMAKUM. LF2 MAILA

MU-Pacisa
Zap. 18:30. Iturripe.

EUSKADIKO LEHEN M.

Deusto-MU
Zap. 20:15. Bilbao.

EUSKADIKO BIG. MAI.

Bergara Sora.-Ulacia
Dom. 18:30. Labegaraie.

GIP. SENIOR MUTILAK

STL Azku.-Biotz Aloña
Zap. 18:00. Zubikoa.

GIP. SENIOR NESKAK

Bergara-Digitarte
Zap. 16:00. Labegaraie.

Goierrri-Eskoriatza
Zap. 16:00. Urretxu.

MU-Añorga
Dom. 18:00. Iturripe.

PILOTA

ARRASATE

Gaur. 17:30. Sei partidu.

ANTZUOLA

Gaur. 18:00. Hiru partidu. Domekan. 10:30. Bi partidu.

ARETXABALETA

Gaur. 18:00. Sei partidu. Zapatua 17:00. Bi partidu.

OÑATI

Gaur. 18:15. Sei partidu. Zapatua. 16:00. Lau partidu.

FUTBOLA Durangoren bisita izango du Aretxabaletak etzi

Azken asteotan partidurik irabazi ezinda ibili eta gero, Aretxabaletak balio handiko garaipena lortu zuen joan den astean Urdulizen zelaian (2-3), eta Calzonon mutilak laugarren postuan egonkortu dira sailkapenean. Hala, domekan, pattal dabilen Durangoren bisita izango dute Ibarran (16:30). Hori bai, bizkai-

tarrak San Viatorren gainetik pasa ziren joan den astean (6-0).

Ohorezko gizonezkoen Errege Mailan Mondra da etxean jokatzeko duen bakarra, eta lider dauden zarautzarren bisita izango dute Mojategin zapatuan (16:30). Aloña Mendiren kontrario Mutriku zortzigarren dago sailkapenean, eta Bergararen kontrario Añorga laugarren. Emakumezkoetan, berriz, Bergarak lau garaipen daramatza jarraian, eta bigarren dago.



Realaren eta Las Palmasen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Las Palmas norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.
Partidua abenduaren 15ean izango da, 18:30ean.

Parte hartzeko azken eguna: abenduaren 9a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

DANBAKA)))))



Arrasateko Del Val taldeak zabalduko du hirugarren gaua. DEL VAL



Antzuolako eta Hernaniko musikariek osatzen dute Karena boskotea. KARENA



Aretxabaletako Txerrikumeak taldea.



Unai Urkiaren Henko proiektua. HENKO

Leun hasi eta gogortzen eta azkartzen joango da hirugarren kontzertua

Arrasateko Del Val, Antzuolako Karena, Oñatiko Henko eta Aretxabaletako Txerrikumeak taldeak izango dira gaur, egubakoitza, 21:30ean hasita, Seminarixo barruan lehian, eta Bilboko DJ Navajita Suarezek girotuko du chill out gunea

Aitziber Aranburuzabala Juldain BERGARA

Debagoieneko hamasei musika proiektu daude aurtengo Danbaka Musika Lehiaketan lehian, eta dagoeneko zortzi izan dira Seminarixoko taularen gainean aurkezten. Doinu-koktel ederrak dastatu dituzte aurreko bi kontzertu-gauetan aretora joan direnek, eta gaur ere bide beretik joango dela antzematen da. Orain artekoekin alderatuz, leunago hasiko da hirugarren kontzertu-gaua; erpin askotako popa entzungo da lehiaketaren lehenengo zatian, eta erritmo azkaragoak izango dira bigarrenaren metala eta punk-rocka.

Sarrera arrunta bost eurotan erosi ahalko da Seminarixoko leihatilan; Goienakideak doan sartu ahalko dira eta Goienaren aplikazioa deskargatuta dutenek bi euro ordainduko dute.

Popa zentzu zabalean

Ikasketa maila eta helburu ezberdineko musikariak batzea ere bada Danbakaren helburua, eta gaurko kartela da horren adibide. Arrasateko Jon Garcia Del Valek sortutako Del Val proiektuak zabalduko du. Orain dela bi urteko Danbakan hartu zuen parte Arrasatekoak, Erromintxelak taldearekin, baina proiektu berria aurkeztuko du gaur; sintetizadorearekin eta bestelako tresna elektronikoekin sortutako doinuak eskainiko ditu. "Diskoan beat elektronikoak entzun daitezke post-rock errit-

GOIENA TELEBISTAN, 'DANBAKA.EUS'-EN ETA 'GOIENA.EUS'-EN IKUSI AHALKO DIRA KONTZERTUAK

mo tribalekin dantzatzeko, pop ahots finak muturreraino prozesatutakoekin eta post-punka gogorarazten duten baxu progresioak jazz bateria organikoekin. Deseatzen nago ikaskide ohi eta lagunekin Seminarixoan erakusteko", dio Jon Garcia.

Antzuola eta Hernani aldeko musikariak batzen dituen Karena boskoteak hartuko du lekukoa. "Euskal kanten bertsoiak eginez hasi ginen 2022an kontzertuak ematen, eta 2023an proiektu serioagoa abiatzea erabaki genuen. Aurtengo martxoan *Loak irauteko* izeneko

HURRENGOA ABENDUAREN 13AN IZANGO DA, ETA URTARRILAREN 17AN JOKATUKO DA FINALA

estreinako lana kaleratu dugu. Gure helburua Danbakan taldea ezagutaraztea eta beste musikari batzuk ezagutzeko da, bereziki", azaldu dute Karenakoek.

Metaletik punk-rockera

Oñatiko Unai Urkiak sortutako Henko taldea izango da lehiatzen hirugarrena. Urkiak ere badaki Danbakan parte hartzea zer den: orain dela bi urte, Broken Legacy taldearekin izan zen. "Metala da oinarrian, metal-core ukitu batzuekin. Gitarra, baxua, bateria eta ahotsa grabatzen eta hitzak idazten hasi nintzen etxean, eta, zuzenekoa egiteko gogoz, aukera ona iruditu zitzaidan Danbaka, eta lagunei proposatu nien nirekin jotzeko. Hala egingo dugu estreinakoz jendaurrean gaur", dio Urkiak.

Aurreko bi kontzertu-gauen bidetik, punk-rock doinuekin amaituko da gaurkoa, dagoeneko hiru disko argitaratuta dituen Aretxabaletako Txerrikumeak taldeak borobilduta. "Esperientzia berri bat bizitzea da, bereziki, Danbakan dugun helburua, eta, nola ez, ahalik eta gehien gozatzeko", diote Aretxabaletakoek.

Kanpoan, DJ Navajita Suarez

Bilboko DJ Navajita Suarez - Irene Suarez- izango da chill out gunean. "Musikazale amorratuak, besteak beste, reggaea eta early reggae, calypso, rocksteady eta ska doinuak eskainiko ditu", dio Danbakako koordinatzaile Jokin Bereziartuak.

Publikoaren Sariaren sailkapena

- 1 K-PO**
Bergara
Botoen %16,3
- 2 MALKO**
Oñati
Botoen %16,2
- 3 SOTOALDE**
Bergara
Botoen %13,1
- 4 KORDA ROTA**
Arrasate
Botoen %11,9
- 5 KARENA**
Antzuola eta Hernani
Botoen %9,4
- 6 ETEN**
Aretxabaleta
Botoen %8,5
- 7 REBEL NOISE**
Arrasate
Botoen %5
- 8 TXERRIKUMEAK**
Aretxabaleta
Botoen %4,4
- 9 721-GOGOR GABILTZA**
Aretxabaleta
Botoen %3,5
- 10 HENKO**
Oñati
Botoen %3,4
- 11 KTARSIA**
Bergara
Botoen %3
- 12 BANANA SHAKE**
Arrasate
Botoen %2,5
- 13 LOW COST DELUXE**
Bergara
Botoen %2,3
- 14 ONDARE**
Arrasate
Botoen %0,4
- 15 MAIDER MIMI**
Aretxabaleta
Botoen %0,1
- 16 DEL VAL**
Arrasate
Botoen %0,0

BOTOA EMATEKO

Danbaka.eus webgunean edo Goiena.eus webgunearen Danbaka izeneko kanalean eman daiteke botoa, 2025eko urtarrilaren 14ra bitartean.



'Danbakast' bideo podcastak ikusteko, eskaneatu QR kodea telefonoarekin.

Kalean da La Furiaren 'Ultra' bilduma berria

Arrasaten bizi den Cascanteko (Nafarroa) La Furia musikariak bosgarren bilduma argitaratu berri du, formatu fisikoan eta digitalean, Baga Biga ekoiztetxearekin; urtarrilaren 9an, eguena, Bilboko Kafe Antzokian aurkeztuko du

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

Hamar urte bete ditu Nerea Loron Diazen La Furia proiektuak. Amorrutako izena mantendu du, haren identitatearen parte izan delako, eta orain, izena du babesleku.

Bidaia askoren soinua duen eta identitatearen amildegietan dabilen diskoa sortu du: *Ultra*, bosgarrena haren ibilbidean. "Pozik dago" emaitzarekin, eta "egin duen diskorik onena" dela aitortu du.

Zortzi kantuko bilduma

Identitateaz, ez-lekuez, bisexualitateaz, Erriberaz, itotzen duen musikaren industria, desiraz, beldurraz eta bertigoez egiten du berba orain dela egun gutxi argitaratu duen zortzi kantuko sortan; eta, orain arteko lanekin alderatuz, azpimarratzekoa da euskararen presentzia handiagoa duela. Erabaki politikoa izan dela dio: "Euskara betidanik barruan izan dut, eta orain Arrasaten bizi naiz eta asko lagundu dit horrek euskara gertuagotik sentitzen eta parte sentitzen; izugarri eskertuta nago Arrasateko lagunekin".

Musikari dagokionez, badago oraindik ere rapa, baina estilo gehiagori ere lekua egin die



La Furia taldea, zuzeneko batean. IKER GARCIA

bilduma berrian. "Bakalaoa dago, instrumentazio akustikoak daude, pop elektronikoa, reggaetona eta teknoa ere bai".

Aiertekin kantu bat

Orain dela bi urte egin zen Danbakan ezagutu zuten elkar La Furiak eta Aiert Alberdi musikari gazteak, eta harrezkero elkarren sostengu dira une askotan. Horren erakusle, elkarrekin abestu duten *Pobre canción mía* kantua.

Oñatiko musikariak gain, kolaborazio gehiago ere batu ditu:

ODEI artistarekin partekatu du *Erro* kantua eta Rebeke Lane lagun musikariarekin, berriz, *Gasolina* izenekoa.

Zuzenekoak, urtarrilean hasita

Baga Biga ekoiztetxearekin argitaratu du eta Durangoko Azokan ere eskuragarri izango da; han izango da La Furia ere, abenduaren 5etik 7ra bitartean. Urtarrilean hasiko da zuzenean aurkezten eta dagoeneko iragarri du urtarrilaren 9an Bilboko Kafe Antzokian izango dela; sarrerak salgai daude.

DAP Eguna egingo dute bihar, zapatua, Arrasaten eta Oñatin

Arrasateko JAMEn bi antzezlan eskainiko dituzte, goizean, eta Oñatiko Eltzian bazkaria egingo dute gero

A. Aranburuzabala OÑATI

Debagoieneko Antzerki Plataformak (DAP) antolatu duen hirugarren Karoi Debagoieneko Antzerki Jaialdiaren baitan, DAP Eguna antolatu du biharko, zapatua. Oñatiko Eltzia eraiki-

nean elkartuko dira, 14:00etan, elkarrekin bazkalduko dute, eta, antzerkiaren bueltako egun-pasa borobiltzeko, *Inpro-gaua* egingo dute, Egoitz Aizpururen eskutik. Ateak zabalik daude interesa dutenentzako.

Goizerako, baina, beste proposamen bat egin dute DAPekoek: Arrasateko Juan Arzamendi Musika Etxean (JAME) elkartuko dira, 11:00etan, Behatxulo sormen prozesuaren baitan lan-tzen ari diren bi antzezlan aurkezteko: Eider Martiarenak, Nerea Elortzak eta Amaia Santamariak *Atalak* izenekoa egingo dute, 11:30ean hasita, eta, 12:00etako mokadutxoaren ostean, *Amimona* antzeztuko dute Irene Balzategik eta Ane Zabalak, 12:30ean hasita.

Goienakideen txokoa

AZAROKO SARIEN IRABAZLEAK!

ERRIGORAKO SASKIA

Izaskun Igartua Ugarte (Bergara)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Rikardo Ercilla Altuna (Antzuola)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Estitxu Uribeetxebarria Madinabeitia (Aretxabaleta)

Juantxo Etxaniz Elgarresta (Bergara)

Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)

MAULANDA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Iker Beitia Bernaola (Aramaio)

UXARTE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Aitziber Erretolaza Arantzabal (Arrasate)

MONDRAVEMBER JAIALDIRAKO SARRERAK

Alberto Martinez Axpe (Aretxabaleta)

Amaia Bergaretxe Mujika (Arrasate)

ZARZUELARAKO SARRERAK

Miren Gurutze Anduaga Kortabarría (Antzuola)

Iñaki Kortabarría Balanzategi (Arrasate)

Jaione Gandarias Martinez (Arrasate)

REALAREN ETA BETISEN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK

Olaia Balanzategi Ezkurra (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:

Arriratzeko sarrerak, Goiena Klubeko txartela erabiltzita, bina sarrera irabazteko aukerarekin. Sarrerak hiru hilabeteko epean irabazteko daude. ARRIKRUTZ KOBETA, Azarriko sarrera, OÑATI, 943 25 05 00. Oñatiko asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (juenezkoak, hitzordu egiteko). Harreman dendako otarria, Oñateko jasotzeko, jaizuzen, bazkide txartelarekin, Harreman dendara, Arrasateko Croqui harreman dendara. Errigora sarrak jasotzeko, sarrera GOIENAREN egitaraua. Sarrera jasotzeko, DAZKIDEGAREN TXARTELA erabiltzita. DAZKIDEGAREN ZUZENDARI adieraz eman behar da. GOIENA Oñateko Leuzoraduna 31, Arasate, 943 25 05 05. Oñateko asteartetik eguena: 09:00 - 19:00. Eguraldibetean: 09:00 - 14:00.

Realaren eta Las Palmasen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Las Palmas norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuzen eta zuzeneko beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Partida abenduaren 15ean izango da, 18:30ean.

Parte hartzeko azken eguna: abenduaren 9a

Irabazi bi lagunendako otordua

ARANTZAZU JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: abenduak 3.

943 25 05 05 goienakide@goiena.eus 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE Jasotzea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

Ordaindu 2025eko kuota, 65€, eta abantailak DOAN aurten abendura arte. Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasateko Garagartza auzoa. Etxebizitza unifamiliarra saltzen da Arrasateko Garagartza auzoan. Interesatuak deitu mesedez arrasalde an (20:00etatik aurrera). 943 58 42 13.

102. EROSI

Etxea erosiko nuke. Etxebizitza erostea nahi dut Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Berdin zait egoera. Momentuko ordainketa egin dezaket. 623 17 95 37

104. ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Hiru logeladun etxebizitza errentan hartuko genuke. Legezko agiriak ditugu eta lan-kontratu mugagabea. 611 34 50 25 edo 631 19 75 84

3. LOKALAK

301. SALDU

Oñatiko estetik zentrua salgai. Estetikako negozioa saltzen dut erretiroagatik. Oñatiko erdigunean kokatua dago. Deitu mesedez hurengo telefonora: 943 78 01 46

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Arrasateko neska goizetan, haurrak zaintzeko, ikastolara eramateko eta etxeak garbitzeko gertu. 637 22 40 16

Arrasate eta inguruak. Neska euskaldun eta gaztea naiz. Umezain edo hantzeko lanak egingo nituzke. Astelehenerdik igandera, arratsalde, malgutasun osoa. 688 69 53 79 edo 676 13 06 64

Arrasate. Goizetan haurrak zaindu edota eskolara eramateko prest. Neska gazte eta euskalduna naiz. Irakasle ikasketak egiten ari naiz. 633 08 39 16.

Arrasate. Larunbatetan, orduka, garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 612 51 42 99

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatze-lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95

Arrasate. Zaintza lanak egingo nituzke lanaldi erdian. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Esperientzia. Telefonoa: 685 46 91 11

Bergara eta inguruak. Neska euskalduna naiz, haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako gradua eta goi mailako zikloak ditut. Esperientzia daukat haurrak zaintzen. Edozein galdera egiteko deitu edo idatzi lasai asko. Telefonoa: 634 42 85 11

OÑATI

Jatetxeak lanaldi osoko zerbitzaria behar du. Gosari eta bazkariak astelehenerdik larunbatera. 688741818

Debagoiena. 56 urteko neska arduratsua, goizeko 9:00etatik arratsaldeko 16:00etara bitartean pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 689 50 70 54

Debagoiena. Asteburutan zerbitzari lanak egiteko prest dagoen emakume euskalduna. Esperientzia daukat. 650 67 16 91

Debagoiena. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. 653 36 85 80

Debagoiena. Emakume gaztea ostalaritzan, pertsonene zaintzan edota garbiketan lan egiteko gertu. Aste barruan arrasaldean lan egin dezaket. 603 71 72 39

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Telefonoa: 634 02 95 44

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egingo nuke. 632 03 95 68 (Blanca)

Debagoiena. Etxeak, lantegiak, elkarteak eta bestelakoak garbitzeko prest dagoen gizonetako. Esperientzia dut ospitalen eta enpresa industrialen garbiketan. Orduzko aldetik malgutasuna daukat. Gidabaimena eta kotxea ditut. Telefonoa: 645 72 92 87

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko eta beste lan motak egiteko gertu dagoen emakumea. Telefonoa: 631 19 50 43

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke dagoen emakumea naiz. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 651 96 78 69

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Esperientzia eta

soziosanitario titulua ditut, baita legezko agiriak ere. 611 75 39 92

Debagoiena. Gizona pertsona nagusiak zaindu edo hauek pasiatzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, asteburuetan, orduka etxetan edo ospitaletan lan egingo nuke. 614 11 43 60.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Garbiketa lanak ere orduka egiteko prest nago. 642 36 70 42

Debagoiena. Etxeko lanak egiteko, pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 644 19 11 28

Debagoiena. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan edota garbiketa lanetan. 613 58 95 70

Debagoiena. Etxe etxeko zainzaile profesionala, esperientzia duena, karrismatikoa eta arduratsua. Berehalako prestasuna asteburuetan, astegunetan edo orduka lan egiteko. 677 14 64 27

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko eta beste lan motak egiteko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Garbiketa ikastaroa egin dut. 611 24 18 98

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. 662 43 08 54

Debagoiena. Gizon latinoa, arduratsua eta zintzoa, heldu adindua zaintzen edo garbiketa lanak eginen lan bila nabil. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. 645 70 84 95 (Eduard Castaño)

Debagoiena. Gizonetako garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko eta supermerkatuetan lan egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu 617 16 68 44 telefono zenbakira.

Debagoiena. Goizetan orduka lan egingo nuke. 651 96 78 69

Debagoiena. Lan bila nabil ostalaritzan, kafe-tegietan, fabriketan edo adinekoen zaintzan. Hainbat ikastaro ditut ostalaritzan eta sukaldetan aritzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko gertu. Telefonoa: 611 31 93 76 (Raul)

Debagoiena. Lan bila nabil. Hainbat lan egiteko gertu: adinekoak zaindu, garbiketa lanak, animaliak paseatu, erakuntzan, iturgintzan, erremontari lanetan edota soldatzaile gisa. Deitu 625 90 55 45 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska euskalduna, pertsona nagusien zaintzan, egoizetan edota ospitaletan lan egiteko gertu, baita dendarari edo garbiketa lanak egiten ere. Orduka lan egingo nuke. Soziosanitario titulua erekin eta gidabaimenarekin pertsona nagusien zaintzan, egoizariak, orduka, ospitaletan. .garbiketa edo dendetan ere lan egingo nuke. Deitu 656 79 28 37 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita txakurrak pasiatzera ateratzeko ere. Orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 672 96 46 49

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo hauek pasiatzeko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten, asteburuetan, orduka etxetan edo ospitaletan lan egingo nuke. Telefonoa: 643 50 56 62

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Bestelako lanak egiteko prestasuna. Soziosanitario eta garbiketa titulua ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 47 39 37

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketa lanetan aritzeko gertu dagoen emakumea. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke, baita orduka ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 747 48 32 90

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketan lan egingo nuke. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. 623 35 99 03

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edota bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. 632 34 22 25

Debagoiena. Zainketa lanetan, garbiketan edota margolari lanetan aritzeko prest nago. 604 28 78 39

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Esperientzia dut eta soziosanitario ikasketak ditut. Erizaintzako ikasketak eginak ditut nire herrialdean. 643 50 56 62.

Debagoiena. Taberna, etxe edo lantegietan garbiketa lanak egin, pertsona nagusiak zaindu edo beste lanetarako gertu dagoen emakumea. Etxean bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 624 83 95 19

Debagoiena. Zainketa lanetan, garbiketan, erakuntzetan edota margolari lanetan aritzeko prest nago. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 18 53 17

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arrasate eta inguruak. Etxeetan ingeles eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Eskarmentu handia irakasle gisa. Deitu telefono zenbaki honetara: 637 22 40 16

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover Defenderra erosi. Land rover Defenderra behar dut baserri-rako, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matorrua, kolpearekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 623 17 95 37

ZORION AGURRAK



OÑATI
Enara Arrazola Aranburu

Abenduaren 3an, 10 urte. Zorionak, Enara! Segi ametsak egi bihurtzen eta disfrutatu eguna. Patxo haundi bat etxekuan partetik.



ARRASATE-MADRIL
Luka Herrera Yarza

Abenduaren 2an, 2 urte. Zorionak, Luka! Patxo handi bat ama, aita, amama, aitita, Iratxe, Pita eta bereziki Luka eta Nileren partetik.



OÑATI
Iraia Marquez Gomez

Abenduaren 1an, 13 urte. Muass!



ARRASATE
Lihor Gallastegui Yarza

Azaroaren 27an, 8 urte. Zorionak, maitia! Patxo handi bat ama, aita, amama, aitita, Iratxe, Pita eta bereziki Luka eta Nileren partetik.



BERGARA
Ildari Goenaga

Azaroaren 27an, 3 urte. Zorionak! Familia guztiaren partetik, muxu eta besarkada handi bat!



BERGARA
Asier Sanchez Gonzalez

Azaroaren 27an, 8 urte. Zorionak, txapelidun! Segi hain zoriontsu izaten, muxu handi bat zure familiaren partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI
Hodei Benito Aizelai

Azaroaren 27an, 12 urte. Zorionak, Hodei! Ondo ondo pasa zure urtebetetze eguna. Asko Maite zaitugu. Zure familia!



ARRASATE
Xabier Agorria Lumbreras

Azaroaren 26an, 9 urte. Zorionak, Xabier! Ondo pasau zure eguna, muxu haundi bat!



ZORIONTEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *Goiena.eus/zorionagurruk* helbidean sartu.
- Mezua bidali *zorionagurruk@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



ARRASATE
Aimar Hernandez Lopez

Azaroaren 25an, 10 urte. Zorionak, Aimar! Oso ondo pasa zure urtebetetze eguna! besarkada handi bat etxekoan partetik. Maitte zaitugu!

Korosti
Inmobiliaria

Bergara:
Zubiaurre,
80m², 2 logela, miradorea,
igogailua, trastelekua.
150.000€,
negoziagarria

Bergara: Zubiaurre,
72m², 3 logela,
balkoia, trastelekua,
garajea aukeran
115.000€

Bergara:
Zubiaurre,
65m², 2 logela,
eraberituta,
eguzkitua
90.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



BERRI-ZAKUA

**Santi eta Ignacio**

Urriaren 29an, 62 urte bete ziren Santi eta Ignacio ezkondu zirenetik. "Zorionak, familia guztiaren partetik, eta, bereziki, Ainararen, Ireneren eta Lauraren partetik!"

HILDAKOAK

- **Felix Yarza Aguirre.** Antzuolan, azaroaren 23an. 82 urte.
- **Miguel Igartua Barrutia.** Aretxabaletan, azaroaren 22an. 89 urte.
- **Pedro Pagoaga Arriola.** Arrasaten, azaroaren 21ean. 83 urte.
- **Maria Tena Sanchez.** Arrasaten, azaroaren 24an. 81 urte.
- **Simon Madinabeitia Eguren.** Arrasaten, azaroaren 23an. 90 urte.
- **M^a Angeles Uribesalgo Bengoa.** Arrasaten, hilaren 27an. 86 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 29 JAI0: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

Zapatua, 30 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerias 1 / 943 79 15 15

Domeka, 1 JUNCA: Kontzezino 12 / 943 79 79 99

Astelehena, 2 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

Martitzena, 3 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

Eguaztena, 4 SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 7 943 79 09 74

Eguena, 5 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 29 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Zapatua, 30 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Domeka, 1 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Astelehena, 2 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Martitzena, 3 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Eguaztena, 4 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Eguena, 5 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 29 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Zapatua, 30 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Domeka, 1 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Astelehena, 2 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Martitzena, 3 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguaztena, 4 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Eguena, 5 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

Urtea bukatu arte: FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

Urtea bukatu arte: OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIGARRIA

Amaia Zubiete Beitia

2024ko azaroaren 12an hil zen, Bilbon.

*Amaia, beti irribarretsu,
Eskoriatzako sustrai sakonez eta
Portugaleteko bihotz zabalaz,
zinen bezalako izateagatik
gogoratuko zaitugu.*

Lagunak.
Aretxabaletan, 2024ko azaroaren 29an.

OROIGARRIA

**Javier Erdocia Landa**

Maria Luisa Leturia Meaberen alarguna

2024ko azaroaren 25ean hil zen, Usansolon, 88 urte zituela.

Gure besarkada beroena familiari.

Xabierren lagunak.
Arrasaten, 2024ko azaroaren 29an.

MEZA

Juli Loidi Astigarraga

Karitateko Mertzedaria, Loidi Etxebarriko alaba

2024ko azaroaren 24an hil zen, Gasteizen.

*Zenden lekuan zendela,
danok zaindu gaittuzu beti.
Eskerrik asko!
Zure loibak.*

Haren aldeko agur-meza domekan izango da, abenduaren 1ean,
10:00etan, Angiozarko elizan.

Aldez aurretik mila esker etorriko zaretenoi, familiaren izenean.
Bergaran, 2024ko azaroaren 29an.

OROIGARRIA

Javier Erdocia Landa

Maria Luisa Leturia Meaberen alarguna

2024ko azaroaren 24an hil zen, 88 urte zituela.

*Javier, zuk ereindako elkartasun haziak
loratu daitezten lanean jarraituko dugu.*



Arrasaten, 2024ko azaroaren 29an.

ESKER ONA

**Josebi Aliende Tobalina**

2024ko azaroaren 18an hil zen, 60 urte zituela.

Amalurrak goxo har zaitzala.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi
eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, etxeko izenean.

Arrasaten, 2024ko azaroaren 29an.

ESKER ONA

Simon Madinabeitia Eguren

2024ko azaroaren 23an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko azaroaren 29an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskela@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

Oroilore
Hileta zerbitzuak

BABESLEA

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiak
surren bidez aurkitzen lagundu
diegu, orain arte bezala, eta guztiak
izango ditue agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guzan
izan dituen konfiantzagarri eta
maitasunagatik.

Mario, Iban eta Mariñi

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



ASTE A GOIENA TELEBISTAN



DANBAKAKO EMANALDIA
K-PO musikari bergararrak Seminarixoen egin zuen emanaldia ikusteko aukera. Musika urbanoa izan zuen oinarri.

'Danbaka' Egubakoitza, 20:00



GIPUZKOAKO ENPRESAK EZAGUTZEN

Olaberrian dagoen Hine enpresa eta Bergarako TTT Group ezagutzeko aukera egongo da.

'Gipuzkoan egina' Egubakoitza, 20:30 eta 22:30



EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Abenduaren 3ak Debagoieneko herrietan ematen duenaren kontakizuna egingo dute, irudiekin eta adierazpenekin.

'Bereziak' Martitzena, 20:00 eta 22:00



DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK

Munichen (Alemania) bizi den Iñigo Arregi arrasatearrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik.

'Hemen Debagoiena' Martitzena, 19:00, 21:00 eta 23:00



'BERBAGAI' SOLASALDIA

URAKo lan hidraulikoen arduradun Aitziber Urqujorekin egingo du berba Goiatz Arana kazetariak.

'Bereziak' Eguaztena, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 29

ARRASATE Kafe-solasaldia
Bizipozek sustatuta, Arrasateko pertsona nagusien beharrak identifikatzeko, haien kezak eta nahiak islatuko dituen mapa bat eraikita.
Toki Argi elkartean, 16:30ean.

ARRASATE Euskaraldiaren aurkezpena
Gozo dastatzea, bertso eskola, Anixe, Txatxi jolasak eta hamaikakoaren aurkezpena.
Seber Altube plazan, 17:00etan.

OÑATI 'Zenbat urte dako amamak?' antzezlan
Pake Lekuko Ikusi Makusi antzerki taldearen eskutik. Gaur, bazkideendako bakarrik.
Santa Ana antzokian, 17:30ean.

ELGETA Ekintzak umeendako
Jokoak eta aurpegia margotzeko tailerra Ozkarbi elkartearen eskutik.
Bolatoki tabernan, 17:30ean.

ESKORIATZA 'Ostirala iritsi da!' ikuskizuna
Porrotxekin eta Marimototsekin. Sarrerak, zazpi euro.
Kiroldegian, 18:00etan.

ARRASATE 'Liburu txiki kluba' kontaketa
Mestiza elkartearen eskutik, 3-5 urte artekoendako.
Kulturaten, 18:00etan.

ELGETA Movember ospakizuna
18:00etan, kamiseta salmenta;
18:30ean, biboterik politenaren aukeraketa eta argazki ofiziala;
19:00etan, poteoa, musikarekin; eta
21:00etan, lagun arteko afaria.
Elgetan.

ELGETA 'Han egon zen Jose Luis Elkor, bizitza bete bat' liburuaren aurkezpena
Mikel Zubimendi egilearen eskutik.
Espaloian, 18:00etan.

BERGARA Brilet taldea
Elgoibarko taldearen emanaldia, Movembergara elkarteak gonbidatuta.
Venti Gastroitalian, 18:30ean.

ARRASATE Dantzaldia
Portaloi Kultura Elkartearen eskutik, dantzazale guztiendako.
Kulturolan, 18:30ean.

ELGETA Errigorako saskien banaketa
Goibeko Euskaltzaleen Elkarte arduratuko da banaketaz.
Ozkarbin, 18:30ean.

ELGETA 'Azken bisitaria' ipuin kontaketa
Bego Alabazanen eskutik, BiblioHotz egitarauaren baitan.
Liburutegian, 19:00etan.

BERGARA Danbeka musika lehiaketa
Del Val (Arrasate), Henko (Oñati), Txerrikumeak (Arrasate) eta Karena (Antzuola eta Hernani) egongo dira oholtzan.
Seminarixoen, 20:00etan.

OÑATI All In Da House txapelketa
Bigarren kanporaketan lehiatuko dira Kortxelo, Papaya, Paula, Yoller, Muxker eta Gatom, DJ Xerulak musika jarrita.
Gaztetxean, 21:00etan.

BERGARA Amustei eta Bidelapurak taldeak
Egubakoitzak Berreskuratzen egitasmoaren baitan. Sarrerak, zortzi euro.
Kartzela zaharrea, 22:30ean.

ZAPATUA 30

OÑATI Material bilketa solidarioa
Larrañako egoitzan dauden errefuxiatuei laguntzeko kanpaina.
Foruen plazan, 11:00etan.

ARETXABALETA Artismo ekitaldia
Autismoaren inguruko kontzientzia eragiteko margolanak egingo dituzte.
Iralabarri plazan, 11:00etan.

ARETXABALETA 'Prosopagnosia' film laburra
Ekain Martinez de Lizarduyk zuzendutako lana.
Arkupen, 11:30ean eta 12:30ean.

BERGARA Movembergara: agurra
Mendi buelta egingo dute, bazkaria eta bibote-mozketa.
Irala kalean, 11:30ean.

ARRASATE Greba Feminista Orokorraren urteurrena
11:30etik 14:30era, informazio-gunean; 11:30ean, propaganda tailerra; eta 13:30ean, Arrasaten egindako lanketa azalduko dute.
Seber Altube plazan.

ARRASATE 'Gaztetxeak zertarako?' topaketa
12:30etan, mahai-ingurua;
15:00etan, bazkaria eta tribial-jolasa; 18:00etan, karro-poteoa; eta 22:00etan, Bat Bat Bi, Katu, DJ Lamikiz eta DJ Martinez.
Gaztetxean.

ARRASATE Mondravember: talde-argazkia eta bazkaria
Aurten bibote txapelketa ere egingo dute ekimenaren bukaerako talde-argazkia atera aurretik.
Herriko Plazan, 12:30ean.

ESKORIATZA Mus txapelketa
LEINNeke ikasleek antolatuta.
Pilotalekuan, 16:00etan.

ARRASATE Palestinari laguntzeko kontzertua
El Volquete, The Clayton, Trumans, Etxepe eta DMT. Andere Arriolabengoa bertsolaria ere bai. Sarrerak, hamar euro.
Monterron parkean, 17:00etan.

ARRASATE Xake txapelketa
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA Lamine Thior umorista
Bakarriketa saioa egingo du, Ndank Ndank elkarteak gonbidatuta. Debalde, aretoaren edukiera bete arte.
Seminarixoen, 19:00etan.

OÑATI 'Zenbat urte dako amamak?' antzezlan
Pake Lekuko Ikusi Makusi antzerki taldearen lana. Gaur, herritar guztiendako. Sarrerak, bost euro.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

BERGARA Irene, Markel Eta Maddi taldea
Azaroa Gaztainatan ekimena.
Txuringo tabernan, 19:30ean.

DOMEKA 1

BERGARA Bertako zuhaitzen landaketa
Kukubaso elkartearekin.
San Martzialgo zabuetan, 10:30ean.

ESKORIATZA Gabonetako zero kilometroko artisauek
Artisauek eskuz egindako lanak jarriko dira salgai.
Fernando Eskoriatza plazako karpan, 11:00etan.

BERGARA 'Azken galdera amari' ipuin kontaketa
Manex Beristainen eskutik, 5 urtetik gorako umeendako eta helduendako.
Kartzela zaharrea, 17:00etan.

ARRASATE Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalurrekoa
Agin Laburu, Andoni Rekondo, Eñaut Martikorna, Iñigo Mantzisor, Maider Arregi eta Oihana Iguaran oholtzan.
Uarkapen, 17:00etan.

ARRASATE Kustomizazio tailerra
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARETXABALETA Organo eta soprano kontzertua
Jose Luis Frantzesenarekin eta Mariatxen Urkiarekin.
Parrokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 2

ARRASATE Mundukide eta Mozambique
Mundukideko kide Beñat Arzadunek egingo du berba.
Kulturaten, 10:00etan.

OÑATI Haurren Irakurketa Kluba
Peru Magdalenak gidatuta.
Liburutegian, 17:00etan.



TOLOSALDEKO ATARIA

ARETXABALETA Organo eta soprano kontzertua

Jose Luis Frantzesena organo-jole azpeitiarrak eta Mariatxen Urkia soprano aretxabaletarrek kontzertua egingo dute. Debalde izango da, parrokiako edukiera bete arte.
Etzi, domeka, parrokian, 19:00etan.

ARRASATE 'Trantsizioa transmititu' hitzaldia

Yuri Paramos oñatiarrak eta Hodei Iria arrasatearrak egingo dute berba, Ekinek gonbidatuta.
Kulturaten, 18:00etan.

ARAMAIO 'Aingeruak eta neskameak' liburuaren aurkezpena

Haurdunaldi subrogatuei buruzko analisi feministak jasotzen ditu June Fernandez liburuak.
Kultura etxean, 18:00etan.

MARTITZENA 3

ESKORIATZA 'Eskoriatzako eta Gatzaga betiko ipuiñek' liburuaren aurkezpena

Bi herrietako hainbat kondaira, istorio eta pasadizo biltzen ditu.
Ibarraundin, 19:00etan.

EGUAZTENA 4

OÑATI 'Las claves de la intergeneracionalidad para el emprendimiento' hitzaldia
Apurva San Juanek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Santa Ana antzokian, 10:00etan.

OÑATI Alfabetatze digitalaren formazio saioak gurasoendako
DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleen gurasoendako.
Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

ARETXABALETA Literatura solasaldia

Michela Murgia idazlearen *La acabadora* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta.
Arkupen, 18:00etan.

BERGARA 'Azken erromantikoak' pelikula

David Perez Sañudoren filma emango dute zineklubean eta jatorrizko bertsioan. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

EGUENA 5

BERGARA 'Kutxa beltza' erakusketa

Adimen artifizialaren alderdi nagusienei buruz kontzientziatzea helburu duen erakusketa-modulua da. Adimen artifiziala esploratzera gonbidatzen duen kutxa beltz bat da.
Laboratoriumen, 10:00etan.

BERGARA Eguaztenak Oxirondon

Herriko baserritarren garaiko produktuak erosi, eta sukaldaritza zuzenean Elikaeneak gidatuta.
Oxirondo azokan, 20:00etan.

BERGARA Organoaren gaineko hitzaldia

SAS Michel Jurinek eta Artez enpresako kideek jardungo dute organoaren gainean.
Seminarixoa, 20:00etan.

DOMEKA 8

BERGARA Stoltz Freres organoaren inaugurazioa
11:30ean, kanpai-jotzea; 12:03ean, meza eta organoaren bedekapena Bergarako parrokiako koruarekin; 17:45ean, aurkezpena; eta 18:00etan, organo emanaldia Aitor Olearekin.
San Pedron.

ZINEMA

BERGARA

SEMINARIXOA

Gladiator II
Domeka eta astelehena: 19:30.
Robot Salvaje
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Azken erromantikoak
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.
Central Parkeko heroiak
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Anora
Zapatua: 16:30, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Pideme lo que quieras
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 19:30.
Wicked
Astelehena: 19:30.

ANTZOKIA

Wicked
Zapatua: 16:00, 19:15, 22:30.
Domeka: 16:30, 20:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Azken erromantikoak
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 12:00.
Bird
Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 21:45.
Domekatik eguaztenera: 19:15.

El ministro de propaganda

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 16:30.
Asteleheneetik eguaztenera: 19:45.

Esperando la noche

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 22:00.
Domeka: 12:00, 17:00.
Asteleheneetik eguaztenera: 17:00.

Gladiator II

Egubakoitza eta domeka: 16:30, 19:30.
Asteleheneetik eguaztenera: 16:30, 19:15.

La infiltrada

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 21:45.
Domeka: 12:00, 17:00.
Asteleheneetik eguaztenera: 17:00.

Las chicas de la estacion

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 21:45.
Domeka: 12:00, 17:00.
Asteleheneetik eguaztenera: 17:00.

Marco

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 21:45.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:00.
Astelehena eta eguaztena: 19:15.
Martitzena: 17:00, 19:30.

Por donde pasa el silencio

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:30.
Domeka: 12:00, 16:30.
Asteleheneetik eguaztenera: 19:15.

Harold y el lapiz magico

Domeka: 12:00.

Raqa

Egubakoitza eta zapatua: 18:30.
Domeka: 20:30.
Asteleheneetik eguaztenera: 17:00.

Robot salvaje

Egubakoitza eta zapatua: 18:30.
Domeka: 12:00, 18:30.
Asteleheneetik eguaztenera: 17:15.

Vaiana 2

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30.
Astelehena eta eguaztena: 17:00, 19:30.
Martitzena: 17:00.

Wicked

Egubakoitza eta domeka: 16:30, 19:30.
Astelehena eta eguaztena: 16:30.

Wicked (jatorrizko bertsioan)

Egubakoitza eta domeka: 16:30.
Astelehena eta eguaztena: 19:30.

BOULEVARD

Vaiana 2

Zapatua eta domeka: 16:00.
Zapatua eta domeka (3D): 15:45.
Egubakoitza eta domeka: 17:20, 20:10.

Wicked

Asteleheneetik eguaztenera: 18:30.
Egubakoitza eta domeka: 17:10, 18:10, 19:20, 20:20, 21:30 eta 22:30.

Egunero, martitzena izan ezik: 16:40, 17:30, 18:50, 19:50.
Martitzena: 16:40, 17:30.
Martitzena (jatorrizko bertsioan): 19:50.

Winnie the Pooh 2

Egubakoitza eta eguaztena: 17:55, 22:25.

Pideme lo que quieras

Egubakoitza eta eguaztena: 17:15, 19:45, 22:15.

Gladiator II

Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitza eta eguaztena: 17:00, 19:00, 20:00, 22:00.
Martitzena (jatorrizko bertsioa): 21:00.

Wicked

Zapatua eta domeka: 15:45.
Egubakoitza eta eguaztena: 18:50, 21:20, 21:55.
Martitzena (jatorrizko bertsioa): 18:15.

Red one

Egubakoitza eta eguaztena: 17:05.

La infiltrada

Egubakoitza eta eguaztena: 19:45.

El ultimo viaje

Egubakoitza eta eguaztena: 22:20.

Robot salvaje

Egubakoitza: 17:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

Juradon nº2

Egubakoitza eta eguaztena: 20:00.



Wicked (2024) filmaren une bat. UNIVERSAL PICTURES



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Ni ezkertiarra naiz; eta?

Zorigaitzeko emakumeon aurkako biolentzia geroz eta basatiagoa gertatzen ari zaigu. Badirudi gaur egun ez dela "politikoki zuzena" "ni matxista naiz" esatea. Gehienek, gainera, ukatu egiten dute halakoak badira ere.

Badakigu azalaren eta izanaren artean alde handia dagoela, askotan, gizon-emakumeon artean, eta asko dira *postureoan* ibiltzen diren gizonezkoak gai honetan. Honekin ez dut esan nahi matxista guztiak tratu txarrak ematen dituztenik, baina nolabaiteko ingurunea sortzen dute, eta ez onerako...

Postureo horien artean ezker militante asko dago: giza emakumeon eskubideen defendatzaile handienak, *progreenak*, juxtuenak, feminismoa gehien defendatzen dutenak, dena beste inork baino gehiago.

Emakumeok, ez zaitezte argudio horietaz fida; ezker nahiz eskuin, emakumeok errespetatzen ez gaituztenak berdinak dira, tratu txarrak emateko gai dira biak, Errejon elementu hori ikusi besterik ez dago, eta gure artean ere erne! Ezkertiar eta euskaldun izateak edo ezkertiar eta *progre*a izateak ez du bermatzen emakumeon aldeko errespeturik. Azalak izana ezkututzen duenean, erne!

BUKATZEKO



Valen Moñux bergararra, Zalduntxoak taldeko kideekin batera, jantzien aurkezpen ekitaldian. GUKA

Valen Moñux, Zalduntxoak taldeko aholkulari

Azkoitiko Zalduntxoak taldearen jantziak diseinatzen lagundu du Moñuxek, sanandresetako danborradarako. Xabier Munibe Peñafloidako kondearen eta haren garaikide aristokraten "jaietako jantzietan" oinarritutako arropak direla azaldu du

Larraitx Zeberio-Jone Arruabarrena
AZKOITIA

Zalduntxoak taldeak hirugarren urtea izango du aurten San Andres atarian Azkoitian egin ohi den helduen danborradan. Jantziak berritzeko Euskalerriko Adiskideen Elkartearen laguntza izan du azken hilabeteetan. Lotura argia da: elkarte bera sortu zuten Peñafloidako kon-

deak, Narrosko markesak eta Manuel Ignacio Altunak osatu zuten Azkoitiko Zalduntxoak hirukoaren izena hartu zuen taldea. Valen Moñux Bergararra izan dute jantziak diseinatzeko aholkularitza lanetan.

Duela 257 urte, Peñafloidako kondeak Bergaran Errege Mintegia sortzeko Azkoitia utzi zuenean, Intsausti jauregia itxi

eta alde egin aurretik festa handia ospatu zuen Azkoitian. Garai hartako euskal aristokraten jaiegunitako edo festarako jantziak izan dira Zalduntxoak taldearen danborradarako trajeak diseinatzerakoan Moñuxek eta lantaldeak kontuan izan duten oinarria.

Bergararrak badu esperientzia garaiko jantziak prestatzen;

izan ere, besteak beste, Muni-beren *El borracho burlado* operaren 250. urteurrenean jaioterrian ikuskizuna berreskuratu zutenean ere tartean izan zen. Muniberen opera taularatzeko XVIII. mendeko euskal aristokratiaren janzkera sakon aztertu behar izan zuela azaldu du Moñuxek, eta orduan jasotakoa oso lagungarria izan zaio Azkoitiko danborradarako jantzien diseinua gidatzeko. Moñuxek berak ere parte hartu zuen, Zalduntxoak taldeak gonbidatuta eta jantzi berriak jantzita. "Haiekin irteteko gonbidapena egin zidaten, baina pentsatu nuen Hiru Zalduntxoentzat omenaldi bat izanik, hiruk joan behar genuela". Hain zuzen, beste bi aktoreekin batera joan zen Moñux. "Oso harrera ona izan genuen, kuriooa izan zen", azaldu du Moñuxek.

ai arizmendi
ikastola

**BISITA
PERTSONALIZATUAK**

Hartu
zure txanda
hemen!

943 77 20 25

www.arizmendi.eus